Plentziako Itsas Estazioa
Estación Marina de Plentzia

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIA Y TECNOLOGÍA

Zoology and Animal Cell Biology Department
Cell Biology in Environmental Toxicology Research Group

SEX DIFFERENTIATION IN TELEOST FISH SPECIES: MOLECULAR IDENTIFICATION OF SEX AND OOCYTE DEVELOPMENTAL STAGE

International Ph.D Thesis submitted by
IRATXE ROJO BARTOLOMÉ
For the degree of
Philosophiae Doctor
2017

“El tiempo no es importante.
Sólo la vida es importante.”

- Mondoshawan

Nire familiari, daudenei eta joan direnei,
urte hauetan nire alboan izan zaretenoi,
Eskerrik asko

THIS WORK WAS FUNDED BY:

The **European Commission** through COST Action AQUAGAMETE (FA1205).

The **Ministry of Education and Competitiveness** MINECO + European ERDF-Funds through projects SEXOVUM (AGL2012-33477) and ATREoVO (AGL2015-63936-R).

The **Basque Government** through the pre-doctoral grant to Iratxe Rojo Bartolomé, complemented by a mobility grant for her stay in the University of Rennes. The work was also funded through the grant to Consolidated Research Groups (GIC07/26-IT-393-07 and IT-810-13) and the SAIOTEK research projects OVUM-II (S-PE12UN086), FROMOVUM (S-PE13UN101) and TOXADEN (S-PE13UN131).

The **University of the Basque Country** through the grant to Unit of Formation and Research (UFI 11/37).

TABLE OF CONTENTS

SARRERA

Parts of this introduction were published in:

Ortiz-Zarragoitia, M.; Bizarro, C.; Rojo-Bartolomé, I., Diaz de Cerio, O., Cajaraville, MP., Cancio, I. (2014). Mugilid fish are sentinels of exposure to endocrine disrupting compounds in coastal and estuarine waters. *Mar. Drugs*. 12: 4756-4782.

1. Sexu-determinazioa arrainetan

Ugalketa sexuala naturan existitzen denetik sexua determinatzen duten mekanismoak azkar eboluzionatu eta dibertsifikatu egin dira. Arrainetan sexu-determinazioa banako bat emea edo arra izango den erabakiko duten ingurune-faktore eta faktore genetiko eragileek eraentzen dituzten mekanismo molekular zein zelularren multzoari deritzo (Devlin & Nagahama, 2002). Katalogaturiko 33.400 arrain espezie baino gehiagoren artean (www.fishbase.org), %96-a teleosteoak dira, ornodunetan azaltzen den talderik handiena eta dibertsoarena. Teleosteoen arrain-taldean ornodunetan sexu-determinazio genetikorako deskribatu izan diren aldaera guztiak aurki ditzakegu (1. Irudia). Zenbait espeziek, sexu-kromosoma berezituak aurkezten dituzte, batzuk ar-heterogamia (XX/XY) erakutsiz, izokinak kasu, beste batzuk eme-heterogamia (ZZ/ZW) erakusten duten bitartean, *Gambusia* generoan esaterako. Ar-, eme-heterogamia gainera espezie bereko banakoen artean nahasturik ere ager daiteke, *Xinophorus maculatus* espeziean ikusi den bezala, ziurrenik berriki sortutako sexu-kromosomen dibergentzia prozesuaren ondorioz (Kallman, 1965; Baroiller et al., 1999). Sexu- kromosomak dituzten arrain-espezie askotan kromosomen arteko dibergentzia hain da berria, non ez den kromosomen arteko heterogamiarik bereizten. Nahiz eta zenbait espezietan sexu-kromosomen arteko morfologia ezberdintasunak topatu diren (aztertu direnen %10.4), gehienetan itxura oso antzekoa dute eta ezinezkoa da teknika zitogenetiko soilen bidez bereiztea (Devlin & Nahagama, 2002). Horrela sexu-kromosomak dituzten espezieen artean soilik bakan batzuetan aurkitu izan da gene bakarreko sexu-kontrola (kontrol monogeniko). Beste arrain batzuetan kontrol mekanismoak gene askok gidatzen dituzte(poligenikoa), esate baterako zebra arrainean (*Danio rerio*), zeinetan arra edo emea izatearen eragileak genoman hainbat kromosomatan sakabanatuta dauden guneak diren (Bachtrog et al., 2014).



1. Irudia: sexu-determinaziorako sistemen dibertsitatea animalia-klado adierazgarrietan. Ornodunak: Mammalia (plazentadunak, marsupialak eta monotrematuak), Aves (hegaztiak), Reptilia (dordokak, sugeak, krokodiloak, sugandilak), Amphibia (igel, apo, arrabioak) eta Teleostei (hezurdun arrainak). Ornogabeak: Acari (akaroak eta kaparrak), Crustacea (izkira, lanperna, karramarroak), Coccoidea (ezkata intsektuak), Coleoptera (kakalardoak), Hymenoptera (inurriak, erleak eta liztorrak), Lepidoptera (tximeletak) eta Diptera (euliak). GSD: sexu-determinazio genetikoa, ESD: ingurumenak baldintzatutako sexu-determinazioa (Batchrog et al., 2014-tik eraldatua).

Sexuaren kontrol monogenikoari dagokionez, ugaztunetan Y-kromosoman dagoen *sry* genea (ingelesezko sex-determining region Y) ar izaeraren edo determinazioaren eragilea kontsideratzen den bitartean (Sinclair et al., 1990), arrainetan espezie bakar batzuetan aurkitu dira sexu-kromosomei loturiko banakako gene determinatzaileak. Hain zuzen ere, 6 dira azken urteotan argitaratu diren adibideak; *Tetraodon rubripes*, *Cynoglossus semilaevis,* Patagoniako pejerrei (*Odontesthes hatcheri*), ostadar amuarraina (*Oncorhynchus mykiss*) eta *Oryzias luzonensis* eta *Oryzias* latipes medaka arrainenak hain zuzen ere (Batchrog et al., 2014). a*mhr2* geneak (ingelesezko anti-Müllerian hormone receptor 2) X-kromosomari loturiko dosiaren araberako sexu-determinaziorako mekanismoa baldintzatzen du tigre puxika-arrainean (*T. rubripes*). Aldiz, *C. semilaevis*-ean Z-kromosomari loturiko *dmrt1* (ingelesezko doublesex and mad 3 transcription factor-1) geneak du kontrola eta, Patagoniako pejerreian, ostadar amuarrainean zein *O. luzonensis*-en Y-kromosomari loturiko *amhy* (anti-Müllerian hormone genea), *sdY eta gsdf* (gonadal soma derived growth factor) geneek, hurrenez hurren, agintzen dute testikuluaren desberdintzapena (Kikuchi & Hamaguchi, 2013;

Batchrog et al., 2014). Azkenik, medakak Y-kromosomari loturiko DM-domeinu genea, edo *dmy* genea (ingelesezko Y-specific DM-domain gene) du, arrainetan urteetan zehar ezagutu den sexu-determinaziorako gene bakarra. Gene hau ere ar izaerari lotuta dagoen sexu-determinaziorako gene gidaria da (2. Irudia). *dmy* ere, *sry* bezala ugaztunetan, sexu-desberdintzapenaren hasieran gonadaren zelula somatikoetan, gerora Sertoli zelula desberdintzatuak izango direnak, adierazten da (Matsuda et al., 2002) eta bere adierazpena isiltzerakoan fenotipo emea aurkezten duten XY arrak sortzen dira (Devlin & Nagahama, 2002; Matson & Zarkower, 2013). Medakan ar izaerari loturiko *dmy* gene agintari honen jatorria *dmrt1a* gene autosomikoaren bikoizketan dago. Azterturiko arrain espezie guztietan *dmrt1* garatzen ari den gonada arran adierazten da, baita obario-testikulu trantsizioan dauden hermafrodito proteroginoetan ere. Medakan bikoizketaren ondorioz Y kromosoma berria sortu zen zeina ar garapenerako ezinbestekoa eta nahikoa den, berak agintzen baitu *dmy* bidez gerora ematen den *dmrt1* genearen adierazpena (2. Irudia). Hau da, genearen bikoizketaren ondorioz medakan sortutako gene berria desberdintzapen-turrustaren gidaria bilakatu zen. Antzeko zerbait gertatu da pejerreiren *amhY* genearekin (Kikuchi & Hamaguchi, 2013). *dmrt1* geneak bestelako arrain-espezieetan ere sexu-determinazioan eragin dezake, esate baterako, *dmrt1* genearen gain-adierazpenak XX Niloko tilapiatan (*Oreochromis niloticus*) emetik arrerako sexu-eraldaketa sortzen du. Zebra arrainetan gainera, nahiz eta sexu-determinaziorako sistema poligenikoa azaltzen duten, genoman egindako lotura analisiek *dmrt1* lokusak sexu-determinazioan paper garrantzitsua jokatzen duela ikusi da (Matson & Zarkower, 2013).



2. Irudia: Medakaren sexu-determinazio sistema monogenikoa. Y kromosomari loturiko *dmy* geneak, ugaztunetan *sry* geneak egiten duen moduan ar helduen testikuluaren desberdintzapena agintzen du (Matson & Zarkower, 2013).

Faktore genetikoez gain ingurune-faktoreek ere eragin handia dute arrainen sexu-determinazio eta -desberdintzapenean, Devlin eta Nagahamaren (2002) berrikustapenean laburtuta azaltzen den moduan. Besteak beste, tenperatura, oxigeno eskuragarritasuna, pH-a, inguruneko hormonek eta harreman sozialek arrainen sexu-fenotipoan eragin dezaketela ikusi da, askotan determinazio genetikoaren gainetik gailenduz. Orain dela 35 urte genotipoaz gain tenperaturak ere arrainen sexu-determinazioan eragin zezakeela ikusi zen lehenengoz *Menidia minidia* espeziearekin burututako ikerketan (Conover & Kynard, 1981). Harrezkeroztik, asko dira tenperaturaren menpeko sexu-determinazioa aztertzen jardun dutenak. Besteak beste, fletan japoniarrak (*Paralichthys olivaceus*) eta Niloko tilapiak (*Oreochromis niloticus*) tenperaturaren menpeko sexu-determinazioa aurkezten dute, non XX emeak tenperatura igoerarekin ar bilakatzen diren (D'Cotta et al., 2001; Kitano et al., 2000). Horrela, tenperaturaren bitarteko sexu-eraldaketa sexubakarreko populazioak lortzeko erabili izan da akuikulturan, hazkuntza-tasa altuena dueneko generoa faboratzeko asmoz (Devlin & Nagahama, 2002). Horrez gain, XX/XY eta ZZ/ZW sistema duteneko espezieetan hormonen bidezko tratamenduek ere sexu-eraldaketa eragin dezakete. Izan ere ikerketa arloan hormona-tratamenduen bidezko sexu eraldaketa sexubakarreko populazioak lortzeko oso hedatua dagoen hurbilketa da (Pandian & Sheela, 1995;

Vizziano et al., 2007). Harreman sozialek eragindako sexu-aldaketa inguruneak eragindako sexu-determinazio kontrolaren muturreko adibide moduan har daiteke, adibidez pailazo arrainean (*Amphiprioninae* subfamilia) (Casas et al., 2016).

2. Sexu-desberdintzapena eta ugalketarako sistema endokrinoa arrainetan

Arrainek ur-ekosistema osatzen duten nitxo ekologiko desberdinetan bizi ahal izateko asko dibertsifikatu deneko taldea osatzen dute. Horren adierazgarri, aurkezten dituzten sexu-desberdintzapen prozesuaren malgutasuna eta ugal estrategia ugariak nabarmentzen dira (Baroiller et al., 1999, Devlin & Nagahama, 2002). Sexu-desberdintzapena, sexu-determinazioaren ostean gertatzen deneko obario edo testikuluaren garapenari deritzo eta sexu-determinazioak bezala forma eta mekanismo ugari hartzen ditu arrain teleosteoetan. Arrain asko gonokoristikoak dira, hau da ar edo eme moduan garatzen dira eta bizi osoan zehar beraien sexu-fenotipoari eutsi egiten diote. Talde honen barnean dauden espezieak ere gonadaren garapen goiztiarrerako duten estrategiaren arabera multzoka daitezke: bereizitako arrain gonokoristikoak, gonada zuzenean obario edo testikulu moduan garatzen dute; bereizi gabekoak aldiz, zebra arraina kasu (*Danio rerio*), obarioa gazte bat garatzen dute testikulu edo obario helduen aurretik (Devlin & Nagahama, 2002). Azken talde honetan beraz, arrak izango direneko banakoek (gutxi-gora-behera populazioaren erdia) derrigorrez hasieran garatutako obario heldugabetik testikulurako aldaketan fase hermafrodita batetik igaro beharko dute. Gainera, bigarren mailako espezie gonokoristikoak ere topa daitezke, hala nola *Nemipterus bathybius*, zeintzuk heldu aurretik gonada hermafrodita garatzen duten (Devlin & Nagahama, 2002).

Espezie gonokoristikoekin alderatuta espezie hermafroditek euren bizitzan zehar oozitoak zein espermatozoideak gara ditzakeen gonada helduak aurkezten dituzte. Aldibereko hermafroditotan, aldi berean gameto ar eta emeak topatuko ditugu, normalean ehun konektiboz banaturiko gonada ar (testikulua) eta eme (obarioa) desberdindu banarekin, aldi berean esperma zein arrautzak askatzeko gaitasuna dutelarik. Hauen artean, gobioak (*Gobiidae* familia), meroak edota serranido asko (krabeak) aurkituko ditugu. Hala ere, auto-ernalketa soilik Amerikako mangladietan aurki

daitekeen *Rivulus marmoratus* arrain ziprinidoan deskribatu da (Devlin & Nagaham, 2002). Beste espezie asko hermafrodito sekuentzialak dira, kasu honetan espermatozoideak edo oozitoak txandaka ekoizteko ahalmena dute bizi zikloko momentu desberdinetan zehar. Hauen artean espezie proterandrikoak (muxarra, *Diplodus vulgaris* eta urraburua, *Sparus aurata* esaterako) eta proteroginoak (durdoia, *Labrus bergylta* edo dontzeila, *Coris julis* esaterako) bereiz ditzakegu, hau da, heldutasun sexualean lehenengo ar edo eme moduan garatzen direnekoak hurrenez hurren. Gerora, eta normalean tamaina jakin batetara heltzean, espezie proterandrikoetan (lehengo arra) gonada arraren endekapena gertatzen da eta obarioa garatzen dute. Arrain proteroginoen barnean bi joera nagusi bereiz daitezke, espezie monoandrikoak, non testikulua, aurretik obarioa izan den gonadatik garatzen den, eta diandrikoak, non testikulua, obariotik edo gonada hermafroditatik eratortzen den (Devlin & Nagahama, 2002). Esan bezala sexu-aldaketa horiek tamainaren emendioak bultzatuak izan daitezke edota harreman sozialek eragindakoak. Azken estrategia hau ohikoa da ar menperatzaile bakarreko taldeetan antolatutako arrain proteroginoetan, adibidez koral arrezifeetako zenbait arrain familiatan, edota mundu osoko labrido espezie askotan (meroak, dontzeila, txilibitua, durdoia), non ar nagusiaren desagerpenak eme handienaren sexu eraldaketa bultzatzen duen (Godwin, 2009). Populazio baten sexu-ratioaren oreka mantentzeak ere sexu eraldaketa bultza dezake zenbait arrainetan (Munday et al., 2006).

Arrainen sexu-desberdintzapena eta gametogenesia barne esteroideek eraentzen dituzte. Hainbat organo, guruin eta ehunek osatzen dute sistema endokrinoa. Oro har organismoaren funtzionamendua integratzeaz arduratzen den sistema barreiatua da; besteak beste, metabolismoa, garapena eta ugalketa kontrolatzen dituena. Horretarako, modu desberdinetan antolatutako zelula endokrinoek itu-zeluletara helduko diren hormonak odol-korrontera askatzen dituzte. Ornodunetan oso kontserbatua dagoen hipotalamo-guruin pituitario-gonada (HPG) ardatza hormona esteroideen metabolismoaz eta beraz ugalketaren kontrolaz arduratzen da (3. Irudia), banakoaren inguruneko kanpo informazioa (hala nola, informazio soziala, faktore klimatikoak, fotoperiodoa, elikagaien eta oxigenoaren eskuragarritasuna) barne fisiologiarekin

(homeostasia, metabolismoaren egoera eta banakoaren garapena) integratuz (Maruska & Fernald, 2011).

Arrainen hipotalamoa prosentzefaloan dago eta nerbio-sistema zentralaren erantzunaren ondorioz sorturiko hormona eta mezulari kimikoen sintesi eta askapenaz arduratzen da, nerbio-sistema zentrala nerbio-sistema autonomoarekin eta sistema endokrinoarekin konektatuz. Hipotalamoak kanpo estimulu eta faktore fisiologikoek sortutako neurotransmisoreen aurrean erantzuteko gai da, hartzaile espezifikoen bidez. Hauxe da kisspeptinen edo Kiss1 eta Kiss2 neuropeptidoen kasua, zeinak Gpcr (edo Kiss-R) hartzaileen bidez pubertaroa eraentzeaz arduratzen diren gonadotropinen hormona askatzaileak diren neuronak (GnRH neuronak) aktibatuz (Gopurappilly et al., 2013; Shahjahan et al., 2014). Kontrako eraginarekin, dopaminak (DA) pubertaroa eta arrain helduetan gametogenesi-ziklo bakoitzaren hasierako pausuen eta azkeneko oozitoaren hazkuntza eta obulazioaren inhibizioa eragiten du, zuzenean GnRH neuronetan dauden DA-D2 hartzaileen bidez. DA-ren askapena halaber melatoninak eraendua da. Melatoninak guruin pinealean ekoizten diren triptofano aminoazidotik eratorritako indoleaminak dira, zeinen ekoizpena fotoperiodoaren araberakoa den (Dufour et al., 2010). Melatoninak gauez ekoizten dira dopaminaren askapena inhibituz eta erritmo zirkadianoek sasoiek eta berari loturiko fotoperiodoak bere ekoizpen mailan eragiten dute. Bere eragina ere amets-zikloetara eta ugal zikloetara zabaltzen da.

Kinada positiboen eraginpean (Kiss-Gpcr loturaren menpean) ugal neurohormona nagusia den GnRH (ingelesezko gonadotropin releasing hormone) ekoizten da hipotalamoan. GnRH-a dekapeptido bat da eta ornodunetan oso kontserbatua dago. Orain dela gutxi gainera ornogabeetan ere topatua izan da, bere garrantzi ebolutiboaren isla (Maruska & Fernald, 2011; Minakata, 2010; Tsai, 2006). Arrain teleosteoek bi edo hiru GnRH desberdinen ekoizpenerako gene paralogoak dituzte, GnRH3 arrainetan soilik topatu delarik. GnRH1-neuronen axoi-bukaerak zuzenean guruin pituitarioan dauden zelula gonadotropikoen ingurura jariatuko dute GnRH1 hormona. GnRH1-ek bi gonadotropinen, hormona luteinizatzailea (LH) eta hormona folikulu estimulatzailea (FSH), ekoizpena eta odol korronterako askapena bultzatuko dute pituitarioan (Levavi-Sivan et al., 2009). Odol korrontearen bidez gonadotropinek gonadetako zelula somatikoetaraino helduko dira, non sexu-hormona esteroideen sintesia eraenduko

duten (Kah & Dufour, 2011; Maruska & Fernald, 2011): emeetan 17β-estradiola (E) eta arretan testosterona (T) eta arrainetan bereziki 11-ketotestosterona (11-KT) ere (Le Menn et al., 2007; Hachfi et al., 2012). 11-KT arrain askoren testikuluetan frogatu denez, sexu-hormona nagusi gisa jokatzen duen T-ren aldaera oxidatua da (Nagahama et al., 1994). Horrez gain, gonadotropinek heltzearen eragile diren esteroideen sintesia kontrolatzen dute, batez ere, 17α,20β-dihydroxi-4-pregnen-3-ona bi sexuetan (Nagahama, 1997; Nagahama & Yamashita, 2008; Chen et al, 2013). FSH-k oogenesia eta espermatogenesia, hau da, lerro germinaleko zelulen proliferazioa, eragiten dituen bitartean, LH-k gametoen heltze prozesuan, obulazioaren indukzioan eta espermaren askapenean eragiten du beranduago (Ankley & Johnson, 2004; Rocha et al., 2009). Gonadotropinen askapena, gonadako esteroideek sorturiko "feedback" negatiboaren bidez eraen daiteke eta baita hipotalamoak askaturiko gonadotropinen hormona inhibitzailearen, GnIH-ren, bidez ere (Maruska & Fernald, 2011).



3. Irudia: Hipotalamo-pituitario-gonada (HPG) ardatzaren kontrol neuro-hormonala teleosteoetan. GnRH-k pituitarioaren bidezko gonadotropinen (LH eta FSH) askapena bultzatzen du, zeinek halaber, gonadetan gametogenesia eta esteroidogenesia aktibatzen dituzten. Dopaminak (DA) gonadotropinen sintesia eta askapena inhibitzen ditu eta kisspeptinak (Kp), GnRH eta gonadotropinen eraenketa positiboaren arduradunak dira. Melatoninak nerbio sistema zentralean jardun eta bereziki DA neuronen aktibitatea erregulatzen duten, ingurumen-faktoreen eraginaren bitartekariak dira (Dufour et al., 2010).

Sexu-hormona esteroideen sintesia gonaden zelula somatikoetan burutzen da. Horretarako, LH, teka zeluletan (obarioa) eta Leydig zeluletan (testikulua) dauden hartzaile espezifikoei (LHR) lotu behar zaie. Horrez gain FSH ere, granulosa (obarioa) eta Sertoli (testikulua) zeluletan adierazten diren eta mintz plasmatikoan txertatuak dauden FSHR hartzaile espezifikoei lotuko zaie (Hachfi et al., 2012) (4. Irudia).



4. Irudia: Hormona esteroideen sorrerarako gonadotropinen (hormona luteinizatzailea-LH eta folikulu estimulatzailea-FSH) bitarteko seinaleztapena arrain teleosteoen gonadetan. Laburdurak: T: testosterona, E: 17β-estradiola, 11-KT: 11-ketotestosterona, FSHR: hormona folikulu estimulatzailearen hartzaile espezifikoa, LHR: hormona luteinizatzailearen hartzaile espezifikoa (Hoar & Nagahama, 1978-tik eraldatuta).

Gonadaren zelula somatiko desberdindu horien mitokondrioetan kolesterolak eraldaketa sekuentzialak pairatuko ditu, testosterona, 11-ketotestosterona (androgenoak), zein 17β-estradiola (estrogenoa) ekoizteko (Devlin & Nagahama, 2002; Piferrer, 2011). Obarioan (5. Irudia) kolesterola teka zeluletan lipropoteina hartzaileen bidez sartu edota zuzenean zelula hauen zitoplasman *de novo* ekoitz daiteke. Orduan mitokondriatara garraiatua izango da StAR proteinaren (ingelesez steroidogenic acute

regulatory protein) laguntzaz. Bertan, Cyp11a1-ari (cytochrome-P450 cholesterol side-chain cleavage enzyme) esker pregnenolonan bilakatuko da. Pregnenolona mitokondriatik atera eta erretikulu endoplasmatiko leunera garraiatzen da progesterona edo dehidroepiandrosterona (DHEA) ekoizteko, Hsd3b (ingelesezko 3β-hydroxysteroid dehydrogenase) edo Cyp17a1-ri (esteroide 17-alfa-monooxigenasa) esker, hurrenez hurren. Progesterona eta DHEA androstenediona androgenoan bilakatuko dira, berriro ere Cyp17a1 edo Hsd3b-ri esker. Androstenediona orduan testosteronan eta bestelako androgenoetan bilakatuko da eta granulosa zeluletan estronan, HSd17b (17β-hydroxysteroid dehydrogenase) entzimari esker. Androstenedionatik eratorritako testosterona eta estrona estradiolean eralda daitezke aromatasa (*cyp19a1a* genearen produktua) edo Hsd17b-entzimei esker (Hannon & Flaws, 2015).



5. Irudia: estrogenoen ekoizpena obarioko folikuluen zelula somatikoetan. Esteroidogenesia obarioan folikuluaren teka zelulek eta granulosa zelulek bideratzen dute. Horrela, kolesterola estradiolean eta bestelako sexu-hormonetan bilakatuko da. Urdinez entzimak agertzen dira eta hormonak kutxa zurietan (Hannon & Flaws, 2015).

Hormona esteroideek arrainen sexu-desberdintzapenean jokatzen duten papera luze aztertu izan da (Pandian & Sheela, 1995). Hormona hauek zelulen hartzaile nuklearrekin, estrogeno- eta androgeno-hartzaileekin, elkarreragin dezakete (sexu-

desberdintzapenean eta gametogenesian parte hartzen duten geneen adierazpena aldatuz (Leet et al., 2011).

Jakina da estrogenoek arrainen obarioaren desberdintzapenean eta sorreran ezinbesteko funtzioa dutela. Are gehiago, oso posiblea da aromatasa entzima izatea sexu-determinazioan aritzen diren geneek eragiten duten etengailua, estrogenoen sintesia erregulatuz sexu-desberdintzapena eraentzeko (Chang et al., 2005). Aromatasa entzimak hormona esteroideen arteko oreka mantentzen du sexu-desberdintzapenean, garapenean eta ugalketan zehar (Devlin & Nagahama, 2002; Diotel et al., 2013). Arrainen genoman bi gene paralogo ezberdin daude aromatasaren sintesirako, *cyp19a1a* eta *cyp19a1b* (Chiang et al., 2001). Cyp19a1a-k, edo obarioteako aromatasak, oozitoa inguratzen duten teka eta granulosa zelulatan adierazpen altua duen bitartean, Cyp19a1b burmuinean adierazten da gehien bat, bai ar zein emeen kasuan (Chiang et al., 2001; Blázquez & Piferrer, 2004; Liu et al., 2007). Cyp19a1a estrogenoen sintesian duen eraginagatik obarioaren desberdintzapenean eta gibelean bitelogenesiaz arduratzen da. Cyp19a1b aldiz, neurogenesia eta ugal-garapenean jarduten du sexu-desberdintzapenean zein ugal-zikloan zehar (Blázquez & Piferrer, 2004; Diotel et al., 2013). Enbrioiaren garapenean *cyp19a1b* da lehenengo paralogoa adierazten baina *cyp19a1a*, nahiz eta beranduago adierazi, sexu-desberdintzapena ikusgarria izan aurretik adierazten hasten da; adibidez zebra arrainean, tilapian eta oztadar amuarrainean (Guiguen et al., 1999; Kwon et al., 2000; Trant et al., 2001; Kobayashi et al., 2003; Siegfried & Nüsslein-Volhard, 2008; Sawyer et al., 2006 ; Ijiri et al., 2008).

cyp19a1a-ren transkripzio-mailetan eta beraz estrogenoen sintesian eta sexu-desberdintzapenean eragiten duten hainbat gene deskribatu dira orain arte (6. Irudia). Horien artean, *sox9, amh, dmrt1 eta foxl2* aipa daitezke. Hauek azkenean *cyp19a1a*-ren aktibazioa edo desaktibazioa ondorioa duten bidezidorretan parte hartzen dute eta, adibidez zebra arrainetan, zeinek derrigorrezko obario garatugabea ekoizten duten *sox9*, *dmrt1* eta *amh*-ek paper garrantzitsua jokatzen dute obario garatugabe horretatik testikulua sortzeko. Gene hauek, ordurarte aktibo dagoen aromatasa jarduera ixilerazi behar dute, E-mailak jaitsi, T-mailak igo eta obarioaren ordez testikuluak garatu ahal izateko (Hofsten & Olsson, 2005). *sox* familia osatzen duten geneak DNA-loturarako HMG-kutxa (High Mobility Group) domeinua duten transkripzio-faktoreak kodetzen

dituzte (Leet et al., 2011). Familia honetako geneei funtzio ezberdinak esleitu zaizkie, sexu-determinazioan edo neurogenesian. Horien artean *sox9* genea, ugaztunetan pre-Sertoli zeluletan gain-adierazten dela ikusi eta *sf1* (steroid factor 1) eta *amh*-rekin (anti Müllerian hormone) elkarrekiten duela ikusi da. Oso antzera, *sox9* arrain teleosteoetan testikuluaren garapenarekin erlazionatuta dago (Rodríguez-Marí et al., 2005). Gonadak-desberdintzatu aurretik bi sexuetan adierazten da zelula germinalen inguruan dauden zelula somatikoetan (arretan gerora Sertoli zelulatan desberdinduko direnak) adierazten delarik. *Sox9*-aren gain-adierazpena gerora, testikuluaren garapenean azkeneko urratsetan ematen da, hodi seminiferoen azkeneko hazkuntzan parte hartuz (Nakamoto et al., 2005). Bestetik, pailaso arrainean (*Amohiprion bicinctus*) adibidez, sexu-desberdintzapenarekin erlazionatuta diruditen bestelako sox geneak deskribatu dira, horien artean, *sox6,* zeinak ornodunetan espermatogenesia erregulatzen duen eta *sox8,* testikuluen mantenimenduan diharduena (Casas et al., 2016). Horiez gain *foxp4*-ak (forkhrad box P4) ere, *sox6*-rekin batera burmuin mailan aromatasaren adierazpenaren erregulazioan jarduten dutela proposatu dute (Casas et al., 2016) (6. Irudia).

Ugaztunetan bezala, arrainetan ere Amh eta Dmrt1 proteina-mailak arren desberdintzapenarekin erlazionaturik daude (Kobayashi et al., 2004; Rodríguez-Marí et al., 2005). Arrerako sexu-desberdintzapenak ugaztunetan hormona anti-Mülleriarraren (Amh) adierazpenaren aktibazioa eskatzen du (Lasala et al., 2004). Amh da hain zuzen ere Sertoli zelulek testikulura askatzen duten lehenengo faktorea, duktu Mülleriarren atzeraka bultzatzeko ugaztunetan. Duktu Mülleriarrak arrain teleosteoetan egon ez arren, arrainek *amh* gene ortologoa aurkezten dute eta sexu-desberdintzapenaren garaian, *cyp19a1a*-ren erregulatzaile negatiboa da (Rodríguez-Marí et al., 2005). *amh*-k paper garrantzitsua jokatzen du espermatogonien proliferazioan ere (Yoshinaga et al., 2004; Vizziano et al., 2007; Ijiri et al., 2008). Ornodunetan *dmrt1* (ingelesez doublesex and mab-3 related transcription factor 1) ere kantitate altuetan adierazten da testikuluaren desberdintzapena gertatzean (Marchand et al., 2000). Dmrt1 Sertoli zelulatan ekoizten da desberdintzapenaren ostean eta espermatogonien proliferazioan jarduten du ere (Kobayashi et al., 2004). Medakan Y kromosomari loturiko *dmy* geneak, *dmrt1*-ren adierazpena bultzatzen du (Matson & Zarkower, 2013) eta zebra arrainean ere, zeinak sexu-determinazio poligenikoa duen, *dmrt1* adierazpena asko igotzen da

testikulu-desberdintzapenaren hasierako faseetan, baina obarioaren zelula germinaletan baita aurki daiteke. Arrainetan *dmrt1*-k fenotipo arra eragin dezake *adbp/sf1* (adrenal binding protein/steroidogenic factor 1) eta *foxl2* transkripzio faktorea (Fork-head transkription factor 2) inhibituz eta aromatasaren azpi-adierazpena bultzatuz. Horrela esteroideen bidezidorra androgenoen ekoizpenera bideratzen da, tilapian eta zebra espezieetan ikusi izan den bezala (Hofsten & Olsson, 2005; Wang et al., 2010). Horrez gain, *StAR, cyp17a1* eta *cyp11a1* aktiba ditzake, estrogenoen produkzioa isiltzeaz gain androgenoena bultzatuz (Wang et al., 2010).

foxl2 bestetik, feminizaziorako transkripzio faktorea kodetzen duen gene kontserbatua da. Granulosa zelulen desberdintzapenean, ugalketan eta obarioaren garapen eta mantentzean jarduten du, ornodunetan sexu-markatzaile goiztiarra kontsideratzen delarik. Tilapia eta medaka emeetan ikusi den bezala *foxl2*-ren adierazpena zelula germinalak inguratzen dituzten zelula somatikoetan hasten da obario-desberdintzapenarekin batera, eta oogenesi osoan zehar granulosa zeluletan adierazten da (Wang et al., 2004; Nakamoto et al., 2006). *foxl2*-k obarioaren sorreran c*yp19a1a*-ren transkripzioa eraentzen duela ikusi da (Yamaguchi et al., 2007). Izan ere, Foxl2 proteinak *cyp19a1*-aren promotorea lotzeko gaitasuna du bere adierazpena bultzatuz, adibidez japoniako platuxan eta tilapian ikusi den moduan (Yamaguchi et al., 2007; Wang et al., 2007; Ijiri et al., 2008).



6. Irudia: Arrainen sexu-desberdintzapenaren eragile genetikoen bidezidorren proposamen eskematikoa. +/-: aktibazio/inhibizioa adierazten dute. Puntuztaturiko geziek bide hipotetikoak erakusten dituzte. Eskeman HPG-ean (hipotalamo-pituitario-gonada ardatza) estrogenoen ekoizpenaren orekan diharduten geneen aktibazio turrustek obario zein testikuluen desberdintzapena bultzatzen ikus daitezke. *cyp19a1b*, (burmuineko aromatasa), sox6 (SRY (sex determining region Y)-box 6), *foxp4* (forkhead box P4), *foxl2/*Foxl2 (forkhead box L2), *dmrt1* (doublesex and mab-3 related transcription factor 1),; *cyp19a1a* (obarioko aromatasa), *amh* (anti-Müllerian hormone); *sox8* (SRY (sex determining region Y-box 8) (Casas et al., 2016).

Inguruneko hormona exogenoek (ikus 5. atala), barne hormonek bezala, sexu-desberdintzapenean jarduten duten geneen adierazpen normala eralda dezakete. Androgenoekiko esposizioak adibidez obarioaren desberdintzapenean jarduten duten *foxl2*, *fst* (follistatina kodetzen duen genea) eta *cyp19a1a*- azpi-adierazten dituztela ikusi da, maskulinizazioa eragin dezaketelarik (Baron et al., 2008). 17β-estradiolak aldiz

arretan Dmrt1-mailak gutxitu ditzake, besteak beste, emeranzko eraldaketa bultzatuz (Marchand et al., 2000).

3. Oogenesia

Gametoak izaki zelulanitzetan meiosiz sortarazten diren zelula haploideak dira, ugalketa sexualaren bitartez izaki diploide berri bat sortzeko funtzioa dutenak. Gametoen garapenerako ematen den lehenengo urratsa zelula germinal primordialen edo PGC-en (ingelesezko primordial germ-cells) sorrera da. Arrainen PGC-ak enbriogenesian goiz, gastrulazioa gertatu eta gero, sortzen dira (Lubzens et al., 2010). PGC-ak arku genitaleraino migratu behar dute, non zelula somatikoekin elkartu eta gonada kolonizatzen duten. Arrain gonokoristikoen sexu-desberdintzapenean, PGC-ek euren izaera bipotentziala galdu eta meiosi hasierarekin batera gameto eme zein arretan desberdintzen hasten dira. PGC-a oogenesia edo espermatogenesira bideratzeko erabakia, kokatzen deneko mikroinguruneak edo ingurune zelularrak mugatzen du (Yoshizaki et al., 2010, 2012). Gonadaren zelula somatikoek emeen sexu-desberdintzapenean paper garrantzitsua jokatzen dute (Kurokawa et al., 2007; Siegrfried & Nüsslein-Volhard, 2008). Ugaztunetan ez bezala, eme teleosteoek lerro germinaleko zelula mitotiko desberdintsatugabeak (oogoniak) bizitza osoan zehar mantentzen dituzte, mitosirako eta arrautzen desberdintzerako (meiosirako) bidea aktibo mantenduz; ornodun ar guztietan espermatogonioekin gertatzen den bezala (Nakamura et al., 2010; Yoshizaki et al., 2010). Zebra arrainetan, obario heldugabea sortzen den momentuan, lerro germinaleko zelulek bidalitako seinaleak ezinbestekoak dira genetikoki emeak diren banakoetan obarioaren garapena eman dadin. Oozitoek inguruko zelula somatikoetan espezifikoak diren geneen (adib. *foxl2* eta *cyp19a1a*) transkripzio-mailak mantentzen laguntzen dute, testikuluekin erlazionatutako geneen azpi-erregulazioa bultzatuz. Zelula germinalen ekoizpena ekiditen denean, zebra arrainek testikulua eta arren kanpo ezaugarriak garatzen dituzte derrigorrez (Siegfried & Nüsslein-Volhard, 2008). Beraz, zebra arrainetan behintzat, testikuluak ekoiztutako esteroideak nahiko dira maskulinizazioa bultzatzeko (Siegfried & Nüsslein-Volhard, 2008). Bestetik, medakan, non gogoratu XY sexu-determinazio sistema dagoen, zelula germinalik gabeko XX emeek arrerako sexu itzulera pairatzen dute.



7. Irudia. Arrain teleosteoetan ugalketa ziklo bakoitzean gertatzen diren oozitoen garapen faseak meiosi-faseekin erlazionatuta (Lubzens et al., 2010).

Oogenesia (7. Irudia, 1. Taula) gameto emeen garapenari deritzo, zeinaren azken produktua arrautza heldu bideragarria den (Lubzens et al., 2010). Obarioaren unitate-funtzionala folikulua da; oozitoa eta zelula somatikoz osatutako kanpo geruzak. Folikulua barrutik kanpora, oozitoak berak, granulosa zelulek, oinarrizko-lamelak eta teka zelulek osatzen dute (8. Irudia). Oogenesiaren hasieran desberdindu gabeko oogoniak mitosiz biderkatzen dira “oogonia-habia” sortuz eta granulosa zelulekin elkartuz. Era honetan, oogonia bakoitza granulosa zelulez osatutako geruzaz inguratuta geratzen da. Granulosa zelulek, oogoniak obarioaren estromatik bereizteko “oinarrizko lamela” jariatzen dute. Lamela geruzaren periferian teka zelulak lerrokatzen dira, zeinak odol hodiekin harremanetan jartzen dituzten oogoniak. Pubertaroa eta gero lehenengo zikloaren ostean, ingurune eta baldintza fisiologikoek eragindako seinale hormonalak jarraituz oogoniak lehenengo zatiketa meiotikoan sartuko dira, ugal-ziklo bakoitzaren hasieran lehenengo mailako oozitoak sortuz (Selman et al., 1993). Lehenengo mailako oozitoaren hazkundea nukleoan egitura perinukleolarren agerpenetik albeolo kortikalen sorrerara doa. Fase honetan zehar oozitoa lehenengo zatiketa meiotikoaren profasean (diplotenean hain zuzen) geldirik egongo da, eta beranduago beharrezkoak izango diren organulu eta molekulak ekoiztuko ditu. Egitura perinukleolarren agerpena, RNA erribosomikoen (rRNA) ekoizpenaren adierazpen morfologikoa da (Lubzens et al., 2010).



8. Irudia: Oozito eta obario-folikuluko zelula somatikoen arteko harreman espaziala azaltzeko irudi eskematikoa. N: nukleoa edo besikula germinala, OH: odol hodia (Hoar & Nagahama, 1978 eta Tyler & Sumpter, 1996-tik eraldatuta).

Oozitoa handituz doan heinean zitoplasman albeolo kortikalak deritzen proteinaz eta karbohidratoz beteriko besikulak biderkatu eta tamainan handitzen dira. Albeolo hauek oogenesiaren azkenengo faseetan eta zitoplasman gertatuko den bitelo-proteinen pilaketa dela eta oozitoaren periferiarantz mugituko dira. Ernalketaren ostean "erreakzio kortikala" izeneko prozesuan euren barruko osagaiak arrautzaren periferiara askatuko dira korion izeneko kanpo-geruza azelularra sortuz (Selman et al., 1993).

Bitelogenesia, bitelogeninak (VTG) oozitoan sartu eta bitelo proteinak ekoizteko jasan behar dituen aldaketa multzoari deritzo (Le Menn et al., 2007). VTG-ak edozein ornodun eme obiparoetan aurki daitezkeen oozitoen fosfolipoproteinak dira. VTG-ak arrainen gibelean ekoizten dira estradiolak erregulatutako prozesuaren bitartez (Badin et al., 2007). Arrain teleosteo espezie gehienetan VTG ekoizpenerako gutxienez hiru gene desberdin ezagutzen dira (*vtga*, *b* eta *c*). Gibelean sintetizatuak izan eta gero obariora garraiatzen dira odol hodietan zehar. Obarioan teka kapilarretatik igaro eta granulosa zelulen geruza era pasiboan zeharkatzen dute, azkenik hartzaile espezifikoen bidez

(bitelogeninaren hartzaileak) endozitoziz oozitoetan barneratzen dira. Sortutako besikulak lisosomekin bat egiten dute non txikiagoak diren bitelo-proteinatan zatituko diren (Wallace & Selman., 1990). Bitelogenesian zehar oozitoaren tamaina handitzen da eta prozesu honetara bideratuko den oozito-kopurua energia eskuragarritasunaren araberakoa izango da (Luckenbach et al., 2008a). Prozesu honetan VTG-z gain oozitoak ere bere matrize estrazelular berezia (*zona pellucida*) osatzen du, gibelean eta oozitoan bertan ekoizten diren koriogenina edo *zona pellucida* proteinen bitartez. Oozitoak baita bestelako erreserbak pilatuko ditu zitoplasman, hala nola, RNA-molekulak, proteinak, lipidoak, karbohidratoak, bitaminak eta hormonak, ernaldua izateko konpetentzia bereganatuz eta enbrioiaren garapenean zehar beharrezkoak diren osagaiak eskuratuz (Wallace & Selman, 1981, 1990; Brooks et al., 1997; Le Menn et al., 2007). Jatorriz amak ekoiztu dituen faktore hauek sustengatuko dute enbrioia garapen goiztiarrean zehar, zigotoa beraren genomaren transkripzioaren aktibazioa blastula garaian gertatu bitartean (Kane & Kimmel, 1993).

Bitelogenesiaren ostean heltze prozesua dator, non endozitosia eten, meiosia amaitu eta nukleoa edo besikula germinalaren apurketa ematen den. Albeolo kortikalak periferian kokatuta daudelarik, zitoplasmako bitelo egiturak disolbatuko dira orduan. Lehenengo meiosia amaitu ostean tamaina ezberdineko bi zelula lortzen dira, txikia den gorpuzkulu polarra eta handia den bigarren mailako oozitoa edo oozito heldua. Obulazioan II. metafasean dagoen oozitoa heldua folikulutik askatzen da eta bigarren meiosia amaituko du zelula haploidea bilakatuz. Orduan arrautza izena hartuko du. Arrautza pelagikoak ekoizten dituzten teleosteoetan gainera heltze-prozesuan zehar arrautzaren hidratazioa gertatzen da oozitoaren mintzeko ur-kanal edo akuaporinen bitartez (Cerdá et al., 2007). Azkenean arrautza pelagiko heldu baten pisuaren %90-95 eta bolumenaren %65-75 ura izango da (Cerdá et al., 2007). Hartutako urak flotagarritasuna emendatuko du eta enbrioia ingurune hiperosmotikotik babestuko du haren hedapenean eta barreiaduran lagunduz. Arrainetan ernalketa arrautzaren animalia-poloan dagoen mikropiloaren bidez gertatzen da. Espermatozoide bakarrak zeharka dezake mikropiloa. Orduan eta poliespermia ekiditeko, arrautza aktibatu eta mikropiloa ixten da. Ernalketa ostean korionak enbrioia ur ingurunetik babestuko du (Lubzens et al., 2010).

3.1. Oogenesiaren kontrol-hormonala

Oogenesiaren hasieran bi sexu esteroideek kontrolatzen dute oogonien proliferazioa eta meiosiaren hasiera; 17β-estradiolak (E) proliferazioan eragiten du eta 17,20β-dihidroxi 4-pregnen-3-ona-ek (17,20βP) proliferazioaz arduratzeaz gain meiosiaren lehenengo zatiketari hasiera ematen dio. Horrez gain, lehenengo zatiketa meiotikoan dauden oozitoen agerpenarekin LH eta FSH hormonen sintesia emendatzen da (Baron et al., 2005). Lehenengo mailako oozitotik bigarren mailako oozitorako trantsizioa pituitariotik heltzen diren hormonen menpekoa da, E-aren igoeraren aurrean erantzunda (Swanson et al., 1991; Swanson et al., 2003). Albeolo kortikalen sintesia FSH, E eta StAr pituitario eta plasma-mailen igoerarekin (Yamazaki, 1965; Tokarz, 1978; Khoo, 1979) eta aromatasa genearen adierazpenaren igoerarekin (Kwok et al., 2005) lotuta dagoela ikusi da. Gertatzen den lipido pilaketa ere FSHak sortutako erregulazioarekin erlazionaturik dago. Teka zelulek androgenoz hornitzen dituzte granulosa zelulak eta hauek halaber aromatasa adieraziko dute E ekoizteko. E-k gibeleko VTG sintesia eta FSH-k VTG-en folikulurako harrera sustatzen dute (Nagahama, 1994; Young et al., 2005; Tyler et al., 1991). Oozitoaren heltze prozesuan LH eta LH-hartzaileak plasman ugaritzen dira. LH-k E sintetizatzetik heltzearen esteroide eragileak sintetizatzera pasatuko da, 17,20βP adibidez (Nagahama & Yamashita, 2008; Lubzens et al., 2010), zeinek oozitoa obulaziorako prestatuko duten. Orduan ere estrogenoekin erlazionatutako geneen adierazpenak behera egingo du (Bobe et al., 2006). Oozitoaren obulazioa azido arakidonikoa eta bere metabolismoan sortzen diren subproduktuekin, hala nola protaglandinekin, erlazionatzen da eta beraz, ugaztunetan bezala, obulazioa hantura gertaerek bultzaturiko prozesua da, zeinetan hanturaren eragileak eta proteolisi, basodilatazio eta koagulazioarekin erlazionatutako geneak adierazten diren, besteak beste, *prss23* serina proteasa, *adam22* metaloproteasa-desintegrina, *cxxl14,f5* koagulazioa-faktorea, *fgl2* fibroblastoen hazkuntza-faktorea eta *ace2* angiotensina eraldatzailea den entzima (Bobe et al., 2006; Lubzens et al., 2010).

3.2. Oogenesian zehar obarioan ematen diren aldaketa molekularrak

Hainbat dira oogenesian zehar eta fase espezifikoei esleituta adierazten diren geneak eta metatzen diren molekulak (transkriptoak, proteinak, lipidoak, karbohidratoak,

bitaminak eta hormonak). *Pimephales promelas* arrain espezie asinkronikoan adierazpen diferentziala aurkezten duten 460 transkripto bereiztu dira, obarioan daudeneko oozito prebitelogeniko vs. bitelogenikoen proportzioaren arabera banatzen direnak (Villeneuve et al., 2010). Konposatu eta transkripto guzti hauek beraz, obarioan gertatzen diren prozesu ezberdinen eta noski, oozitoen presentziaren eta garapenaren adierazle gisa erabiltzeko kontuan hartu behar dira. Adibidez, zelula germinalekiko espezifikoak diren mRNA-en artean; euren garapen goiztiarreko fase mitotikoan ezinbestekoa diren *vasa* genea *nanos*, *tudor*, *dnd* eta *dazl* aurkitzen dira (Lubzens et al., 2016). Arrain helduen obarioetan oogenesian sartuko diren PGC-etan *Sox9* ere adierazten dela ikusi da (Nakamura et al., 2012). Horietaz gain, diplotene fasean dauden oozitoen inguruan dauden zelula folikularrek, euren markatzaile moduan erabil daitekeen *foxl2* adierazten dute.

Oncorhynchus kisutch izokinaren oozito prebitelogenikoetan *zona pellucida*-ren sorrera, bitelo harrera eta prozesamenduari lotutako proteinen sintesia gertatzen da, hala nola, *zona pellucida*-ren glikoproteinak (*zp*), Vldlr-ak, B-katepsinak, E-ziklinak, Dnaj eta ferritinaren 3 azpi-unitatearen sintesia; zeinen transkriptoen maila altuak agertzen diren oozito prebitelogenikoetan, albeolo kortikalen fasean dauden oozitoekin alderatuta (Luckenbach et al., 2008b). Badira ere meiosiarekin adierazten diren geneak eta beraz oozitoen lehen hazkuntzaren markatzaileak diren geneak, hala nola, *piwil* zeinak meiosi-prozesuan transposonen hedapena ekiditeko ezinbestekoa den (Diaz de Cerio et al., 2012). piRNA-k (Piwi-interaczio RNAk, RNA-bidezko geneen isiltzea burutzen duten zelula germinalekiko RNA espezifiko txikiak, Houwing et al., 2008), *mlh1* (mismatch repair gene MutL homolog1) eta *mps1* (monopolar spindle1, meiosian zehar kromosomen elkarketan eta segregazioaren arduradunak) ere fase honetan adierazten dira (Feitsma et al., 2007; Poss et al., 2004).

Albeolo kortikalen ekoizpenarekin eta bitelogenesiarekin batera, lipido desberdinen, arrautzaren izaeraren arabera, metaketa gertatzen da (Luckenbach et al., 2008b). Vtg-rekin batera barneratzen diren lipido polarrez gain (fosfoglizeridoak batez ere), *de novo* sintetizatuak diren lipido neutroak (batik bat triazilglizerolak) metatzen dira. Zenbait arrautzek, flotagarritasunean laguntzen duten ester esterilak diren lipido neutroak metatzen dituzte gehien bat (Yilmaz et al., 2016). Lipidoen sarrera eta prozesamenduari

loturiko markatzaileei dagokienez, *ldlr* geneak (low density lipoprotein recerptor) transkripzio-maila oso altuak aurkezten ditu prebitelogenesian, zeinak bitelogenesiaren hasierarekin jaitsi egiten den. Berdin gertatzen da gantz-azidoen garraioaz arduratzen diren proteinen transkriptoekin (Lubzens et al., 2016). *vtgr* (bitelogenina-hartzaileak) eta *vldlr* (low density lipoprotein receptor) transkripto mailak aldiz oogenesi hasierarekin igo eta bitelogenesian zehar mantentzen dira (Damsteegt et al., 2015). Bitelogenesian ere *lpl* (lipoprotein lipase) transkripto-mailak igo egiten dira zelula folikularretan (Ibañez et al., 2008).

Lipidoez gain, garatzen ari diren oozitoetan Vtg-rekin edo bestelako lipropoteinekin batera ere barneratzen diren, bitamina disolbagarriak (A, E bitaminak, bestelako retinoideak eta karotenoideak), mineralak (fosfato inorganikoa, kaltzioa, burdina, magnesioa eta bestelakoak), hormonak (hormona tiroideoa eta kortisola adibidez) eta bestelako erregulaziorako konposatuak metatzen dira (Lubzens et al., 2016). Aurretik esan bezala, Vtg-ak endozitosi bidez kantitate oso altuetan barneratzen dira oozitoan, non katepsina entzimak dituzteneko gorputz-multibesikularretan metatuko diren. Katepsinek Vtg-ak bitelo proteinetan prozesatuko dituzte. *lrp13* (Ldl hartzaileekin erlazionaturiko 13-proteina) transkripto-maila oogenesiaren hasieran aurkitzen diren bitartean, Lrp13 eta Vtgr proteinak bitelogenesian ekoiztu eta mintz zelularrera garraiatzen dira, oozitoaren heldutasuna bukatzeko (Lubzens et al., 2016). Hidratazioan, katepsinek bitelo proteinak amino-azido askeetan apurtzen dituzte, sortutako presio osmotikoarekin ura oozitoan sartzera behartuz. Gainera, ioi inorganikoen kantitatea eta amonio kantitateak ere igo egiten dira zitoplasman, presioan lagunduz. Uraren sarrera aurretik aipatutako akuaporinen bidez gauzatzen da; zehazki, Aqp1ab-ren (aquaporin 1ab) bidez. Akuaporina hau hazkuntza primarioan adierazten da eta bitelogenesia eta oozitoaren heltzearekin batera trankripzio-maila jaitsi egiten da; itzulpen osteko erregulazioa iradokiz (Zapater et al., 2011). LH-ren seinaleztapenarekin erlazionatutako transkriptoak, bitelogenesian gutxi adieraziak, obulazioan gain-adierazi egiten dira. Hauekin batera, aktibinak, inhibinak, *gdf9* (growth differentiation factor 9), *bmf7* (bone morphogenetic protein 7), neuregulin1, retinoikoaren X-hartzailea eta nerbio hazkuntza-faktoreen familia oozitoaren heltze prozesuan garrantzitsuak ere badirela frogatu izan da (Martyniuk et al., 2013).

3.3. Arrainen gonadaren garapen-bideak eta ugal-estrategiak

Ugal-ziklo bakoitzean obario eta oozitoen garapen-estrategia desberdinak aurki daitezke arrain espezie desberdinetan, folikuluen heltze-garaiaren edo oozitoen errekrutatze mekanismoen arabera sailkatzen direnak. Oozitoen errekrutatzea errute ostean eten egiten bada, orduan emankortasun zehaztua edo sinkronikoa duen espeziea kontsideratzen da; halakoak dira mugilidoak, klupeiformeak eta pleuronektidoak (Murua et al., 2003). Bestetik, oozitoen errekrutatzeak errun ostean jarraitzen badu, zehaztugabeko emankortasuna duten espeziez ari gara (asinkronikoak); hala nola, antxoak, legatzak eta txitxarroak. Lehenengo kasuan, oozito guztiak garapen fase berdinean edo gehienez bi fase desberdinetan aurkituko dira obario beraren baitan eta guztiz heltzean denak aldi berean askatuko dira. Kasu honetan, ugaltze ziklo bakoitzean errute eta ernaltze momentu zehatz mugatu eta bakarra dago. Bigarrengoan aldiz, garapen-fase ezberdinetan dauden oozitoak aurki daitezke obarioan zeinak ugal-ziklo bakoitzean zehar multzoka heldu eta errungo diren (Wallace & Selman, 1981; Murua et al., 2003). Espezie hauetan erruteak, eta beraz ernalketak, aste edota hilabetetan zehar luza daitezke.

Horrez gain, espezie batzuk burutzen dituzten migrazioak alde batera utzita, ugalketa-estrategiak anitzak dira arrainetan. Horrela, badaude bizitzan behin bakarrik ugaltzen diren espezieak, zeinei semelparo deritzen. Hauek normalean hil aurretik erruten dute eta ondorioz hil egiten dira. Gehienak aldiz iteroparoak dira, hau da, bizitzan zehar behin baino gehiagotan ugaltzen dira. Azkenengo hauek halaber, errute-maiztasunaren arabera sailkatzen dira eta isokronalak (urtean behin erruten dutenean), heterokronalak (ugalketa garaian maiztasun zehatzarekin behin baino gehiagotan erruten dutenean) eta zehaztugabeak (ugalketa garaian behin baino gehiagotan gameto taldeak askatu eta berriz ere berriak ekoitz ditzaketenean) izan daitezke (Miller & Nummela, 2009; Wootton & Smith, 2014).

1. Taula: Oogenesian zehar ematen diren gertaera nagusiak. n: kromosoma-kopurua, c: kromatida-kopurua.

Zelula germinalaren garapen fasea	Dotazio-kromosomikoa	Zatiketa-zelularra	Folikulua	Eraenketa
Oogonia	2n (2c)	Mitosia (oogonien proliferazioa)	1. folikulua	FSH, 17,20βP, E (folikuluen proliferazioa)
Perinukleolarra-Albeolo kortikala	2n (4c)	I. Meiosia (I. Profasea)		17,20βP (I. Meiosiaren hasiera)
Bitelogenikoa	n (2c)	I. Meiosia		FSH, E, StAr*, cyp19a1a* (Albeolo kortikalen agerpena)
Heldua		I. Meiosiaren amaiera, II. Meiosiaren hasiera (II. Metafasea)	2. folikulua	LH (*cyp19a1a*-ren azpi-adierazpena eta heltzea)
Arrautza (pelagikoak: hidratatua)	n (c)	II. Meiosiaren amaiera	Obulazioa	Akuaporinak* (hidratazioa), 17,20βP, azido arakidonikoa, prostaglandinak, proteasak* (heltzearen amaiera eta folikuluaren apurketa)

(*) Eraenketaren arduradun ez-hormonalak.

4. Erribogenesi-prozesua oozitoaren garapenean zehar

Zelula-hazkuntza eta ugaritzearen arteko uztarketa ezinbestekoa da organismo baten tamaina eta ehunen homeostasia mantentzeko. Zelula-hazkuntzaren ratioa proteinen sintesi-ratioaren eta beraz proteinak ekoizten dituzten erribosoma-kantitatearen araberakoa da (Donati et al., 2013). Erribosomen funtzioa proteinen ekoizpenean zehar lotura peptidikoen sorrerarako beharrezkoa den jarduera katalitikoa eskaintzeaz gain, mRNA-k (RNA mezulariak), tRNA-k (RNA garraiatzaileak) eta itzulpen-faktoreen uztarketarako ingurune fisiko egokia ziurtatzea ere bada (Szymański et al., 2003). Tamaina ezberdineko bi azpi-unitatez osatuta daude: azpi-unitate txikia edo eukariotoetan 40S jaulkipen koefizientea duen azpi-unitatea, 18S RNA molekula erribosomiko (rRNA) bakarraz eta 30 proteina erribosomiko (Rp) inguruz osatuta

dagoena. 60S azpi-unitatea handia aldiz, hiru rRNA-ek (28S, 5.8S eta 5S jaulkipen koefizientedunak) eta 49 Rp-ek osatzen dute (Lyman-Gingerich et al., 2007; Donati et al., 2013). Azpi-unitate txikia mRNA molekulen kodonak ezagutzeaz arduratzen den bitartean, azpi-unitate handiak lotura peptidikoa osatzearen funtzio katalitikoa betetzen du (Szymański et al., 2003). 5S rRNA izan ezik, bestelako rRNAk transkripto primario edo 45S pre-rRNA moduan sintetizatzen dira nukleoloan, rDNA gene bakar batetik abiatuta, zeinaren kopia ugari dauden animalien genomatan (Drygin et al., 2010). 45S pre-rRNA-ren sintesia I RNA Polimerasak (Pol I) bideratzen du Ubtf1 (Ingelesezko upstream binding transcription factor 1) deritzon transkripzio faktorearen kontrolpean. Ubtf1-ak rDNA promotore gunean tolestura bat sortzeko gaitasuna du, kromatinaren kondentsazioa ekidinez eta rDNA geneak aktibo mantenduz 45S pre-RNA-ren transkripzioa eman dadin (Bazzett-Jones et al., 1994; Reeder et al., 1995). Pre-rRNA honek prozesamendu eta moztitzazketa sekuentzialak pairatuko ditu nukleoloaren baitan rRNA helduak lortu ahal izateko. Heltze-prozesu honetan ere Rp-ak rRNA-ari batzen joango zaizkio 40S azpi-unitateko aitzindaria den 90S konplexu erribonukeoproteikoak (90S RNP) sortuz (Zhang et al., 2007; Henras et al., 2015).

Orokorrean goi-mailako eukariotoetan rRNA molekulen ekoizpenerako bi rDNA multigene-familia daude, 45S rDNA eta 5S rDNA. Gene hauek tandemetan banatzen dira eta bakoitzak ehundaka zein milaka kopia aurkezten dituzte genoman (Martins & Galetti, 2001). Anfibio eta teleosteoetan oogenesiaren hasieran 45S rDNA geneak anplifikatu egiten dira (Gall 1968; Brown & David, 1968; Vincent et al., 1969; Mazabraud et al., 1975), *Xenopus* oozitoetan 2*10^6 kopia izatera hel daitezkeelarik (Roger et al., 2002). Hala ere, anplifikatutako gene hauek inaktibo (Thomas 1970; Ford 1971; Mairy & Denis, 1971; Mazabraud et al., 1975) edo aktibitatea oso ahularekin mantentzen dira prebitelogenesian zehar, aktibitate maximoa bitelogenesian goiz aurkezten dutelarik (Roger et al., 2002).

5S rDNA-ren kasuan, sekuentzia kodetzailearen kopiak 120 bp-takoak dira eta 40 kDa-etako masa molekularra dute. Hauek transkribatzen ez direneko tarteko sekuentziez (NTS, ingelesezko non-trascribed sequence) banatzen dira (9. irudia). Eboluzioan gene hauek oso ondo kontserbatu diren bitartean NTS-ak azkar eboluzionatu dute, azterketa filogenetikoetan oso lagungarriak izanik espezie eta populazioen markatzaile gisa

(Gornung et al., 2007; Campo et al., 2009). 5S rRNA-k erribosomen gune funtzionalen arteko elkarrekintzen koordinazio eta eraentze prozesuetan paper garrantzitsua jokatzen duela ikusi den arren (Dokudovskaya et al., 1996; Bogdanov et al., 1995; Szymański et al., 2003), bere funtzio zehatzari dagokionez hutsune asko daude oraindik ere.



9. Irudia: Goi-mailako eukariotoen 5S rRNA geneen antolaketa. NTS (ingelesezko non-transcribed DNA segment) transkribatzen ez deneko DNA zatia (Martins & Galleti, 2001).

Anfibio eta arrainetan zelula somatikoetan eta oozitoetan era ezberdinean erregulatuta dauden bi 5S rDNA deskribatu dira (Komiya et al., 1986; Martins & Galleti, 2001). *Xenopus* igelaren genoman 5S rDNA somatikoak 400 kopia ditu genoma haploideko eta oozitoetako 5S rDNA-k 20.000 kopia (Peterson et al., 1980). Bi geneen arteko ezberdintasun nabariena barne-kontrol gunean (ICR, ingelesezko internal control region) kokatzen diren 5 bp-tan aurkitzen da, horien artean hiru transkripzioaren eragileen lotura gunean daudelarik (Song et al., 2005). 5S rDNA somatikoa zelula guztietan, oozitoak barne, eta garapen osoan zehar transkribatzen den bitartean (Wormington & Brown, 1983), oozitoetako 5S rDNA oozitoetan soilik da aktibo (Allison et al., 1995). Oozitoetan ekoizten den 5S rRNA somatikoa (oozitoetako 5S rRNA-rekin alderatuta oso maila baxuan agertzen dena) epe laburrean erabiliko den bitartean, oozitoetako 5S rRNA hilabeteetan metatu eta enbriogenesiaren lehenengo faseetan proteinen sintesian jardungo duten erribosomak ekoizteko erabiltzen dela proposatu da (Allison et al., 1995).

Bestelako rRNA-k ez bezala, 5S rRNA nukleolotik kanpo nukleoan transkribatzen da RNA Polimerasa III-ri (Pol III) esker (10. Irudia). Polimerasa honen jarduera eraentzeko IIIA transkripzio-faktore orokorra (Gtf3a) beharrezkoa da (Szymański et al., 2003). Gtf3a

bederatzi zink-besodun proteina bat da eta 5S rDNA-ren barne-kontrol guneari lotzen zaio. Horrez gain, 5S rRNA bera lotzeko gaitasuna ere badu, transkriptoaren garraio nukleo-zitoplasmatikoan eta geroko zitoplasmako metaketan lagunduz (Allison et al., 1995; Layat et al., 2013). Gtf3a-ren hatzamarrek taldeka jarduten dute, N-muturrean dauden hiru hatzamarrak DNA-rekin elkarrekiteko ezinbestekoak diren bitartean (Hanas et al., 1989; Liao et al., 1992), erdigunekoek 5S rDNA zein rRNA lotzeko gaitasuna aurkezten dute (Ogilvie & Hanas, 1997). *Xenopus* igelean *gtf3a* genearen promotorearen erabilera diferentzialaz bi transkripto ezberdin ekoizten dira zeinak halaber, proteinaren bi isoforma ezberdin ematen dituzten. 38 kDa-eko masa molekularrarekin proteinarik txikiena oozitoetan bakarrik azaltzen da eta Gtf3a oozitikoa deritzo. Bestea 40 kDa-eko pisu molekularrarekin, zelula somatiko guztietan eta baita zelula germinal mota bietan azaltzen da eta Gtf3a somatikoa deritzo (Layat et al., 2013). Oozito prebitelogenikoetan 38 kDa-ko Gtf3a kantitate altuan topatzen den bitartean, bitelogenikoetan bere kontzentrazioa jaisten da. 40 kDa-ko Gtf3a-ren kontzentrazioa bere aldetik, oogenesiak aurrera egin ahala gora egiten du. Proposatu izan da 40 kDa-etako Gtf3a-k 5S rRNA gene somatikoaren transkripzioa aktibatu eta 5S rRNA gene obarikoaren transkripzioa inhibi dezakeela enbriogenesian eta zelula somatikoetan (Blanco et al., 1989; Ghose et al., 2004; Malik et al., 2004). Arrainetan soilik *Ictalurus punctatus* siluriformean karakterizatu da Gtf3a, zeinetan 5S rRNA-rekin elkartuta agertzen den obarioetan (Ogilvie & Hanas, 1997). 38 kDa-eko Gtf3a proteinaren aminoazido-sekuentzia soilik %40-an *Xenopus*-aren oozitoko Gtf3a-ren berdina den arren, igelaren 5S rDNA lotzeko gai da. Gainera, siluroaren Gtf3a-n, anfibioetan oozitoetako Gtf3a proteinan soilik agertzen den sekuentzia kontserbatua aurki daiteke, hau da hasierako metioninarekin batera doan GER/K sekuentzia (Ogilvie & Hanas, 1997). Aldiz, 5S rDNA loturarako beharrezkoa den bederatzigarren zink besoaren aldameneko KRSLAS sekuentzia ez da siluroaren Gtf3a proteinan agertzen (Ogilvie & Hanas, 1997).

5S rRNA-ren transkripziorako hala ere, Gtf3a-z gain beste bi transkripzio faktore orokor, Gtf3b eta Gtf3c, behar dira (Wolffe, 1994). Prozesuan, Gtf3c-k Gtf3a-5S rDNA konplexua ezagutzen du. Orduan, Gtf3c-ek, Gtf3b errekrutatzen du eta azken faktore hau izango da hain zuzen ere Pol III-k ezagutuko duen proteina (Bieker et al., 1985; Setzer & Brown, 1985; Kassavetis et al., 1990). Eukariotoetan 5S rRNA-ren sintesia Gtf3a-k rDNA-ren

barne-kontrol gunearekin sortzen duen loturaren menpekoa da (Szymański et al., 2003) eta RNA tartekarien bitartez *gtf3a* isilaraztean 5S rRNA-ren sorrera eta erribosomen 60S azpi-unitatearen ekoizpena eten egiten dira (Donati et al., 2013).

Behin 5S rRNA sintetizatzen delarik, Gtf3a-k 5S rRNA lotu eta nukleotik zitosplasmara garraiatzen du. Bien elkarketak sortutako partikula 45 kDa-eko pisu molukarra gainditzen duenez, mintz-nuklearraren zeharkaketa garraio aktiboaren bidez burutzen da karioferinak deritzen proteinak erabiliz (Gen et al., 2008). Karioferinen taldean nukleotik molekula handien irteeran espezializatuak dauden proteinak edo exportinak, eta molekulen sarrerarako espezializatutakoak edo inportinak aurki ditzakegu (Gen et al., 2008). Behin zitoplasman, zelula somatikoetan 5S rRNA zuzenean L5 proteina erribosomikoari (RpL5) lotzen zaio, 5S RNP partikulak osatuz. 5S RNP partikulak orduan nukleora sartzen dira pre-erribosometan elkartzeko (10. Irudia, Zhang et al., 2007).

Xenopus igelaren oogenesiaren hasierako faseetan proteinen sintesia oso baxua dela ikusi da (Roger et al., 2002). Pol III-ren jarduera aldiz maximoa da oozito prebitelogenikoetan, 5S rRNA-ren sintesia bultzatuz. Igeletan bezala *Chelon labrosus* korrokoien obarioan 5S rRNA-ren mailak oso altuak direla frogatu da (Diaz de Cerio et al., 2012). Gauza bera ikusi da, tenka (*Tinca tinca*) arrain teleosteoaren eta katuarrain (*Scyliorhinus caniculus*) arrain kondriktioaren oozito prebitelogenikoetan (Denis & Wegnez, 1977; Wegnez et al., 1978). Baita errutilo kontinentalaren (*Rutilus rutilus*) obarioetan ere, non oozitoen hazkuntzaren hasieran eta albeolo kortikalen faserarte RNA molekula txikien kantitate oso altuak dauden. Oogenesiaren fase goiztiar hauetan oozitoen zitoplasman metatzen diren transkripto gehienek tRNA-k eta 5S rRNA dira. Ondoren, bitelogenesiaren hasierako faseetan kantitate baxuetan dauden 18S eta 28S rRNA-ren proportzioa igo egiten da (Kroupova et al., 2011).

Beraz, anuroen eta arrainen oogenesian 5S rRNA erribosomen bestelako konposatuak baino lehenago sintetizatzen da eta zitoplasman denbora luzez gorde egiten da. Horretarako, 5S rRNA, nukleotik irten eta gero, Gtf3a-ri loturik mantentzen da oozito prebitelogenikoen zitoplasman 7S partikula erribonukleoproteikoa (7S RNP) eran (10. Irudia). Zitoplasman, Gtf3a-k 5S rRNA hidrolisitik babestu egiten du (Szymański et al., 2003). 7S RNP-az gain anfibio zein arrainen oozitoetan 5S rRNA 42S RNP partikulak

eratuz ere metatzen da, tRNA, 42Sp50 eta 42Sp43 proteinekin batera. 42Sp43, Gtf3a-k bezala bederatzi beso ditu 5S rRNA lotzeko baina kasu honetan proteinak ez du rDNA lotzeko gaitasunik eta beraz ez du 5S rRNA-ren transkripzioan parte hartzen (Szymański et al., 2003). *Xenopus* igelaren oozitoetan dagoen 5S rRNA-ren erdia gutxi-gora-behera 42S RNP gisa topa daiteke, beste erdia 7S RNP gisa mantenduko delarik (Picard & Wegnez; 1979; Picard et al., 1980; Guddat et al., 1990; Viel et al., 1991; Szymański et al., 2003; Zhang et al., 2007). Gtf3a proteina eta mRNA-mailak anfibio zelula somatikoetan oso baxuak diren bitartean (Layat et al., 2013) oozitoetan *gtf3a* mRNA-mailak 1 milioi aldiz altuagoak dira (Penberthy et al., 2003; Ciganda & Williams, 2011), 5S rRNA-rekin mantendu behar duten erlazio estekiometrikoa dela eta. Modu berean, medakan bai *42sp50* zein *42sp43* geneen transkripzioak obario-espezifikoak direla ikusi da (Kanamori, 2000; Kinoshita et al., 2009). *42sp43*-ren transkripto-mailak altuak dira anfibio eta arrain teleosteoen oozitoetan, batez ere prebitelogenesian (Allison et al., 1995; Penberthy et al., 2003; Szymański et al., 2003; Layat et al., 2013) eta bai *gtf3a* zein *42sp43-maila*k obarioetan 5S rRNA-ren mailak islatzen dituzte (Penberthy et al., 2003; Diaz de Cerio et al., 2012).

Bitelogenesiaren hasierarekin eta bestelako rRNA-en ekoizpena maximoa denean, 5S rRNA zitoplasmako metaketa RNP partikula hauetatik askatzen da eta RpL5-ri lotuta 5S RNP gisa nukleora bideratuko da (10. Irudia), nukleoloan erribosomen azpi-unitate handiaren muntaian parte hartzeko (Zhang et al., 2007). 5S RNP-ren sorreraren ondorioz Gtf3a askatu eta nukleora bueltatuko da, inportinen bidez mintz-nuklearra zeharkatuz, 5S rRNA gehiagoren sintesia bultzatzeko (Szymański et al., 2003). Bitelogenesian zehar sintetizatzen den 5S rRNA berria zuzenean RpL5-ri lotu eta nukleora bideratzen dela ikusi da (Allison et al., 1995). RpL5-ak beraz Gtf3a-ren eskuragarritasunean ere dihardu (Layat et al., 2013). Ernalketa ostean enbrioi berriaren sorrerarekin batera oogenesian aktibo dagoen oozitoetako 5S rDNA isilarazten da. Orduan H1 histona transkribatzen hasten da (Wolffe, 1994; Panetta et al., 1998; Crane-Robinson, 1999). H1-ek oozitoko 5S rDNA-Gtf3a lotura ekiditen duen nukleosoma eratzen du, anuroetan behintzat. H1-ek ere 5S rDNA somatikoa lotzen duen arren, kasu honetan sortzen diren nukleosomak ez dituzte 5S rDNA-ren Gtf3a loturarako ezinbestekoak diren elementuak ukitzen eta promotorea

Gtf3a-rekin lotzeko eskuragarri mantentzen da (Bouvet et al., 1994; Panetta et al., 1999; Sera & Wolffe, 1998).



10. Irudia: Erribogenesi prosezua oozitoetan (Szymański et al., 2003-tik eraldatua).

5. Inguruneko hormona kutsatzaileak eta intersex egoera arrainetan

Ingurune urtarretan bizi diren organismoek gisa-jatorria duten hainbat konposatuen nahaste konplexuen eraginpean egoteko arriskua daukate (Boehm et al., 2011; DellaSala et al., 2013). Ingurune itsastarrean topa daitezkeen kutsatzaileen artean disruptore endokrinoak diren gai kimikoak edo EDC-ak (ingelesezko endrocrine disrupting chemicals) arreta handia bereganatu dute, Europako Ingurumen Agentziak lehenengoz aipatu eta ur-medioan duten ubikuotasuna iragarri zituenetik (EEA, 1997; Teijón et al., 2010; Murray et al., 2010; Cabeza et al., 2012; Gavrilescu et al., 2015).

Definizioz, EDC-ak organismo baten sistema hormonalaren funtzionamendu normala eraldatzeko gaitasuna duten kutsatzaile kimikoak dira (EEA, 2012). Konposatu hauek

antolaketa-maila biologiko ezberdinetan eragin dezakete, maila molekularretik hasita, banako mailatik jarraituz eta (azpi)populazio mailan ere eragin dezaketelarik (Brander, 2013; WHO/UNEP, 2013). EDC terminoak jatorri eta konposizio kimiko ezberdinak dituzten substantziak barneratzen ditu. Horien artean hormona naturalak eta sintetikoak, garbigarri industrialak, nekazaritzan erabiltzen diren pestizidak, fungizidak, alkilfenolak, substantzia poliklorinatuak, hidrokarburo aromatiko poliziklikoak, ftalato plastifikatzaileak, dioxinak, agente surfaktanteak, bromatutako gar atzekariak, perfluorokimikoak, musketa kimikoak, botikak, kosmetikoak, konposatu industrialak eta bestelako konposatuen apurketaz sortzen diren subproduktuak daude (Tyler et al., 1998; López de alda & Barceló, 2001; Porte et al., 2006; Casals-Casas & Devergne, 2011; Khetan, 2014).

EDC-ak ingurune urtarrera batez ere industriaren, nekazaritza eta abeltzaintza intentsiboaren isurketen ondorioz heltzen dira, askotan ospitale eta udal-hondakinen prozesamenduaz arduratzen diren ur-araztegien isurketetan agertzen direlarik ere (Campbell et al., 2006; Leet et al., 2011). Nahiz eta konposatu guzti hauek kontzentrazio baxuetan aurkitu ur-medioan, isurketa ezberdinetan mota askotako EDC-ak askatzen dira, isuritako substantziak nahaste kimiko konplexuetan agertzen direlarik. Honek eragin gehigarriak edo sinergikoak sortaraz ditzake biotarengan (Thorpe et al., 2003). Araztegietan EDC-ak ez dira guztiz ezabatzen beraien natura eta jatorri heterogenoa dela eta, eta askotan ur-mediora forma aktiboan askatzen dira. Modu honetan 90. hamarkadaz geroztik, araztegiek dituzten isurtze-puntu zehatzen inguruan dauden arrain-populazioengan eragin biologiko desberdinak ikusi izan dira, hauetatik eragin estrogeniko eta feminizatzaileak deigarrienak izanik (Sumpter & Jobling, 1995; Jobling et al., 1998; Puy-Azurmendi et al., 2013; Bahamonde et al., 2015; Valencia et al., 2016).

EDC-en artean konposatu estrogenikoak aurki daitezke. Estrogeno naturalen artean animalietatik datozen estrogenoak, onddoetatik datozen mikoestrogenoak eta landare jatorria duten fitoestrogenoak daude (WHO/UNEP 2012). Estrogeno sintetikoei aldiz xenoestrogeno deritzaie eta animalia ornodunen emeetan ugalketarako garrantzitsuena den hormona, estrogenoa, edo bere eragina, imitatzeko gai diren konposatuak dira. Batzuk, zuzenean estrogeno-hartzaileak lotzeko eta estrogenoen menpeko geneak aktibatzeko gai dira (WHO/UNEP, 2012). Beste batzuk, barne estrogenoen sintesia,

metaketa, askapena, garraioa, eragina edota metabolismoan eragin dezakete (Goksøyr et al., 2003; Mills & Chichester, 2005; WHO/UNEP, 2012).

Arrainetan, eta aurretik aipatu dugunez, sexu-determinazioa eta -desberdintzapena oso fenomeno malguak dira, faktore genetiko eta ingurune-faktoreen menpe daudenak (Devlin & Nagahama, 2002; Martínez et al., 2014). Janari-eskuragarritasuna, oxigeno-maila eta tenperaturaz aparte ur-medioan dauden kutsatzaileek ere, xenoestrogenoak kasu, arrainen sexu-determinazio eta -desberdintzapenean eragin dezakete esposizioa garapenaren garai kritikoetan ematen denean batez ere (Piferrer et al., 2001; Leet et al., 2011; Segner et al., 2013). Xenoestrogenoak, euren izaera lipofilikoari esker erraz biometatzen diren konposatu iraunkorrak dira (Langston et al., 2005; Porte et al., 2006) eta ugalketan eta banakoen/populazioen garapenean eragiten dute (Tyler et al., 1998; Goksøyr et al., 2003; Mills et al., 2005; Aris et al., 2014).

Intersex egoera, espezie gonokoristikoen testikuluetan oozitoak agertzeari deritzo eta nahiz eta hein txiki batean fenomeno naturala izan daitekeen, xenoestrogenoen eraginpean dauden organismoetan ezagutzen den alteraziorik deigarrienetarikoa da (Bahamonde et al., 2013; Bizarro et al., 2014). Intersex egoera larritasun-maila ezberdinetan gerta daiteke, kasu larrienetan sexu-eraldaketa osoa, feminizazio totala, gerta daitekeelarik (Devlin & Nagahama, 2002; Abdel-Moneim et al., 2015). Honekin batera, xenoestrogenoen eraginpean dauden arrainetan gibeleko *vtg* mRNA-maila eta plasmako VTG proteina-maila altuak topatu dira ar eta heldugabeetan, feminizazio molekular nabaria iradokiz (Bizarro et al., 2014). Intersex banakoek halaber, esperma-bolumena eta espermatozoide-kantitate baxuagoak ekoizten dituzte, euren ugaltzeko gaitasuna txikituz, honek, populazioen ugaltze-arrakasta eta bideragarritasuna arriskuan jar dezakeelarik (Jobling et al., 2002; Jobling & Tyler, 2006; Kidd et al., 2007; Harris et al., 2011).

Abdel-Moneim eta kideek (2015) 54 arrain espezieetan intersex egoera deskribatzen zuten 97 lan aurkeztu zituzten. Horietatik gehienak arrain-espezie teleosteoetan deskribatutakoak izan ziren. Aztertutako lan gehienak 1999-tik aurrera publikatuak ziren eta intersex egoeraren baitan beraiek, testikuluen barneko oozitoak (oozitoak dituzten testikuluak), obotestiak (testikulua ehuna duten obarioak, normalean androgeno edo

androgeno funtzioa duten substantzien eraginpean agertzen direnak) eta nahasturiko gonada (testikulua eta obario ehunak banatuta agertzen direnean) bereizten zituzten, lehenengoa egoera hedatuena izanik (11.irudia).



11. Irudia: Abdel-Moneim eta kideek (2015) arrainetan berrikusitako gonadaren garapenean gerta daitezkeen desorekak. Irudian intersex egoerarekin erlazionatutako "testicular oocytes" edo testikuluan oozitoen agerpena, ugariena da.

Intersex banakoak kutsatutako ur geza zein itsas ur guneetan bizi diren arrain espezietan aurkitu dira. Itsas arrainetan eragin xenoestrogenikoen presentzia aztertzen zuen lehenengo lanetariko bat 1990. urtean publikatu zen. Bertan, Erresuma Batuetako itsasadar industrializatuetan bizi zireneko platuxa latza (*Platichthys flesus*) arrek plasmako VTG-maila altuak eta intersex egoera aurkeztu zituzten (Matthiessen et al., 2002). Feminizatutako arrain hauek xenoestrogenoak isurtzen zituzten araztegien ondoko uretan bizi ziren. Geroztik, asko dira leku ezberdinetako itsasadar eta kostaldeko arrainetan xenoestrogenoen eraginak deskribatu dituzten lanak. Hala nola, Herbehereetan (Vethaak et al., 2002 eta 2005), Estatu Batuetan (Mills et al., 2003; Roy

et al., 2003) edota Japonian (Hashimoto et al., 2000; Ohkubo et al., 2003). Horietaz gain itsaso zabaleko arrainetan ere feminizazio efektuak ikusi dira, besteak beste, Mediterraneo Itsasoko eta Hegoafrikako ezpata-arrainean (*Xiphias gladius*) (De Metrio et al., 2003; Desantis et al., 2005), hegalaburrean (*Thunnus thynnus*), lanpo bularpikartan (*Euthynnus alletteratus*), Mediterraneo Itsasoko lohitako barbarinean (*Mullus barbatus*) (Fossi et al., 2002; Martin-Skilton et al., 2006; Macias et al., 2014) eta Ipar-ekialdeko Ozeano Atlantikoko bakailaoan (*Gadus morhua*) (Scott et al., 2006). Adibide guzti hauek xenoestrogenoen mundu mailako banaketa iradokitzen dute (intersex adibide gehiago ikusteko jo Bahamonde et al., 2013, 1.taulara eta Abdel-Monein et al., 2015, S1. taulara).

Euskal Herrian antzemandako lehenengo efektu xenoestrogenikoak Gernikako araztegiaren inguruneko *Chelon labrosus* korrokoi-populazioan deskribatu ziren. Bertan intersex arrak aurkitu dira 2007. urtez geroztik (Puy-Azurmendi et al., 2013; Valencia et al., 2016). Intersex egoeraz gain arrek *vtg*-maila altuak eta behazunean alkilfenol kontzentrazio altuak ere badituztela ikusi da (Puy-Azurmendi et al., 2013). Euskal kostaldean bestelako guneetan ere eragin xenoestrogenikoa duten kutsatzaileen presentzia aurkitu izan da ur-analisien bitartez (Bizarro et al., 2014), hala nola, Pasaian, Deban, Ondarroan eta Santurtzin. Kutsatzaile hauen eraginpean intersex egoera garatu duten korrokoi arrak aurkitu dira. Intersex prebalentziak, Euskal kostaldean aztertutako leku eta sasoi bakoitzean arrantzatutako ar guztien gainean kalkulatuak, %20-tik %50-ra bitartekoak izan dira eta intersex guztiek testikuluan barreiaturiko oozito prebitelogenikoak aurkeztu dituzte (12. Irudia). Oso kasu bakanetan ikusi izan dira oozito bitelogenikoak korrokoien testikuluetan. Kutsatutako gune horietan intersex egoera garatu ez duten arren artean ere *vtg* eta *cyp19a1b* geneen transkripzio-maila altuak, baina oso aldakorrak, ikusi dira (Bizarro et al., 2014).



12. Irudia. Euskal kostaldean harrapatutako korrokoi intersexak. Orokorrean folikulu espermatikoan barreiatuak agertzen diren oozitoak egoera prebitelogenikoan ageri dira (→) (a eta b). Oso arraroa da euskal kostaldeko korrokoi intersexetan c irudian agertzen den bezalako oozito bitelogenikoak (►) ikustea. Eskala-barrak dira (a) 50 µm, (b) 100 µm eta (c) 200 µm.

Intersex egoera beraz, konposatu xenoestrogenikoen eraginaren biomarkatzaile moduan erabiltzen da. Biomarkatzaileak epe luzera osasunean eman daitezkeen eraginen epe goiztiarreko adierazleak dira (Cajaraville et al., 2000). Tresna baliagarriak dira kutsatzaile

batek organismo batean izan ditzakeen eragin biologikoak ebaluatzeko, ingurumeneko kalitate-azterketak egitea posible bihurtzen delarik (Cajaraville et al., 200; Bizarro et al., 2014). Horrela, organismo bat kutsatzaile baten eraginpean egon ote den eta horren aurrean erantzuten ari denaren inguruko informazioa ematen dute. Biomarkatzaileekin aztertzen diren erantzun biologikoak molekula-, zelula- zein ehun-mailakoak izan daitezke, antolaketa-maila biologiko altuagoetan (fisiologia, organismo, populazio mailan) gerta daitezkeen eragin posibleei buruzko abisu goiztiarrak ematen dituztelarik.

Intersex egoeraren eta gonadaren morfologiaren azterketa histologikoarekin batera, hormonekiko esposizioaren ondorioen bestelako adierazleak ere erabil daitezke, hala nola, ezaugarri sexualen eraldaketa, indize gonadosomatikoa (GSI) eta plasma zein gibeleko bitelogenina mailen aldaketa (Seki et al., 2006). GSI arrainen ugalketaren osasun-egoeraren adierazle erabilienetariko bat da. GSI garapen sexuala, ugal-estrategia, ugalketa-fasea eta osasun orokorraren egoeraren isla da, gonadaren garapenaren eta mantentzearen egoera adierazten baititu (Barrett & Munkittrick, 2010). Orokorrean, ez da desberdintasunik ikusten GSI-mailari dagokionez, xenoestrogenoen eraginpean dauden arrain ar normal eta intersex banakoen artean. Biek testikuluaren tamaina maila berean murriztua dute esposizioaren ondorioz. Honek iradokitzen du gonadaren garapenean ematen diren aldaketak kutsatzailearen presentziari dagozkiola eta ez intersex egoera berari eta beraz, ezin da intersex egoera identifikatzeko biomarkatzaile moduan erabili (Bahamonde et al., 2013), bai ordea xenoestrogenoen presentziaren adierazle gisa.

Barne E mailen desorekak EDC esposizioaren isla izan daiteke (Bahamonde et al., 2013), E-mailak baitira, besteak beste bitelogenesi-prozesua kontrolatzen dutenak (Anderson et al., 1996). *vtg*-mailak arrain emeetan arretan baino askoz altuagoak dira, horrexegatik *vtg*-ren adierazpena arretan, EDC-ek eragin ditzaketen ugalketa mailako desorekak aztertzeko egokia da (Jobling et al., 1998; Routledge et al., 1998; Rotchell & Ostrander, 2003; Maltret-Geraudie et al., 2008), ingurumen-kalitatearen azterketarako programatan neurtu ohi delarik xenoestrogenoen eraginaren biomarkatzaile gisa (An et al., 2011; Puy-Azurmendi et al., 2013; Bizarro et al., 2014). Vtg eta *vtg*-maila altuak arretan eta intersexetan, kutsatzaile xenoestrogenikoen presentziarekin erlazionatuta dauden arren, orain arte ez da adierazpen-maila eta intersex egoeraren arteko

korrelaziorik ikusi (Hiramatsu et al., 2006; Bahamonde et al., 2013; Bizarro et al., 2014). Horiekin batera, koriogeninak, ere arrainen gibelean estrogenoei erantzunda sintetizatzen diren arrautza estalkiaren (korionaren) aitzindariak, ere EDC-en eraginaren ondorioz arren gibelean gain-adierazten direla ikusi da arrain ar eta intersexetan (Rhee et al., 2009; Yamaguchi et al., 2015) biomarkatzaile moduan plazaraziz. Bai Vtg-maila altuak zein koriogeninen adierazpena emeetan bitelogenesi fasean ematen dira eta ez prebitelogenesian, zeina arrain espezie gehienetan oogenesiaren faserik luzeena baita. Honek, markatzaile hauen neurketaren erabilgarritasuna mugatzen du, ugal-zikloan zehar momentu zehatzetan, hormonen barne dinamikari lotuta, adierazten baitira. Beraz, eta arrain-espezie desberdinetan intersex egoera aztertu dituzten hainbat lan berrikusi eta gero, argi dago gaur egun ez dagoela intersex egoeraren biomarkatzaile molekular egoki eta goiztiarrik biomarkatzaile hauek garatzea ezinbestekoa delarik (Bahamonde et al., 2013).

Hori dela eta, azken urteotan markatzaile tradizionaletatik haratago doazen geneak aztertu dira (2. Taula). Aztertutako gene hauek, sexu-determinazio, -desberdintzapen eta gametogenesian parte hartzen dute eta hori dela eta sexu-bereizketaren eta -eraldaketaren, naturala zein eragindakoa (hermafroditismoa/intersex), adierazle molekular gisa proposatu dira. Sekuentziazio paralelo masiboaren teknikek bestalde, transkripzio-mailetan ematen den dikotomia sexuala sakonki ikertu ahal izatea baimendu dute, gonadak edota gibela ez diren bestelako organoetan ere. Azterketa hauek burutzeko espezie hermafrodito proterandrikoak erabilgarriak izan daiteke, zeinak emerako sexu aldaketan intersex egoeran dagoen testikulua erakusten duten. Casas eta kideek (2016) pailazo arrain proterandrikoan egindako RNA-sekuentziazioan (RNA-seq) ar, eme eta sexu eraldaketa pairatzen ari diren banakoen burmuin zein gonadatan ezberdin adierazten diren geneak aztertu zituzten. Horien artean burmuinean adierazten diren sexuaren araberako hainbat gene berri identifikatu zituzten, hala nola, sexu eraldaketarekin batera isilarazten diren geneak; aurretik aipatutako *sox6* eta *foxp4*, *tenm2* (teneurin-2) eta *hdgfrp2* (hepatoma-derived growth-factor-related protein 2). Azken hau ere *Eretmodus cyanostictus* espeziean arren burmuinean gain-adierazita dago emeekin alderatuta (Bohne et al., 2014). Pailazo arrainean arretik emerako sexu-eraldaketarekin gain-adierazten diren geneei dagokienez, *adamts16* (metalloproteinase

with thrombospondin motifs 16), *phactr4a* (phosphatase and actin regulator 4A) eta *f13a* (coagulation factor XIII A chain-like) identifikatu zituzten. Azken hau ere guppy arrain emeen burmuinean gain-adierazten dela ikusi da (Gao et al., 2007). GnRH, Avt (arginine-vasotocin) eta Kiss *Amphiprion* espezieen hipotalamoan arretik emerako aldaketan gain-adierazi egiten direla ikusi da ere (Yaeger et al., 2014; Kim et al., 2014). Guzti hauek ere xenoestrogenizitatearen, eta agian intersex egoeraren, markatzaileak izan daitezke burmuinean.

Gonaden kasuan sexuen artean era desberdinean adierazten diren geneei dagokienez (2. taula), pailazo arrainetan esteroidogenesiarekin erlazionatutako geneak; *cyp19a1a*, *foxl2, star* eta *hsd17b* emeetan gain-adierazita agertzen diren bitartean, espermatogenesiarekin erlazionatutakoak (*sox8*, *dmrt1* eta *amh*) arretan gain-adierazita agertzen dira (Casas et al., 2016). Sexu-aldaketarekin transkripzio-patroia erabat aldatzen da. Modu honetan, asko dira gene hauen adierazpenaren aldaketa ikertu dituzten lanak. Izan ere, *sox9*, *amh*, *dmrt1 eta foxl2*-ren adierazpenean barne hormona-mailen menpe egoteaz gain, kanpo hormonen eraginpean ere aurkitzen direla ikusi da. Estrogenoetara esposatutako arrain arretan, obarioaren garapenarekin erlazionatutako geneen gain-adierazpena, eta hodi seminiferoen sorrera eta espermatogenesiarekin erlazionaturikoen azpi-adierazpena ikusi da. Horien artean, estrogenoen aurrean *foxl2* ostadar amuarrainean eta tilapian arretan gain-adierazten dela ikusi da (Baron et al., 2004; Guigen et al., 2010). Gainera, etinil-estradiolaren esposaketaren ondorioz *amh eta dmrt1* geneen transkripzio-mailak jaisten direla ikusi da zebra arrainetan (Schulz et al., 2007). Berdina ikusi da estrogenoekin trataturiko XY medaka arretan (Kobayashi et al., 2008), tilapian (Guiguen et al., 2010) eta ostadar amuarrainean (Marchanc et al., 2000). Aldiz, arrainak androgenoekin edo aromatasa inhibitzaileekin tratatzean, *foxl2, cyp19a1a* eta *fst* geneen azpi-adierazpena ikusi da ostadar amuarrainean (Vizziano et al., 2007). *Epirephelus mera*, tilapian eta medaka emeetan, androgeno eta aromatasa inhibitzaileen tratamenduek *dmrt1* adierazpena kitzikatu eta *foxl2* eta *cyp19a1a*-ena moteltzen dituzte (Alam et al., 2008; Kobayashi et al., 2008; Guigen et al., 2010). Baron eta kideek (2008) adibidez, ostadar amuarrainak androgenoetara esposatu ostean sexu-desberdintzapenarekin erlazionaturiko 103 geneen adierazpen aztertu zituzten. Horien artean, granulosa zeluletan adierazten diren geneak (*cyp19a1a, foxl2, fst*), I.-

meiosiarekin erlazionatutako geneak eta prebitelogenesiarekin erlazionatutakoak azpi-adierazita zeudela ikusi zuten, eta aldiz *dmrt1, sox9 eta dax1* (dosage-sensitive sex reversal, adrenal hypoplasia critical region, on chromosome X, gene 1) gain-adierazita (Baron et al., 2008). Tenperaturaren aldaketek ere, maskulinizazioarekin batik bat, baina baita feminizazioarekin erlazionaturiko geneen adierazpenean aldaketak eragiten dituela ikusi izan da (Shen & Wang, 2014).

Aipatutako guzti horietaz aparte, korrokoien gonadetan gainera oozitoen presentzia adieraz dezaketen zenbait markatzaile molekular berri aztertu dira ere, oozito-markatzaile posible gisa intersex egoeraren markatzaile espezifikoak izan daitezkeelakoan. Markatzaile hauek 5S rRNA eta bere proteina laguntzaileak kodetzen dituzten geneak dira, hala nola, *gtf3a*, *42sp43* eta *inportina α1* eta *α2* (Diaz de Cerio et al., 2012). Erribogenesiari loturiko gene guzti hauen transkripzio-mailek, beti ere neurketa berean arrak vs. emeak alderatuta, Pasaiako portuan (zeinak jatorri industriala duten kutsatzaileak aurkezten dituen) urte osoan zehar lagindutako korrokoi ar eta emeen artean bereiztea ahalbidetzeaz gain, intersex banakoen testikuluak bereiztea ere ahalbidetzen dute, beraietan ematen den adierazpen altua dela eta (Diaz de Cerio et al., 2012).

2.Taula: Arrain espezi ezberdinetan sexu-desberdintzapenaren markatzaileak izan daitezkeen geneen laburpen-taula.

PGC	**Sertoli zelulak**	**Leydig zelulak**	**Teka edota granulosa zelulak**	**Espermatogonio, esperma...**	**Oozitoak**
vasa, piwil1 (♂), piwil2, nanos1 (♀), nanos2, dnd, wt1a, dazl, buc (♀), cxcr4b, sdf-1α receptor, vg1-rbp(♀) , foxh1 (♀)	*amh, sox9a, dmrt1, ar, ff1d*	*cyp11b, hsd3b2, cyp17a, star, nr5a1*	*cyp19a1a, foxl2a, foxl2b, fst, fshb, bmp4, figα, lhr, fshr, star, P450scc, 3β-hsd, cyp17, 20β-hsd*	*gsdf, protamines, sycp3l*	*sox9b, zp1, zp2, zp3, vgr, 5S rRNA, tfIIIa, 42sp43, 42sp50, impα1, impα2, zar1, mos, gdf9, bmp15, btg3, lcal, lrham, alv, mPR*
Testikuluak			**Obarioa**		
ccng2, hsp70, sept4, tuba7, spermatogenesis associated 4, testis-specific A-kinase anchoring protein, tektin 1, igf1, nr0b1			*tpte, rbpms2, cx44.2, sox11b, ccnb2, activin β, tbp, sox3, fem1c*		

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Abdel-Moneim, A., Coulter, DP., Mahapatraa, CT., Sepúlveda, MS. (2015). Intersex in fishes and amphibians: population implications, prevalence, mechanisms and molecular biomarkers. *Appl. Toxicol*. 35: 1228–1240.

Alam, MA., Kobayashi, Y., Horiguchi, R., Hirai, T., Nakamura, M. (2008). Molecular cloning and quantitative expression of sexually dimorphic markers Dmrt1 and Foxl2 during female-to-male sex change in *Epinephelus merra*. *Gen. Comp. Endocrinol.* 157: 75–85.

Allison, LA., North, MT., Neville, LA. (1995). Differential binding of oocyte-type and somatic-type 5S rRNA to TFIIIA and ribosomal protein L5 in *Xenopus* oocytes: specialization for storage versus mobilization. *Dev. Biol.* 168: 284–295.

An, L., Hu, J., Yang, M., Zheng, B., Wei, A., Shang, J., Zhao, X. (2011). CYP1A mRNA expression in redeye mullets (*Liza haematocheila*) from Bohai Bay, China. *Mar. Pollut. Bull.* 62: 718–725.

Anderson, MJ., Miller, MR., Hinton, DE. (1996). In vitro modulation of 17-b-estradiolinduced vitellogenin synthesis: effects of cytochrome P4501A1 inducing compounds on rainbow trout (*Oncorhynchus mykiss*) liver cells. *Aquatic Toxicology.* 34: 327-350.

Ankley, GT., Johnson, RD. (2004). Small fish models for identifying and assessing the effects of endocrine-disrupting chemicals. *ILAR J.* 45: 469-483.

Aris, AZ., Shamsuddin, AS., Praveena, SM. (2014). Occurrence of 17α-ethynylestradiol (EE2) in the environment and effect on exposed biota: a review. *Environ. Int*. 69: 104–119.

Bachtrog, D., Mank, JE., Peichel, CL., Kirkpatrick, M., Otto, SP., Ashman, TL., Hahn, MW., Kitano, J., Mayrose, I., Ming, R., Perrin, N., Ross, L., Valenzuela, N., Vamosi, JC. (2014). Sex Determination: why so many ways of doing it?. *PLoS Biol.* 12(7): e1001899.

Babin, PJ., Cerdá, J., Lubzens, E. (2007). In: *The Fish Oocyte: From Basic Studies to Biotechnological Applications*, pp. 323-347. Eds. Babin PJ, Cerdá, J., Lubzens, E. The Netherlands: Springer.

Bahamonde, PA., Munkittrick, KR., Martyniuk, CJ. (2013) Intersex in teleost fish: Are we distinguishing endocrine disruption from natural phenomena? *Gen*. *Comp*. *Endocrinol*. 192: 25–35.

Bahamonde, PA., McMaster, ME., Sevos, MR., Martyniuk, CJ., Munkittrick, KR. (2015). Molecular pathways associated with the intersex condition in rainbow darter (*Etheostoma caeruleum*) following exposures to municipal wastewater in the Grand River basin, ON, Canada. Part B. *Aquat. Toxicol.* 159: 302-316.

Bar, I., Cummins, S., Elizur, A. (2016). Transcriptome analysis reveals differentially expressed genes associated with germ cell and gonad development in the Southern bluefin tuna (*Thunnus maccoyii*). *BMC Genomics*. 17: 217.

Baroiller, JF., Guiguen, Y., Fostier, A. (1999). Endocrine and environmental aspects of sex differentiation in fish. *Cell. Mol. Life Sci.* 55: 910-931.

Baron, D., Cocquet, J., Xia, X., Fellous, M., Guiguen, Y., Veitia, RA. (2004). An evolutionary and functional analysis of FoxL2 in rainbow trout gonad differentiation. *J. Mol. Endocrinol.* 33(3): 705-715.

Baron, D., Houlgatte, R., Fostier, A., Guiguen, Y. (2005). Large-scale temporal gene expression profiling during gonadal differentiation and early gametogenesis in rainbow trout. *Biol. Reprod.* 73(5): 959–966.

Baron, D., Houlgatte, R., Fostier, A., Guiguen, Y. (2008). Expression profiling of candidate genes during ovary-to-testis trans-differentiation in rainbow trout masculinized by androgens. *Gen. Comp. Endocrinol.* 156(2): 369-378.

Barrett**,** TJ**.,** Munkittrick, KR. (2010). Seasonal reproductive patterns and recommended sampling times for sentinel fish species used in environmental effects monitoring programs in Canada. *Environ. Rev.* 18: 115-135.

Bazett-Jones, DP., Leblanc, B., Herfort, M., Moss, T. (1994). Short-range DNA looping by the *Xenopus* HMG-box transcription factor, xUBF. *Science*. 264: 1134-1137.

Bieker, JJ., Martin, PL., Roeder, RG. (1985) Formation of a rate-limiting intermediate in 5S RNA gene transcription. *Cell*. 40: 119–127.

Bizarro, C., Ros, O., Vallejo, A., Prieto, A., Etxebarria, N., Cajaraville, MP., Ortiz-Zarragoitia, M. (2014). Intersex condition and molecular markers of endocrine disruption in relation with burdens of emerging pollutants in thicklip grey mullets (*Chelon labrosus*) from Basque estuaries (South-East Bay of Biscay). *Mar*. *Environ*. 96: 19–28.

Blanco, J., Millstein, L., Razik, MA., Dilworth, S., Cote, C., Gottesfeld, J. (1989). Two TFIIIA activities regulate expression of the *Xenopus*5S RNA gene families. *Genes. Dev.* 3(10): 1602-1612.

Blázquez, M., Piferrer, F. (2004). Cloning, sequence analysis, tissue distribution, and sex-specific expression of the neural form of P450 aromatase in juvenile sea bass (*Dicentrarchus labrax*). *Mol. Cell. Endocrinol.* 219(1-2): 83-94.

Bobe, J., Montfort, J., Nguyen, T., Fostier, A. (2006). Identification of new participants in the rainbow trout (*Oncorhynchus mykiss*) oocyte maturation and ovulation processes using cDNA microarrays. *Reprod. Biol. Endocrinol.* 4: 39.

Boehm, AB., Bischel, HN. (2011). Oceans and Human Health. In: *Encyclopedia of Environmental Health,* Vol. 4, pp. 223–230. Eds. Nriagu, J. Burlington, MA, USA: Elsevier B.V.

Bohne, A., Sengstag, T., Salzburger, W. (2014). Comparative Transcriptomics in East African Cichlids Reveals Sex- and Species-Specific Expression and New Candidates for Sex Differentiation in Fishes. *Genome Biol. Evol.* 6: 2567–2585.

Bogdanov, AA., Dontsova, OA., Dokudovskaya, SS., Lavrik, IN. (1995). Structure and function of 5S rRNA in the ribosome. *Biochem. Cell. Biol*. 73: 869-876.

Bouvet, P., Dimitrov, S., Wolffe, AP. (1994) Specific regulation of *Xenopus* chromosomal 5S rRNA gene transcription in vivo by histone H1. *Genes. Dev.* 8: 1147–1159.

Brander, SM. (2013). Thinking outside the box: assessing the endocrine disruption in aquatic Life. In: *Monitoring Water Quality: Pollution assessment, analysis and remediation,* pp. 103-107. Eds. Ajuha, S. Amsterdam: Elsevier.

Brooks, S., Tyler, CR., Sumpter, JP. (1997). Egg quality in fish: what makes a good egg? *Rev. Fish Biol. Fish.* 7: 387–416.

Brown, DD., Dawid, IB. (1968). Specific gene amplification in oocytes. *Science.* 160: 272-280.

Cabeza, Y., Candela, L., Ronen, D., Teijon, G. (2012). Monitoring the occurrence of emerging contaminants in treated wastewater and groundwater between 2008 and 2010. The Baix Llobregat (Barcelona, Spain). *J. Hazard. Mat.* 239-240: 32–39.

Cajaraville, MP., Bebianno, MJ., Blasco, J., Porte, C., Sarasquete, C., Viarengo, A. (2000). The use of biomarkers to assess the impact of pollution in coastal environments of the Iberian Peninsula: a practical approach. *Sci. Total. Environ.* 247: 295-311.

Campbell, CG., Borglin, SE., Green, FB., Grayson, A., Wozei, E., Stringfellow, WT. (2006). Biologically directed environmental monitoring, fate, and transport of estrogenic endocrine disrupting compounds in water: a review. *Chemosphere*. 65: 1256–1280.

Campo, D., Machado-Schiaffino, G., Horreo, JL., Garcia-Vazquez, E. (2009). Molecular organization and evolution of 5S rDNA in the genus *Merluccius* and their phylogenetic implications. *J Mol Evol.* 68: 208-216.

Casals-Casas, C., Desvergne, B. (2011). Endocrine disruptors: from endocrine to metabolic disruption. *Annu. Rev. Physiol.* 73: 135–162.

Casas, L., Saborido-Rey F., Ryu T., Michell, C., Ravasi, T., Irigoien, X. (2016). Sex Change in Clownfish: Molecular Insights from Transcriptome Analysis. *Sci. Rep.* 6: 35461.

Cerdà, J., Fabra, M., Raldúa, D. (2007). Physiological and molecular basis of fish oocyte hydration. In: *The Fish Oocyte: From Basic Studies to Biotechnological Applications*, pp. 349-396. Eds. Babin, P.J., Cerdà, J., Lubzens, E. The Netherlands: Springer.

Chang, X., Kobayashi, T., Senthilkumaran, B., Kobayashi-Kajura, H., Sudhakumari, CC., Nagahama, Y. (2005). Two types of aromatase with different encoding genes, tissue distribution and developmental expression in Nile tilapia (*Oreochromis niloticus*). *Gen. Comp*. *Endocrinol.* 141(2): 101–115.

Chen, SX., Bogerd, J., Schoonen, NE., Martijn, J., De Waal, PP., Schulz, RW. (2013). A progestin (17α,20β-dihydroxy-4-pregnen-3-one) stimulates early stages of spermatogenesis in zebrafish. *Gen. Comp. Endocrinol.* 185: 1-9.

Chiang, EF., Yan, YL., Guiguen, Y., Postlethwait, J., Chung, Bc. (2001). Two Cyp19 (P450 aromatase) genes on duplicated zebrafish chromosomes are expressed in ovary or brain. *Mol. Biol. Evol.* 18(4): 542-550.

Ciganda, M., Williams, N. (2011). Eukaryotic 5S rRNA biogenesis. *Wiley Interdiscip. Rev. RNA*. 2(4): 523–533.

Conover, DO., Kynard, BE. (1981). Environmental sex determination: interaction of temperature and genotype in a fish. *Science*. 213(4507): 577–579.

Crane-Robinson, C. (1999) How do linker histones mediate differential gene expression? *Bioessays.* 21: 367–371.

Damsteegt, EL., Falahatimarvast, A., McCormick, SP., Lokman, PM. (2015). Triacylglyceride physiology in the short-finned eel, *Anguilla australis* - changes throughout early oogenesis. *Am. J. Phys. Regul. Integr. Comp. Phys.* 308: R935–R944.

Davidson, EH. (1986). In: *Gene activity in early development.* New York, USA: Academic Press Inc.

D'Cotta, H., Fostier, A., Guiguen, Y., Govoroun, M., Baroiller, JF. (2001). Aromatase plays a key role during normal and temperature-induced sex differentiation of tilapia *Oreochromis niloticus*. *Mol. Reprod. Dev*. 59(3): 265–276.

DellaSala, DA. (2013). Oceans and Global Change: One Blue Planet. In: *Ref*. *Module Earth Syst*. *Environ*. *Sci*. Burlington, MA, USA: Elsevier B.V.

De Metrio, G., Corriero, A., Desantis, S., Zubani, D., Cirillo, F., Deflorio, M., Bridges, CR., Eicker, J., de la Serna, JM., Megalofonou, P., Kime, DE. (2003). Evidence of a high percentage of intersex in the Mediterranean swordfish (*Xiphias gladius* L.). *Mar*. *Pollut*. *Bull*. 46: 358–361.

Denis, H., Wegnez, M. (1977). Biochemical research on oogenesis. Oocytes and liver cells of the teleost fish *Tinca tinca* contain different kinds of 5S RNA. *Dev. Biol*. 59: 228-236.

Devlin, RH., Nagahama, Y. (2002). Sex determination and sex differentiation in fish? An overview of genetic, physiological, and environmental influences. *Aquaculture* 208: 191–364.

Desantis, S., Corriero, A., Cirillo, F., Deflorio, M., Brill, R., Griffiths, M., Lopata, AL., de la Serna, JM., Bridges, CR., Kime, DE., De Metrio, G. (2005). Immunohistochemical localization of CYP1A, vitellogenin and Zona radiata proteins in the liver of swordfish (*Xiphias gladius* L.) taken from the Mediterranean Sea, South Atlantic, South Western Indian and Central North Pacific Oceans. *Aquat*. *Toxicol*. 71: 1–12.

Diaz de Cerio, O., Rojo-Bartolomé, I., Bizarro, C., Ortiz-Zarragoitia, M., Cancio, I. (2012). 5S rRNA and accompanying proteins in gonads: Powerful markers to identify sex and reproductive endocrine disruption in fish. *Environ*. *Sci*. *Technol*. 46: 7763–7771.

Diotel, N., Vaillant, C., Gabbero, C., Mironov, S., Fostier, A., Gueguen, M.M., Anglade, I., Kah, O., Pellegrini, E. (2013). Effects of estradiol in adult neurogenesis and brain repair in zebrafish. *Horm. Behav*. 63(2): 193-207.

Dokudovskaya, S., Dontsova, O., Shpanchenko, O., Bogdanov, A., Brimacombe, R. (1996). Loop IV of 5S ribosomal RNA has contacts both to domain II and to domain V of the 23S RNA. *RNA*. 2: 146-152.

Donati, G., Peddigari, S., Mercer, CA., Thomas, G. (2013). 5S ribosomal RNA is an essential component of a nascent ribosomal precursor complex that regulates the Hdm2-p53 checkpoint. *Cell Rep*. 4: 87-98.

Drygin, D., Rice, WG., Grummt, I. (2010). The RNA polymerase I transcription machinery: An emerging target for the treatment of cancer. *Annu. Rev. Pharmacol. Toxicol.* 50: 131-156.

Dufour, S., Sebert, ME., Weltzien, FA., Rousseau, K., Pasqualini, C. (2010). Neuroendocrine control by dopamine of teleost reproduction. *J. Fish BIol.* 76(1): 129-160.

EEA (European Environmental Agency) (1997) In: *Environmental Agreements: Environmental Effectiveness*; Environmental Issue Report No. 3., Vol. 1–2. Copenhagen, Denmark: European Environmental Agency.

EEA (European Environmental Agency) (2012) In: *The impacts of endocrine disrupters on wildlife, people and their environments*. The Weybridge+15 (1996–2011) report. Copenhagen, Denmark: European Environmental Agency.

Feitsma, H., Leal, MC., Moens, PB., Cuppen, E., Schulz, RW. (2007). *Mlh1* deficiency in zebrafish results in male sterility and aneuploid as well as triploid progeny in females. *Genetics*. 175: 1561–1569.

Ford, PJ. (1971). Non-coordinated accumulation and synthesis of 5S ribonucleic acid by ovaries of *Xenopus laevis. Nature.* 233: 561-564.

Fossi, MC., Casini, S., Marsili, L., Neri, G., Mori, G., Ancora, S., Moscatelli, A., Ausili, A., Notarbartolo-di-Sciara, G. (2002). Biomarkers for endocrine disruptors in three species of Mediterranean large pelagic fish. *Mar*. *Environ*. *Res*. 54: 667–671.

Gall., JG. (1968). Differential synthesis of the genes for ribosomal RNA durign amphibian oogenesis. *Proc. Nat. Acad. Sci. USA.* 53: 288-293.

Gao, S., De Geyter, C., Kossowska, K., Zhang, H. (2017). FSH stimulates the expression of the ADAMTS-16 protease in mature human ovarian follicles. *Mol. Hum. Reprod.* 13**:** 465–471.

Gavrilescu, M., Demnerová, K., Aamand, J., Agathos, S., Fava, F. (2015). Emerging pollutants in the environment: present and future challenges in biomonitoring, ecological risks and bioremediation. *New Biotechnol.* 32(1): 147–156.

Gen, K., Yamaguchi, S., Okuzawa, K., Kagawa, H., Alam, MS. (2008). Novel expression of importin alpha homologue in marine teleost, *Pagrus major*. *Comp. Biochem. Pyshiol. B Biochem. Mol. Biol.* 151(4): 420-427.

Godwin, J. (2009). Social determination of sex in reef fishes. *Semin. Cell. Dev. Biol.* 20(3): 264–270.

Goksøyr, A., Arukwe, A., Larsson, J., Cajaraville, MP., Hauser, L., Nilsen, BM., Lowe, D., Matthiessen, P. (2003). Molecular/cellular processes and the impact on reproduction. In: *Effects of Pollution on Fish*; Chapter 5, pp. 179–220. Eds. Lawrence, AJ., Hemingway, KL. Oxford, UK: Blackwell Science.

Gogurappilly, R., Ogawa, S., Parhar, IS. (2013). Functional Significance of GnRH and Kisspeptin, and Their Cognate Receptors in Teleost Reproduction. *Front. Endocrinol. (Lausanne).* 4: 24.

Gornung, E., Colangelo, P., Annesi, F. (2007). 5S ribosomal RNA genes in six species of Mediterranean grey mullets: genomic organization and phylogenetic inference. *Genome.* 50: 787-795.

Guddat, U., Bakken, AH., Pieler, T. (1990). Protein-mediated nuclear export of RNA: 5S rRNA containing small RNPs in *Xenopus* oocytes. *Cell.* 60(4): 619-628.

Guiguen, Y., Baroiller, JF., Ricordel, MJ., Iseki, K., McMeel, OM., Martin, SAM., Fostier, A. (1999). Involvement of estrogens in the process of sex differentiation in two fish species: The rainbow trout (*Oncorhynchus mykiss*) and a tilapia (*Oreochromis niloticus*). *Mol. Reprod. Dev.* 54(2): 154-162.

Guiguen, Y., Fostier, A., Piferrer, F., Chang, CF. (2010). Ovarian aromatase and estrogens: a pivotal role for gonadal sex differentiation and sex change in fish. *Gen. Comp. Endocrinol.* 165: 352–366.

Hachfi, L., Couvray, S., Simide, R., Tarnowska, K., Pierre, S., Gaillard, S., Richard, S., Coupé, S., Grillasca, JP., Prévot-D'Alvise, N. (2012). Impact of Endocrine Disrupting Chemicals [EDCs] on Hypothalamic-Pituitary-Gonad-Liver [HPGL] Axis in Fish. *World Journal of Fish and Marine Sciences*. 4(1): 14-30.

Hanas, JS., Littell, RM., Gaskins, CJ., Zebrowski, R. (1989). Internal deletion mutants of transcription factor IIIA. *Nucleic Acids Res.* 17: 9861–9870.

Hannon, PR., Flaws, JA. (2015). The effects of phthalates on the ovary. *Front. Endocrinol. (Lausanne)*. 6: 8.

Harris, CA., Hamilton, PB., Runnalls, TJ., Vinciotti, V., Henshaw, A., Hodgson, D., Coe, TS., Jobling, S., Tyler, CR., Sumpter, JP. (2011). The consequences of feminization in breeding groups of wild fish. *Environ. Health Perspect.* 119: 306-311.

Hashimoto, S., Bessho, H., Hara, A., Nakamura, M., Iguchi, T., Fujita, K. (2000). Elevated serum vitellogenin levels and gonadal abnormalities in wild male flounder (*Pleuronectes yokohamae*) from Tokyo Bay, Japan. *Mar*. *Environ*. *Res*. 49: 37–53.

Henras, AK., Plisson-Chastang, C., O'Donohue, MF., Chakraborty, A., Gleizes, PE. (2015). An overview of pre-ribosomal RNA processing in eukaryotes. *WIREs RNA*. 6: 225-242.

Hiramatsu, N., Matsubara, T., Fujita, T., Sullivan, CV., Hara, A. (2006). Multiple piscine vitellogenins: Biomarkers of fish exposure to estrogenic endocrine disruptors in aquatic environments. *Mar*. *Biol*. 149: 35–47.

Hoar, WS., Nagahama, Y. (1978). The cellular sources of sex steroids in teleost gonads. *Ann. Biol. Anim. Biochim. Biophys.* 18(4): 893-898.

Hofsten, J., Olsson, PE. (2005). Zebrafish sex determination and differentiation: Involvement of FTZ-F1 genes. *Reprod. Biol. Endocrinol.* 10(3): 63.

Houwing, S., Berezikov, E., Ketting, RF. (2008). Zili is required for germ cell differentiation and meiosis in zebrafish. *EMBO J.* 27: 2702–2711.

Ibáñez, AJ., Peinado-Onsurbe, J., Sánchez, E., Cerdá-Reverter, JM., Prat, F. (2008). Lipoprotein lipase (LPL) is highly expressed and active in the ovary of European sea bass (*Dicentrarchus labrax L.*), during gonadal development. *Comp. Biochem. Physiol. A.* 150: 347–354.

Ijiri, S., Kaneko, H., Kobayashi, T., Wang, DS., Sakai, F., Paul-Prasanth, B., Nakamura, M., Nagahama, Y. (2008). Sexual dimorphic expression of genes in gonads during early differentiation of a teleost fish, the Nile tilapia *Oreochromis niloticus*. *Biol. Reprod.* 78(2): 333-341.

Jobling, S., Nolan, M., Tyler, CR., Brighty, G., Sumpter, JP. (1998): Widespread sexual disruption in wild fish. *Environ. Sci. Technol*. 32: 2498-2506.

Jobling, S., Coey, S., Whitmore, JG., Kime, DE., Van Look, KJ., McAllister, BG., Beresford, N., Henshaw, AC., Brighty, G., Tyler, CR., Sumpter, JP. (2002b). Wild intersex roach (*Rutilus rutilus*) have reduced fertility. *Biol. Reprod*. 67(2): 515-524.

Jobling, S., Tyler, R. (2006). Introduction: the ecological relevance of chemically induced endocrine disruption in wildlife. *Environ. Health Perspect*. 114: 7–8.

Kah, O., Dufour, S. (2011). Conserved and divergent features of reproductive neuroendocrinology in teleost fish. In: *Hormones and Reproduction of Vertebrates,* Vol. 1. San Diego, CA, USA: Elsevier, Inc.

Kallman, KD. (1965). Genetics and geography of sex determination in the poeciliid fish, *Xiphophorus maculatus*. *Zoologica*. 50: 151-190.

Kanamori, A. (2000). Systematic identification of genes expressed during early oogenesis in medaka. *Mol. Reprod. Dev.* 55: 31-36.

Kane, DA., Kimmel, CB. (1993). The zebrafish midblastula transition. *Development* . 119: 447-456.

Kassavetis, GA., Braun, BR., Nguyen, LH., Geiduschek, EP. (1990). *S. cerevisiae* TFIIIB is the transcription initiation factor proper of RNA polymerase III, while TFIIIA and TFIIIC are assembly factors. *Cell*. 60: 235–245.

Khetan, SK. (2014). In: *Endocrine Disruptors in the Environment*, pp. 408. Hoboken, NY, USA: John Wiley & Sons.

Khoo, KH. (1979). The histochemistry and endocrine control of vitellogenesis in goldfish ovaries. *Can. J. Zool.* 57: 617–626.

Kidd, KA., Blanchfield, PJ., Mills, KH., Palace, VP., Evans, RE., Lazorchak, JM., Flick, RW. (2007). Collapse of a fish population after exposure to a synthetic estrogen. *Proc. Natl. Acad. Sci. USA.* 104: 8897–8901.

Kikuchi, K., Hamaguchi, S. (2013). Novel sex-determining genes in fish and sex chromosome evolution. *Dev. Dyn.* 242: 339-353.

Kim, NN., Shin, HS., Choi, YJ., Choi, CY. (2014). Kisspeptin regulates the hypothalamus–pituitary–gonad axis gene expression during sexual maturation in the cinnamon clownfish, *Amphiprion melanopus*. *Comp. Biochem. Physiol. Part B Biochem. Mol. Biol*. 168: 19–32.

Kinoshita, M., Okamoto, G., Hirata, T., Shinomiya, A., Kobayashi, T., Kubo, Y., Hori, H., Kanamori, A. (2009). Transgenic medaka enables easy oocytes detection in live fish. *Mol. Reprod. Dev.* 76: 202-207.

Barne erreferentzia-geneen bidezko zuzenketa-metodoak badu abantaila bat, prozedura esperimentalean zehar eginiko akatsak kontuan hartzen baititu. Urteetan zehar hauxe izan da zuzenketa-metodorik erabiliena eta MIQE araudiak gomendatzen duena. Hala ere, metodo honek ere baditu bere mugak. Alde batetik, erabilitako barne erreferentzia-geneak kontu handiarekin aukeratu behar dira. Edozein erreferentzia-genek hiru baldintza nagusi bete behar ditu: zelula ezberdinetan eta baldintza esperimental ezberdinetan modu konstantean transkribatu behar du eta transkripzio-mailek itu-genearenaren antzekoak izan behar dute (Zhu et al., 2008). Beraz, ez dago erreferentzia-gene unibertsalik eta esperimentu, espezie, zein organo/zelula berri bakoitzarekin balioztatze saioak egin behar dira (Gutierrez et al., 2008; Hugget et al., 2005). Izan ere, MIQE araudiak ez du onartzen balioztatu gabeko generik erabiltzea eta horrez gain, erreferentzia-gene bat baino gehiago erabiltzearen aldekoa da, gene bakarraren erabilpena zenbait kasu zehatzetan soilik onartuz (Bustin et al., 2009). Horrek guztiak, esperimentuaren kostua ikaragarri emendatzen du (Libus & Štorchová, 2006). Ondorioz, bibliografian erreferentzia-geneak erabiltzen dituzten ikerketa lan asko aurki daitezke (Rhinn et al., 2008).

Esate baterako, arrainetan buruturiko qPCR azterketen artean %50-ak zitoeskeletoko osagaia den β-aktina (*actb*) erabiltzen du erreferentzia-gene bakar moduan, %30-ak erribosomen parte den 18S RNA erribosomikoa (18S rRNA) erabiltzen du eta gainerako %10-ak proteinen biosintesian diharduen 1-α-elongazio faktorea (*ef-1-α*) (Jorgensen et al., 2006) eta glukosaren metabolismoan diharduen glizeraldehido-3-fosfato deshidrogenasa (*gapdh*). Hauetariko ikerketa gehienek ez dituzte erabilitako gene hauek balioztatu izanaren ebidentziarik ematen (Gutierrez et al., 2008) eta gaur egun jakina da

hauetariko gene askok baldintza ezberdinen aurrean transkripzio-maila aldakorrak dituztela. Arrainetan adibidez, gibel eta gonadetako *actb*-ren transkripzio-mailak estradiolera esposatzearen ondorioz aldatzen direla ikusi da (Filby & Tyler, 2007). Horrez gain, arrainen obarioa bezalako organo dinamikoa eta aldakorra aztertzeko 18S rRNA eta *ef-1-α* ez dirudite aukera egokiak (Mittelholzer et al., 2007; Deloffre et al., 2012; Diaz de Cerio et al., 2012).

Gauzak horrela, azken urteotan cDNA-kantitatearen bidezko qPCR datuen zuzenketa burutzen hasi da. Lan asko dira metodo honen erabileraren abantailak aipatzen dituztenak (Lundby et al., 2005; Filby & Tyler, 2007; Kroupova et al., 2011; De Santis et al., 2011; Rojo-Bartolomé et al., 2016). Izan ere, metodo hau erreferentzia-geneak erabiltzea baino merkeagoa da eta prozedura esperimentalean zehar egon daitezkeen akatsak kontuan hartzen ditu. qPCR-an lagin bakoitzarentzat erabilitiko cDNA kopurua zehatza kontuan hartzean, aurreko pausuetan sortu zitekeen aldakortasuna arbuiagarria da metodo honen bidez (Rhinn et al., 2008).

Hau guztia kontuan hartuta, lan honen helburua ugal ziklo oso batean zehar korrokoi (*Chelon labrosus*) emeen obarioetan geneen transkripzio-maila aztertzeko lau zuzenketa-metodo ezberdin frogatzea da. Zuzenketa-metodoak honako hauek izan dira: a) cDNA-kantitatearen araberakoa, b) banaka erabilitako erreferentzia-gene arrunten araberakoa (18S rRNA, *actb*, *ef-1-α* eta *gapdh*), c) erreferentzia-gene hauen batezbestekoaren araberakoa, eta azkenik d) azterturiko gene guztien batezbesteko geometrikoaren araberakoa (erreferentzia-geneak gehi itu-geneak) dira. Itu-gene moduan oogenesian parte hartzen duten hiru gene aukeratu dira (Sardi et al., 2015): proteina erregulatzaile esteroidogeniko akutuaren genea (*star*), mitokondriaren kanpo mintzetik barruko mintzera kolesterolaren translokazioa burutzeaz arduratzen den proteinaren gene kodetzailea; obarioaren aromatasa (*cyp19a1a*), obarioan estradiolaren ekoizpenarekin erlazionaturiko aromatasa kodetzearen gene arduraduna; eta 11β-hidroxilasa (*cyp11b1*), androgenoak ekoizteko behar deneko entzima mitokondriala kodetzearen arduraduna.

Horrez gain, MIQE araudiak gomendatu bezala, erreferentzia-gene bakoitzaren, euren batezbesteko geometrikoaren eta gene guztien batezbesteko geometrikoaren

adierazpenen homogeneitatea balioztatzeko geNorm eta Normfinder tresna informatikoak erabili dira.

MATERIALA ETA METODOAK

Lagin biologikoak

Lan honetan 2010ko irailetik 2011ko irailera bitartean arrantzatu ziren korrokoien (*Chelon labrosus*) obarioak aztertu dira. 43 korrokoi arrantzatu ziren Pasaia-Trintxerpeko amarra-lekuan (43°19'35''I,1°55'9''E). Ale guztiak *in situ* prozesatu ziren. Korrokoiak 4-etil-aminobenzoatoarekin (Fluka, Steinheim, Alemania) saturatuta zegoen ur-soluzio batean murgilduz anestesiatu eta burua moztuz sakrifikatu ziren. Gonadak osorik isolatu ondoren pisatu eta zatitu ziren. Gonadaren zati bat "RNA later"-ean (Life Technologies, Carslbard, AEB) sartu eta zuzenean nitrogeno likidotan izoztu eta gero -80ºC-tara gorde ziren laborategira eramandakoan. Beste gonadaren zati bat analisi histologikoak egiteko erabili zen. Horrela korrokoi emeak arrantzaturiko guztien artean identifikatu eta euren fase gametogenikoa zehaztu ahal izan zen.

Arrainen manipulazio lanak Espainian eta Europar Batasunean indarrean dauden animalia esperimentalen ongizaterako araudiak (Azaroaren 7ko legea 32/2007; Zuzendaritza 2010/63/UE) jarraituz egin ziren. Lan honetako prozedura osoak UPV/EHUko Animalien Ongizaterako Etika Batzordearen (AOEB) onarpena izan zuen (CEBA/152/2010) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren baimena.

Obarioaren azterketa histologikoa

Korrokoi emeak fase gametogenikoaren arabera sailkatu eta taldekatu ziren. Horretarako, 24 orduz finkatzailean (%10-ko formalina neutroa) eduki ondoren histologiarako laginak etanol kontzentrazio ezberdinetan deshidratatu ziren (%70, %90 eta %96) eta metakrilatozko erretxinan (Technovit 7100; Heraeus Kulzer GmbH & Co., Werheim, Alemania) barneratu ziren. Erretxina gogortu ondoren, 5 µm-tako ebakiak egin ziren 2065 Supercut mikrotomoan (Leica Instruments GmbH, Wetzlar, Alemania). Azkenik, ebakiak hematoxilina/eosinaz koloreztatu eta argi mikroskopioaren bidezko (Olimpus BX61) behaketaz aleen sexua eta emeen fase obarikoa zehaztu ziren, Bizarrok

bere tesian (2005) eginiko sailkapenaren egokitzapena erabilita (1. Taula).

1. Taula: Emeen fase gametogeniko bakoitzaren ezaugarriak eta fase bakoitzean sailkaturiko lagin kopurua.

Faseak	Fasearen izena	Fasearen ezaugarriak	Eme kopurua
E	Erregresioa	Obarioa ia guztiz hustua. Oozito atretikoen agerpena. Muskulu eta ehun konektibo multzoen presentzia. Pareta obariko mehea.	6
Pb	Prebitelogenesia	Oozito perinukleolarren presentzia. Muskulurik ez da agertzen eta ehun konektiboa murriztua dago. Obarioren pareta mehea da.	19
Ak	Albeolo kortilalak	Oozito kortikalen presentzia. Zenbait oozito bitelogenikoen agerpena (%50 baino gutxiago).	9
B	Bitelogenesia	Erreserba tanten agerpena zitoplasman. Oozitoen mintz plasmatikoaren luzaketa nabaria da (oozitoen %50 baino gehiago bitelogenikoak dira).	9
H	Heldutasuna	Oozito hidratatuen agerpena. Lipido pikorren presentzia zitoplasman.	0
			Guztira 43

RNA erauzketa eta cDNAren sintesia

RNA totala TRIzol-aren (Life Technologies) bitarteko metodoa erabiliz eta hornitzailearen argibideak jarraituz erauzi zen. Erauzitako RNA 90 µL RNasa/DNasa-rik gabeko uretan disolbatu zen. Kalitate altuko RNA lortzeko asmoz, RNA totala DNasa-z tratatu (RNase-Free DNase Set, Quiagen, California, AEB) eta Quiagen RNeasy kit-komertziala (Quiagen) erabiliz garbitu zen. Azkenik, RNA kontzentrazioa eta kalitatea espektrofotometrikoki (Biophotometer, Eppendorf) zehaztu zen. Aurrera jarraitzeko 260/280 nm=1.80-2.0 eta 260 /230 nm=2.0-2.2 bitarteko absorbantzia ratioaren balioak zituzten laginak hautatu ziren.

cDNAren sintesia SuperScript Fist Strand Synthesis (Life Technologies) kit-komertzialerako ekoizleak zehaztutako argibideak jarraituz burutu zen, lagin bakoitzeko 1 µg RNA erabilita.

cDNA kontzentrazioaren neurketa

cDNA-kantitatea fluoreszentzia bidez neurtu zen. Quant-iT™ OliGreen® ssDNA Kit-aren (Invitrogen, Life Technologies) protokoloa jarraituz obario bakoitzetik ekoiztutako cDNA-ren kontzentrazioa kalkulatu zen. Neurketak, Synergy HT Multi-Made Microplate Reader (BioTek, Winoosky, AEB) irakurlean egin ziren 96 putzudun plakak erabiliz (Corning Incorporated; New York, AEB). 0.02-0.2 ng/µL tartean zegoeneko cDNA kontzentrazio teorikoa erabili zen neurketetarako 100 µL-ko erreakzio bolumenean. Uhin luzerak 485/2 nm kitzikadurara eta 528/20 nm igorpenera zehaztu ziren. Irakurketa "high-range standard curve" edo tarte altuko kurba estandarrarekin eta hornitzailearen argibideak jarraituz egin zen.

Interesezko sekuentzien lorpena

Gene bakoitzaren transkripzio-maila qPCR bidez kuantifikatu aurretik gene guztien sekuentziak eskuratu ziren. 18S rRNA (AY836368), *actb* (AY836369), *ef-1-α* (AY825252), *star* (JX294414), *cyp11b1* (JX294416) eta *cyp19a1a* (EF535845) sekuentziak NCBI-ko (National Center for Biotechnology Information) GenBank datu-basetik eskuratu ziren. *gapdh* sekuentzia ordea sekuentziatu behar izan zen. Horretarako, NCBI-n korrokoiarekin erlazio filogenetiko hurbila (Percomorpha) zuten arrainen sekuentziak lerrokatu ziren ClustalW2 programaren bidez (http://www.ebi.ac.uk/Tools/msa/clustalw2/). Lortutako sekuentzien homologia handiko guneen gainean hasleak diseinatu ziren. Sekuentziaren anplifikazioa 35 zikloko PCR konbentzionalaz egin zen 2720 termozikladorean (Applied Biosystems). Horretarako Taq DNA Polymerase, recombinant Kit-a eta 100 mM dNTP Mix-a (Invitrogen) erabili ziren. Hasleak 0.8 mM-ko kontzentrazioan gehitu ziren 50 µL-ko erreakzio bolumenean. Termozikladorearen baldintzak honakoak izan ziren: 94°C-tako 2 minutuko hasiera urratsa; jarraian 35 ziklotan zehar, 30 segundo 94°C-tan harizpiak desnaturalizatzeko, beste 30 segundo hasleen hibridazio tenperaturan eta 8 minutuko elongazio urratsa 72°C-tan; azkenik 8 segundoko 72°C-ko azken pausu bat. PCR produktua etidio bromuroz tindaturiko %1.5 agarosa gel batean migratu eta UPV/EHU-ko Genomika Zerbitzuko Sekuentziazio eta Genotipo Azterketa Unitatera (SGIker) sekuentziatzera bidali zen.

Lortutako sekuentzia NCBI-ko BlastN nukleotido datu basearekin (http://blast.ncbi.nlm.nih.gov/Blast.cgi) alderatu zen beste arrainen *gapdh* geneekin homologia aztertzeko. Sekuentzia NCBI-ko Genbank (http://www.ncbi.nlm.nih.gov/genbank/) datu-basera igo zen (sarrera gakoa: KX132908). Azkenik, sekuentzia kontsentsuaren gainean qPCR-ak egiteko hasle espezifikoak diseinatu ziren (2. Taula).

qPCR bidezko geneen transkripzio-mailen neurketa

Geneen transkripzio-maila 7300 Real-Time PCR System (Applied Biosystems) termozikladorean 96 putzudun plakak (Applied Biosystems) erabiliz neurtu zen. cDNA lagin bakoitzeko 2 µL-ko 3 erreplika aztertu ziren 18 µL qPCR medioan. Medioaren osagaiak honako hauek izan ziren: 10 µL SYBR ®Green PCR Master Mix (Roche) eta hasleak, zegozkien kontzentrazioan, RNasa/DNasarik gabeko uretan diluituak (2. Taula).

2. Taula: Hasleen ezaugarriak eta qPCR baldintzak. Taulan geneei esleituriko kalifikazioa agertzen da; Eg: Erreferentzia-geneak adierazteko eta Ig: Itu-geneentzako. Hasleak, Fw: ingelesezko *forward*, hasle zuzenari deritzo eta Rv: ingelesezko *reverse*, alderantzizko hasleari. (°C): qPCR-an erabilitako hasleen hibridazio tenperaturari dagokio.

Genea	Kalifikazioa	Fw hasle-sekuentzia (5'-3')	Rv hasle-sekuentzia (5'-3')	Hasleen kontzentrarioa (nM)	Laginen diluzioa	(°C)
actb	Eg	AGCCAACAGGGAGAAGATGA	GAGCGTAGCCCTCGTAGATG	25	1/2000	56
ef-1-α	Eg	CAGGGATTTCATCAAGAACA	GTCCATCTTGTTGACACCA	25	1/200	53
18S rRNA	Eg	GAGGCCCTGTTAATTGGAATGAG	TAAGATACGCTATTGGAGCTGGAA	50	1/200	56
gapdh	Eg	ACCCCACCAACATCAAATGG	TGACAACCTTGAGGGAGTTG	12,5	1/200	55
star	Ig	GGCAGGTCCAGGCCCCAGTAA	TCCATCCGTCCTGCTCGCTGA	25	1/200	63.5
cyp11b1	Ig	GGAGGGGTCGACACGACAGC	CCGCCAGCCTTTGCCCATGAT	25	1/200	62.9
cyp19a1a	Ig	ACGCACCTGGACGACTTG	TGCAGCGCAGCAAACG	25	1/25	57

qPCR-ak 40 zikloz luzatu ziren eta termozikladorean ezarritako tenperatura eta denbora baldintzak honakoak izan ziren: 2 minutu 50°C-tan, 10 minutu 95°C-tan, eta gero 40 ziklotan zehar 15 segundoko desnaturalizazio pausu bat 95°C-tan eta minutu batez, hibridazioa baimenduz, hasle bakoitzari zegokion tenperaturan. Disoziazio pausu bat gehitu zen amaieran; 95°C-tan 15 segundoz, eta gene bakoitzari zegokion hibridazio tenperaturan minutu batez mantenduz. Azkenik, berriz ere laginak 95°C-tan 15 segundoz inkubatu ziren.

Aztertutako gene guztien qPCR emaitzak hainbat eratara zuzendu ziren, bai ΔΔCT metodoan (Pffafl et al., 2001) zein moldaturiko ΔCT metodoan oinarrituz (Rojo-Bartolomé et al., 2016): erreferentzia-geneen bidezko zuzenketak cDNA-kantitatearekiko eta gainontzeko erreferentzia-geneekiko egin ziren. Itu-geneen kasuan, cDNA-kantitatearekiko eta erreferentzia-gene bakoitzarekiko zuzentzeaz gain, erreferentzia-gene guztien batezbesteko geometrikoarekiko (Eg-k) eta aztertutako gene guztien batezbestekoarekiko (Elg-k) ere zuzendu ziren. Emaitzak fase gametogeniko bakoitzaren arabera sailkatu ziren (ikusi 1. Taula), H fasean zegoen emerik lortzea ezinezkoa izan zelarik.

cDNA bidezko qPCR emaitzen zuzenketa

Geneen cDNA-kantitatearen bidezko zuzenketa Rojo-Bartolomé eta kideek (2016) proposatutako ΔCT metodoaren adaptazioa jarraituz burutu zen. Horretarako lagin bakoitzeko qPCR-an kargaturiko cDNA-kantitate totala kontuan hartuta hurrengo formula erabili zen:

$$E = \left[10^{-1/m}\right] - 1$$

Non *E* efizientziaren zuzenketa eta *RQ* (ingelesezko *relative quantification*) edo kuantifikazio erlatiboa eta *m* kurba estandarraren malda diren.

$$RQ = Log_2\left[\frac{(1+E)^{-\Delta CT}}{ng\ cDNA}\right]$$

Non $\Delta CT = CT\ lagina - CT\ plakaren\ barne\ kontrola$

cDNA-kantitatea erreferentzia-gene hautagaien egonkortasuna aztertzeko eta gene guztien zuzenketarako erabili zen.

Erabilitako tresna informatikoak

Erreferentzia-gene hautagaien egonkortasuna aztertzeko genNorm (Vandesompele et al., 2002; https://genorm.cmgg.be/) eta Normfinder (Andersen et al., 2004; http://moma.dk/normfinder-software) tresna informatikoak erabili ziren. Erreminta bakoitzak erreferentzia-generik edo geneen arteko konbinaketarik egokiena zein den era ezberdinean kalkulatzen du. geNorm-ek geneak euren transkripzio egonkortasunaren arabera sailkatzen ditu, horretarako bikoteka konparatzen ditu geneak eta egonkortasun koefiziente bat (M) esleitzen die. Erreferentzia-gene bat onartzeko M<1.5 izatea ezinbesteko baldintza da. Zenbat eta M txikiagoa izan, orduan eta erreferentzia-gene egonkorragoa. Normfinder-ek aztertutako gene guztiak euren egonkortasunaren arabera ordenan jartzen ditu. Horrez gain, gene-bikote konbinaziorik egonkorrena zein den esaten du. Bi erremintekin eginiko datuen analisiak egileen argibideak jarraituz burutu ziren.

Estatistika

Lorturiko datuak SPSS.22 (SPSS Inc., Microsoft Co.) erabiliz aztertu ziren. Taldeen arteko ezberdintasun estatistikoak ezartzeko Kruskal Wallis testa erabili zen, Dunn-en post-hoc testaz jarraituta. Desberdintasun esangarriak p<0.05-an ezarri ziren. Emaitzak aurkezteko kutxa diagramak aukeratu ziren, non kutxa bakoitzak 25 eta 75 pertzentilen arteko datuak, erdiko marrak mediana eta goi eta beheko marrek maximo eta minimoak adierazten dituzten.

EMAITZAK

Hautatutako erreferentzia-geneen transkripzio-mailen egonkortasuna geNorm eta Normfinder tresna informatikoen arabera

Orokorrean geNorm-en, hautatutako erreferentzia-gene batek ere ez zuen M<1.5 ezinbesteko mugaren baldintza bete. Hala ere, hautagai gehienak M=1.51-1.581 tartean

zeuden, orden hau jarraituz: Eg-k < *actb* < *gapdh* < *ef-1-α* < EIg-k < 18S rRNA (A atala, 3.taula). 18S rRNA, M=1.814 balioarekin, generik ezegonkorrena izan zen. Erreferentzia-gene guztien batezbesteko geometrikoa egiterakoan (Eg-k) M=1.495-koa izan zen. Aldiz, itu-geneak analisian barneratzean (EIg-k) M=1.755-koa zen, onargarria den balioa gainditua (3. Taula). Gauzak horrela, erreferentzia-geneen egonkortasuna Normfinder-ekin aztertu zen, geNorm erabilita ezingo baikenuen datuen zuzenketarako hautatutako gene bat bera ere ez bakarka erabili. Normfinder tresnak emandako geneen adierazpen-egonkortasunaren araberako ordena honako hau izan zen: *ef-1-α* < *actb* < Eg-k < *gapdh* < Elg-k < 18S rRNA (B atala, 3.taula). Gene bikoterik egonkorrena 4.793-ko egonkortasun balioarekin, *actb* eta *ef-1-α* izan ziren. Generik ezegonkorrena ordea, berriz ere 18S rRNA izan zen.

3. Taula: geNorm (A) eta Normfinder (B) erreminten egonkortasun emaitzak: M: egonkortasun koefizientea. Stability: egonkortasun balioa. Eg-k: erreferentzia-geneen batezbesteko geometrikoa, EIg-k: gene guztien batezbesteko geometrikoa. Beltzez markaturiko balioa adierazpen egonkorreneko geneari dagokio.

A)

geNorm	**18S rRNA**	***actb***	***ef-1-α***	***gapdh***	**Eg-k**	**EIg-k**
M<1.5	1.814	1.510	1.581	1.552	**1.495**	1.755

B)

Normfinder	**18S rRNA**	***actb***	***ef-1-α***	***gapdh***	**Eg-k**	**EIg-k**
Stability	7.168	6.798	**6.755**	7.013	6.867	7.136

Hautatutako erreferentzia-geneen transkripzio-mailen egonkortasuna cDNA-kantitatearen bitartez aztertua

cDNA erreferentzia-geneen egonkortasuna aztertzeko erabiltzean, *actb*, *ef-1-α* eta *gapdh* oogenesian zehar transkripzio-maila konstantea zutela ikusi zen (B, C eta D atalak, 1. Irudia). 18S rRNA-ren transkripzio-mailek ordea gora egiten zuten oogenesiak aurrera egin ahala, transkripzio-maila minimoak prebitelogenesi fasean eta maximoak

bitelogenesiarekin erakusten zituelarik (A atala, 1. Irudia). Gene egonkorrenetik desegonkorrenera lortzen deneko sailkapena honako hau da: *actb* < *ef-1-α* < *gapdh* < 18S rRNA.



1. Irudia: Hautatutako erreferentzia-geneen transkripzio-mailen egonkortasuna cDNA-kantitatearen bitartez aztertua. Obarioaren garapen faseak X ardatzean letraz adierazi dira: E = erregresioa, Pb=prebitelogenesia; Ak=albeolo kortikalak eta B=bitelogenesia. RQ: transkripto bakoitzaren kantitate erlatiboa (ingelesezko relative quantity). A) *18S rRNA* B) *ef-1-α*, C) *actb* eta D) *gapdh*. Letra desberdinek desberdintasun estatistiko esanguratsuak adierazten dituzte taldeen artean ($p<0.05$).

Korrokoiaren oogenesian zehar 18S rRNA-ren aldakortasun altua frogatuta ere, hurrengo ataletan erreferentzia-gene moduan erabili zen, berau erabiltzekotan geneen transkripzio-mailarekin gertatuko litzatekeena ikusi ahal izateko.

Oogenesian zeharreko erreferentzia-geneen transkripzio-mailak beste erreferentzia-gene hautagaien zuzenketaren bitartez aztertuak

Orokorrean, erreferentzia-geneekin zuzentzerakoan 18S rRNA-ren transkripzio-mailak oogenesian zehar goranzko joera erakutsi zuen, zuzenketarako erabilitako genearekiko era independentean (2. Irudia). Transkripzio-mailarik baxuenak prebitelogenesian (Pb) eta altuenak bitelogenesi fasean behatu ziren (B).



2. Irudia: 18S rRNA-ren transkripzio-maila erlatiboak, zuzenketarako erreferentzia-gene ezberdinak erabilita. Obarioaren garapen faseak X ardatzean letraz adierazi dira. RQ: (Ingelesezko relative quantifity) kantitate erlatiboa. Parentesi artean zuzenketarako erabili den erreferentzia-genea agertzen da; A) *actb*, B) *gapdh* eta C) *ef-1-α.* Letra desberdinek desberdintasun estatistiko esanguratsuak adierazten dituzte taldeen artean ($p<0.05$).

Bestelako geneei zegokienez (3., 4. eta 5. Irudiak), qPCR datuen zuzenketarako erabilitako genearen arabera emaitza ezberdinak lortu ziren. Horrela, *actb*-ren kasuan (3. Irudia), *ef-1-α* -rekiko (C atala, 3. Irudia) zuzentzerakoan oogenesian zeharreko transkripzio-maila konstanteak ikusi ziren. *gapdh*-rekiko zuzentzerakoan ordea, erregresio faseak (E) besteak baino transkripzio-maila altuagoa azaldu zuen (B atala, 3.

Irudia). 18S rRNA-rekiko zuzentzerakoan aldiz, *actb*-k beheranzko joera azaldu zuen (A atala, 3. Irudia), non baliorik altuenak prebitelogenesian eta baxuenak bitelogenesi fasean izan ziren, hurrenez hurren, 18S rRNAren transkripzio-maila baxu eta altuenekin bat zetozelarik (2. Irudia).



3. Irudia: *actb*-ren transkripzio-maila erlatiboak, zuzenketarako erreferentzia-gene ezberdinak erabilita. Obarioaren garapen faseak X ardatzean letraz adierazi dira. RQ: (Ingelesezko relative quantity) kantitate erlatiboa. Parentesi artean zuzenketarako erabili den erreferentzia-genea agertzen da; A) 18S rRNA, B) *gapdh eta* C) *ef-1-α*. Letra desberdinek desberdintasun estatistiko esanguratsuak adierazten dituzte taldeen artean ($p<0.05$).

ef-1-α-ren kasuan (4. Irudia) emaitzak *actb*-k lortutakoen antzekoak izan ziren (C atala,4. Irudia). Baina *gapdh*-rekiko zuzentzerakoan, oogenesian zeharreko goranzko joera azaldu zuen, baliorik altuenak bitelogenesi fasean gertatu zirelarik (B atala, 4. irudia). 18S rRNA-rekiko zuzentzerakoan ere, *actb*-arekin gertatzen zen bezala, beheranzko joera azaldu zuen oogenesiak aurrera egin ahala (A atala, 4. Irudia).

gapdh-ren transkripzio-mailak *ef-1-α* eta *actb*-rekiko zuzentzerakoan (B eta C atalak, 5. Irudia), nahiz eta oogenesian zehar transkripzio-maila konstanteak mantendu, erregresio fasean (E) transkripzioaren beherakada ikusi zen. 18S rRNA-rekin zuzentzerakoan (A atala,

5. Irudia), transkripzio-mailak beherantz egin zuen. Baliorik baxuenak bitelogenesi fasean 18S rRNA-ren transkripzio-maila altuenekin bat zetozen (2. Irudia).



4. Irudia: *ef-1-α*-ren transkripzio-maila erlatiboak, zuzenketarako erreferentzia-gene ezberdinak erabilita. Obarioaren garapen faseak X ardatzean letraz adierazi dira. RQ: (Ingelesezko relative quantity) kantitate erlatiboa. Parentesi artean zuzenketarako erabili den erreferentzia-genea agertzen da; A) 18S rRNA, B) *gapdh* eta C) *actb*. Letra desberdinek desberdintasun estatistiko esanguratsuak adierazten dituzte taldeen artean ($p<0.05$).



5. Irudia: *gapdh*-ren transkripzio-maila erlatiboak, zuzenketarako erreferentzia-gene ezberdinak erabilita. Obarioaren garapen faseak X ardatzean letraz adierazi dira. RQ: (Ingelesezko relative quantity) kantitate erlatiboa. Parentesi artean zuzenketarako erabili den erreferentzia-genea agertzen da; A) 18S rRNA, B) *ef-1-α* eta C) *actb.* Letra desberdinek desberdintasun estatistiko esanguratsuak adierazten dituzte taldeen artean ($p<0.05$).

Oogenesian zeharreko itu-geneen transkripzio-mailak, cDNA-kantitatea eta erreferentzia-geneen bidezko zuzenketak erabilita

star geneak oogenesian zeharreko transkripzio-maila gero eta altuagoak azaldu zituen, B fasean maximoa zuelarik, bai cDNA-kantitatearekiko, baita *actb* eta *ef-1-α* erreferentzia-geneekiko zuzenduz (A, C eta D atalak, 6. Irudia), zein erreferentzia eta itu-gene guztien batezbestekoekiko zuzenduta ere (F eta G atalak, 6. Irudia). Aldiz, *gapdh* eta 18S rRNA-rekiko zuzentzerakoan oogenesian zehar ez zen *star* genearen transkripzio-mailen inongo aldaketarik ikusi (B eta E atalak, 6. Irudia).



6. Irudia: *star*-en transkripzio-maila erlatiboak, zuzenketarako cDNA eta erreferentzia-gene ezberdinak erabilita. Obarioaren garapen faseak X ardatzean letraz adierazi dira. RQ: (Ingelesez relative quantity) kantitate erlatiboa. Parentesi artean zuzenketarako erabili den irizpidea agertzen da; A) cDNA, B) 18S rRNA, C) *actb*, D) *ef-1-α*, E) *gapdh*, F) Eg-k eta G) Elgk. Letra desberdinek desberdintasun estatistiko esanguratsuak adierazten dituzte taldeen artean ($p<0.05$).

cyp11b1 genearen transkripzio-mailek ez zuten inongo aldaketa estatistikorik pairatu oogenesian zehar cDNA-kantitatearekiko zuzenketa metodoa aplikatzerakoan (A atala, 7. Irudia). Banakako erreferentzia-geneen adierazpenarekiko, zein Eg-k eta Elg-k-kiko zuzentzerakoan ere, nahiko konstante mantendu ziren genearen transkripzio-mailak ziklo osoan zehar, nahiz eta desberdintasun esanguratsuak ikusi ziren. Orokorrean harturik erreferentzia geneen bidezko zuzenketa-metodo guztiekin, 18S rRNA salbuespen (B atala, 7. Irudia), oogenesi hasieran eta fase aurreratuagoetan (Pb eta B) transkripzio-maila berdinak zeuden. Orohar, E fase inaktiboak erakutsi zituen transkripzio-maila esanguratsuki altuagoak, Ak faseak mailarik baxuenak erakutsiz.



7. Irudia: *cyp11b1*-ren transkripzio-maila erlatiboak, zuzenketarako cDNA eta erreferentzia-gene ezberdinak erabilita. Obarioaren garapen faseak X ardatzean letraz adierazi dira. RQ: (Ingelesez relative quantity) kantitate erlatiboa. Parentesi artean zuzenketarako erabili den irizpidea agertzen da; A) cDNA, B) 18S rRNA, C) *actb*, D) *ef-1-α*, E) *gapdh*, F) Eg-k eta G) Elg-k. Letra desberdinek desberdintasun estatistiko esanguratsuak adierazten dituzte taldeen artean ($p<0.05$).

cyp19a1a-ren transkripzio-mailei zegokionez, bai cDNA kontzentrazioarekiko zein beste erreferentzia-geneen transkripzio-mailarekiko zuzentzerakoan oogenesian zeharreko transkripzio-mailaren igoera orokorra behatu zen, maximoa albeolo kortikal fasean izanik (A, C, D, E, F, G atalak, 8. Irudiak). Kasu honetan ere, 18S rRNA erreferentzia-genearekiko zuzenketak transkripzio-mailen aldaketak estali zituen, *cyp19a1a* eta 18S rRNA geneen kontrako transkripzio-mailen joeren isla (B atala, 8.irudia).

Azterturiko hiru itu-geneen transkripzio-mailak erreferentzia-geneen batezbestekoarekiko (Eg-k) eta gene guztien batezbestekoarekin (Elg-k) zuzentzerakoan, cDNA-kantitatearekiko zuzentzerakoan lortutako emaitzen parekoak izan ziren. Gainera, itu-gene bakoitzerako transkripzio-profila berdina izan zen batezbesteko metodo biekin zuzentzerakoan (F eta G atalak,6., 7. eta 8. Irudiak).



8. Irudia: *Cyp19a1a*-ren transkripzio-maila erlatiboak, zuzenketarako cDNA eta erreferentzia-gene ezberdinak erabilita. Obarioaren garapen faseak X ardatzean letraz adierazi dira. RQ: (Ingelesez relative quantity) kantitate erlatiboa. Parentesi artean zuzenketarako erabili den irizpidea agertzen da; A) cDNA, B) 18S rRNA, C) *actb*, D) *ef-1-α*, E) *gapdh*, F) Eg-k eta G) Elg-k. Letra desberdinek desberdintasun estatistiko esanguratsuak adierazten dituzte taldeen artean ($p<0.05$).

EZTABAIDA

Zelula bakar edo zelula multzo batean ematen diren geneen qPCR bitartezko transkripzio-aldaketak aztertu nahi direnean ezinbestean datuen zuzenketa burutu behar da (Bustin et al., 2009). Zuzenketa hau erreferentzia-geneen bidez egiteko ohitura da hedatuena, non itu-genearen transkripzio-mailak erreferentzia-gene baten/batzuen transkripzio-mailekiko erlatibizatzen diren. Oro har, erreferentzia-geneek konstitutiboki eta modu egonkorrean transkribatu behar dute aztertutako lagin biologikoan eta normalean zelulen ohiko metabolismo- eta mantentze-lanetan parte hartzen dute (Zhu et al., 2008). Gene hauek kanpo zein barne faktore aldakorrekiko sentikortasun txikikoak izan behar dute. Azken baieztapen honek hala ere eztabaida handia sortu du azken urteotan; erreferentzia-geneen transkripzio-profila prozesu biologiko ezberdinetan zehar (Sellars et al., 2007; García-López et al., 2011), zein inguruneko kutsatzaileekiko esposizio baldintzen arabera, aldatzen dela frogatu delarik (Dheda et al., 2005; Arukwe, 2006;

Filby & Tyler, 2007).

Lan honetan korrokoien oogenesia izan da aztergai. Oogenesia oso prozesu aldakorra da, zeinetan obarioa sasoi bakoitzean berriztatu, hazi eta aldaketa estruktural, metaboliko, fisiologiko, zelular, zein molekular ugari jasaten dituen (Lubzens et al., 2010; Rojo-Bartolomé et al., 2016). Aldaketa prozesu guzti hauek direla eta, ulertzekoa da zaila izatea konstante mantentzen den erreferentzia-generen bat topatzea (Mauriz et al., 2012; Deloffre et al., 2012; Diaz de Cerio et al., 2012).

Erreferentzia-geneen egonkortasunaren azterketa

Lan honetan erreferentzia-geneen transkripzio egonkortasuna aztertzerakoan erabilitako metodoek 18S rRNA erreferentzia-genea aldakorrena dela ondorioztatu dute eta beraz, arrainen obarioetan oogenesian zehar geneen transkripzio-mailak aztertzerakoan erreferentzia-gene gisa erabiltzeko baztertu dute. Izan ere, nahiz eta 18S rRNA arrainetan erreferentzia-gene moduan oso erabilia izan (Jorgensen et al., 2006), oogenesiak aurrera egin ahala 18S rRNA transkripzio-mailek gora egiten dute (Kroupova et al., 2011; Ortiz-Zarragoitia et al., 2014; Rojo-Bartolomé et al., 2016). Hain da aldakorra ezen oozitoen garapen fasea determinatzeko markatzaile molekular gisa ere erabili daitekeen 5S rRNA-rekin batera (Ortiz-Zarragoitia et al., 2014; Rojo-Bartolomé et al., 2016).

Erreferentzia-generik egonkorrena hautatzerakoan, erabilitako tresna informatikoen arteko desadostasuna ikusi da. geNorm-ek aztertutako lau erreferentzia-geneen batezbestekoa aukeratu duen bitartean, Normfinder-rek *ef-1-α* aukeratu du zuzentze-gene egokiena moduan. Gene batek ere ez du geNorm-en egonkortasun koefiziente minimo lortu eta beraz emaitza honen arabera lan egin izan bagenu ezin izan genuen erreferentzia-generik erabili. Honen arabera, soilik hautagai guztien batezbestekoa erabilgarria izango litzateke zuzenketarako. Makailo (*Gadus morhua*) emeen garapenean 20β-hidroxiesteroide deshidrogenasa (*20ϐ-hsd*) eta *cyp19a1a* geneen transkripzioa zuzentzeko *ef-1-α* eta 18S rRNA erreferentzia-geneak aztertzerakoan ere batek ere ez zen behar bezain egonkorra (Mittelholzer et al., 2007). Are gehiago, Deloffre eta lagunek ere, geNorm erabilita, ez zuten erreferentzia-gene egokirik lortu Mozanbikeko tilapiaren

(*Oreochromis mossambicus*) oogenesia aztertzerako orduan eta soilik *actb, ef-1-α* eta D eta Z katepsinak (*ctsd, ctsz*) erreferentzia-geneen konbinaketarekin lortu zuten egonkortasun-maila onargarrietara jaistea (Deloffre et al., 2012).

Tresna informatikoen arteko desadostasun honen arrazoia, bakoitzak kalkuluak egiteko erabiltzen duen metodologian datza. geNorm-ek geneen transkripzio-profilaren antzekotasunean oinarritzen den bitartean (Vandesompele et al., 2002), Normfinder-rek taldeen arteko eta talde bakoitzaren barne aldakortasunak erabiltzen ditu (Andersen et al., 2004). Aukera bat edo bestea erabiltzeak askotan emaitza okerretara bidera gaitzake; adibidez,De Santis eta kideek (2011) barramundiaren (*Lates calcarifer*) muskulu galerarekin erlazionatutako *mstn-1* (miostatin-1) itu-genea aztertu zuten animaliak lau astez baraualdian edukita. *mstn-1* transkripzio-mailek denboran zehar igo egiten zirela ikusi zuten, cDNA eta erreferentzia-gene egonkor bakarrarekin zuzentzerakoan. Aldiz, *mstn-1* transkripzio-mailak denboran zehar egonkor mantendu ziren geNorm-ek hautatutako erreferentzia-geneekin, *ef-1-α, rpl8* (L8 proteina erribosomikoa) eta *ubq* (ubikitina), zuzenketa egiterakoan. geNorm-en aukera okerra zela ondorioztatu zuten, egonkor moduan sailkatutako geneek euren artean antzeko erregulazio patroia zutelako aukeratu baitzituen (De Santis et al., 2011). *Paralichthys olivaceus* arrainaren enbriogenesian zehar ere zortzi erreferentzia-gene aztertu ziren; *actb*, *gadph*, *ef-1- α*, 18S rRNA, *rpl7* (L7 proteina erribosomikoa), *ubce* (ubikitina-konjugazio entzima), *α-tub* (α-tubulina) eta *b2m* (β-2-mikrogobulina). Horietatik geNorm-ek *α-tub* eta *b2m* egonkor moduan sailkatu zituen ez baitzuen enbriogenesiaren garapen-fase ezberdinetan gene bakoitzak duen aldakortasuna kontsideratu. Aldiz, autoreek 18S rRNA enbriogenesian zehar erreferentzia-gene egonkorrena gisa hautatu zuten ΔΔCT metodo eraldatu bat erabiliz (Zhong et al., 2008).

Gero eta ikerketa-lan gehiagok egoera esperimental ezberdinetan erreferentzia-gene bakarraren ordez, aldi berean hainbat erreferentzia-gene erabiltzen hasi dira, MIQE araudiek gomendatzen dutena jarraituz (Vandesompele et al., 2002; Bustin et al., 2009).

cDNA-ren bidezko zuzenketa-metodoa eneen transkripzioa qPCR-an erabilitako cDNA-kantitatearekiko zatitzean datza (Rojo-Bartolomé et al., 2016). Horrela zuzendutako emaitzek generik egonkorrena *actb* dela esaten dute, *ef-1-α*-k jarraitua.. Nahiz eta

erreferentzia-geneen egonkortasuna aztertzeko metodo ez oso hedatua izan, badira lanak non cDNA-kantitatearen erabilera zeregin honetarako proposatu den. Esate baterako, Filby & Tyler-ek (2007) inguruneko hormona estrogenoek *Pimephales promelas* arrainaren gibelean eta gonadan azterketa transkripzionalak egin ahal izateko erreferentzia-gene ezberdinen erabilgarritasuna eta cDNA frogatu zituzten. Ikerketa honetan itu-geneak cDNA-kantitatearekiko eta erreferentzia-gene egonkorrekiko zuzentzerakoan transkripzio-profil berdinak eta biologikoki baliogarriak zituztela ohartu ziren.

Oogenesian zehar erreferentzia-geneen transkripzio-mailak cDNA-kantitatea eta erreferentzia-gene bakarraren bidezko zuzenketa-metodoak erabilita

Erreferentzia-gene bakoitza itu-gene moduan aztertuz lehenego ondorio nabari bat ateratzea dago; 18S rRNA erreferentzia-gene moduan erabiltzekotan, aztertu diren gene guztiak oogenesiak aurrera egin ahala, negatiboki erregulatuta daudela ondoriozta zitekeen, obarioan 18S rRNA-ren transkripzioa benetan erregulatuta dagoelako. 18S rRNA-rekin lorturiko emaitzek, egokia ez den erreferentzia-gene bat aukeratzeak emaitzen interpretazioan izan dezakeen eragina erakusten du (De Santis et al., 2011).

ef-1-α eta *actb*, ikerketa honetan generik egonkorrenak izanik, batak-bestearekiko zuzentzerakoan oogenesian zeharreko transkripzio-maila konstanteak ikusi dira, cDNA-rekin ere ikusi izan den moduan. Beraz, bi gene hauek erreferentzia-gene egokiak dira korrokoiaren oogenesian zehar geneen transkripzio-mailen azterketan aplikatzeko. *gapdh* itu-gene gisa aztertzerakoan ere, oogenesian zehar joera nahiko konstantea mantentzen duela ikusi da. Hala ere, *actb* eta *ef-1-α* erreferentzia-geneekiko zuzentzerakoan, erregresio fasean *gapdh* generaren azpi-adierazpen bat dagoela aditzera ematen dute. Transkripzio-mailaren aldaketa hau nabarmena da *actb* eta *ef-1-α* itu-gene moduan aztertzerakoan eta *gapdh* transkripzio-mailarekiko zuzentzerakoan ere. Beraz, nahiz eta *gapdh* transkripzio-mailak cDNA kantitatearekiko zuzentzerakoan konstante mantendu eta *gapdh*-k geNorm-en aldakortasun koefiziente txikienetarikoa eduki, gene honek kasu honetan erregresio fasean dueneko aldakortasun altua dela eta,

erreferentzia-gene ez egoki modura sailkatzera darama. *gapdh* beraz oogenesian aldakorra da bestelako ikerketa lanetan ere ondorioztatu den bezala (Filby & Tyler, 2007; Deloffre et al., 2012).

Oogenesian zeharreko itu-geneen (*star*, *cyp11b1*, *cyp19a1a*) transkripzio-mailak : zuzenketa-metodo ezberdinen arteko konparaketa

Ikerketa lan honetan frogatua geratu da erreferentzia-gene bakarra erabiltzeak ekar dezakeen arriskua. Pentsatzekoa da erreferentzia-geneen batezbestekoa egiterakoan egonkortasuna emendatzea (Bustin et al., 2009) eta aldiz, balioztatu ez diren itu-geneak zuzenketara gehitzerakoan egonkortasun hori galtzea. Hala ere, eta geNorm eta Normfinder-en emaitzak kontrajarriz, gene guztien batezbestekoa zuzenketara gehitzean ez da egonkortasunik galdu eta lortutako emaitzak cDNA-kantitatea eta erreferentzia-gene egonkorrekin lortutakoen berdinak dira.

18S rRNA-ren bidezko zuzenketak ematen dituen emaitza okerrak eta *gapdh*-rekiko zuzentzetak eragiten duen desberdintasun eza alde batera utzita, *star*-genearene transkripzio-mailek oogenesian zehar goranzko joera azaltzen dute zuzenketa-metodo guztiekin. Aurretik ikusi da *star*geneak korrokoiaren zein ortzadar-amuarrainaren (*Oncorhynchus mykiss*) obarioaren heltze-prozesuan zehar gain-adierazten dela (Nakamura et al., 2005; Sardi et al., 2015). *star* genearen mRNA-mailak bitelogenesian zehar igo egiten dira obulazioan mailarik altuenak azalduz. Igoera hauek plasma mailan sexu-hormona esteroideen igoerarekin bat dator (Sardi et al., 2015). *cyp11b1*-k transkripzio-mailak erregresio fasean dira altuen eta ez dira oogenesian zehar aldatzen edozein zuzenketa-gene erabiltzen delarik ere. cDNA-kantitatearekiko zuzentzerakoan aldiz, aztertutako fase guztietan transkripzio-maila konstanteak erakusten ditu. c*yp11b1* sexuaren araberako adierazpena duen genea da. Orokorrean, *cyp11b1* geneak kodeturiko entzimak androgenoen sorreran jarduten du eta arrainen testikuluan adierazten da, obarioetan adierazpen baxua edo adierazpenik erakusten ez duelarik oogenesi osoan zehar (Blázquez et al., 2009; Zhang et al., 2010; Sardi et al., 2015). *cyp19a1a* geneak ere, *star* geneak bezala gain-adierazpenerako joera erakusten du oogenesian zehar, hau zuzenketa-metodo guztiekin ikusten delarik. Gene honen transkripzio-maila maximoak bitelogenesiarekin bat datoz (Sardi et al., 2015). Errutearen

ostean transkripzio-mailak behera egiten dute. Aromatasa entzima kodetzen du gene honek, zeinak C19 androgenoak (testosterona eta androstenediona) C18 estrogeno (estradiol eta estrona) bilakatzeaz arduratzen den (Villeneuve et al., 2006). *cyp19a1a* obarioaren desberdintzapenerako ezinbestekoa da (Guigen et al., 2010) eta estrogenoen plasma mailak erregulatzeaz arduratzen da (Villeneuve et al., 2010).

Gauzak horrela, oso garrantzitsua da erreferentzia-geneak erabili aurretik balioztatzea eta ahal den heinean erreferentzia-gene bakarra edo soilik bibliografian oinarrituriko generik ez aukeratzea (Filby & Tyler, 2007; Rhinn et al., 2008; Deloffre et al., 2012). Izan ere, normalean erabiltzen diren erreferentzia-geneak unibertsalak ez direla argi geratu da (Deloffre et al., 2012). Adibidez, Filby & Tylerrek (2007) *Pimephales promelas* espezieko aleak estrogenoetara esposatu zituzteneko esperimentuan 18S rRNA erreferentzia-gene egokiena zela ondorioztatu zuten, aldiz *gapdh*-ren transkripzioa estrogenoen aurrean aldakorra zen, oraingo lan honetan gertatu ez den moduan. Mittelholzer eta kideek (2007) arrainen obarioen garapena aztertzeko 18S rRNA, *ef-1-α* eta *actb* testatu zituztenean, 18S rRNA eta *ef-1-α*-geneen transkripzio-mailen aldakortasuna iragarri zuten. Deloffre eta kideek (2012) arrainen oogenesian zehar erreferentzia-gene moduan *ef-1-α* eta *actb* testatu zituzten ere, aurretik zuzenketarako 18S rRNA eta *gapdh* geneen erabilpena baztertu ostean. Kasu honetan, geNorm eta Normfinderrek *ef-1-α* eta *actb* geneak adierazpen egonkorrekoak sailkatu zituzten arren, euren transkripzio-mailak oogenesian zehar aztertzerakoan, bitelogenesi fasean aldatu egiten zirela ikusi zuten. Fase horretan ematen den estradiol-maila altuari egotzi zioten aldakortasun hori (Deloffre et al., 2012).

Lan honek *actb, ef-1-α*, cDNA kantitatea, lau erreferentzia-gene eta gene guztien batezbestekoak (lau erreferentzia-gene eta hiru itu-gene), kasu praktiko honetan itu-geneen transkripzio-mailak zuzentzeko erabilgarriak direla frogatu du. Hala ere, itu-geneen transkripzioa erreferentzia-geneekiko zuzentzea aukera garestia eta astuna da (Libus & Štorchová, 2006). Horrez gain, ez da erreza arrain espezie ezberdinetan, kutsatzaileekiko esposizio-esperimentuetan (adibidez (xeno)estrogenoekin) eta batez ere garapenarekin edo oogenesiarekin erlazionaturiko geneen transkripzio-mailak zuzentzerakoan erreferentzia-gene egokiak lortzea (Von Schalburd et al., 2005; Filby & Tyler, 2007; Luckenbach et al., 2008a; Luckenbach et al., 2008b; Tingaud-Sequeira et al.,

2009), askotan sekuentzia informazio hori ez baitago eskuragarri interesezko espezierako (Mittelholzer et al., 2007). Horregatik, zuzenean aztergai diren itu-geneen transkripzio-mailen batezbestekoa zuzenketarako erabiltzea aukera berri moduan plazaratu da (Heckmann et al., 2011). Hala ere, metodo honek ere geneen konbinaketa posibleak testatzeko analisiak egitea eskatzen du kasu praktiko bakoitzean, eta horrek denbora kostua dakar.

Azkenik, cDNA-kantitatearen bidezko geneen transkripzioaren zuzenketa-metodoaren erabilirarekin, esperimentazioan zehar sor zitezkeen prozedura-akatsak saihesten dira, biologikoki koherenteak diren emaitzak lortuz baliabide gutxi erabiliz, modu errazean eta geneen transkripzio aldakortasunarekiko era independentean (Libus & Štorchová, 2006; Filby & Tyler,2007; Rhin et al., 2008; De Santis et al., 2012; Rojo-Bartolomé et al., 2016). Hau guztia dela eta, lan honek geneen transkripzioaren zuzenketa burutzeko cDNA-kantitatea erabiltzea gomendatzen du, bai arrainen oogenesian zeharreko azterketetarako (Rojo-Bartolomé et al., 2016), zein bestelako ikerketetan ere.

FINANTZIAZIOA

Ikerketa hau Espainiar MINECO (SEXOVUM AGL2012-33477), Eusko Jaurlaritza (SAIOTEK OVUM-II S-PE12UN086; SAIOTEK FROMOVUM S-PE13UN101, SAIOTEK TOXADEN S-PE13UN131 eta Ikerketa Talde Finkatuak IT-810-13) eta UPV/EHU (UFI 11/37) ikerketa proiektuen bitartez finantzatua izan zen.

ESKER ONAK

Horrez gain eskerrak eman nahi dizkiogu UPV/EHU-ko SGiker zerbitzuari eskainitako laguntza teknikoagatik.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Andersen, CL., Jensen. JL., Orntoft, TF. (2004). Normalization of real-time quantitative reverse transcription-PCR data: a model-based variance estimation approach to identify genes suited for normalization, applied to bladder and colon cancer datasets. *Cancer Res.* 64: 5245-5250.

Arukwe, A. (2006). Toxicological Housekeeping Genes: Do They Really Keep the House?. *Environ. Sci. Technol.* 40: 7944-7949.

Bizarro, C., Ros, O., Vallejo, A., Prieto, A., Etxebarria, N., Cajaraville, MP., Ortiz-Zarragoitia, M. (2014). Intersex condition and molecular markers of endocrine disruption in relation with burdens of emerging pollutants in thicklip grey mullets (*Chelon labrosus*) from Basque estuaries (South-East Bay of Biscay). *Mar. Environ. Res*. 96: 19-28.

Bizarro, C. (2015). Intersex, xenoestrogenicity and multiorgan metabolic disruption in fish following exporuse to environmental mixtures of emerging pollutans. International Ph. D Thesis.

Blázquez, M., Navarro-Martín, L., Piferrer, F. (2009). Expression profiles of sex differentiation-related genes during ontogenesis in the European sea bass acclimated to two different temperatures. *J. Exp. Zool.* Part B. 312: 686–700.

Bustin, SA., Benes, V., Garson, JA., Hellemans, J., Huggett, J., Kubista, M., Mueller, R., Nolan, T., Pfaffl, MW., Shipley, GL., Vandesompele, J., Wittwer, CT. (2009). The MIQE guidelines: minimum information for publication of quantitative real-time PCR experiments. *Clin. Chem*. 55 (4): 611-622.

Dheda, K., Huggett, JF., Chang, J S., Kim, LU., Bustin, SA., Johnson, MA., Rook, GA., Zumla, A. (2005). The implications of using an inappropriate reference gene for real-time reverse transcription PCR data normalization. *Anal. Biochem*. 344: 141-143.

De Santis, C., Smith-Keune, C., Jerry, DR. (2011). Normalizing RT-qPCR data: are we getting the right answers? An appraisal of normalization approaches and internal reference genes from a case study in the finfish *Lates calcarifer*. *Mar Biotechnol* . 13: 170-180.

Deloffre, LAM. , Andrade, A., Filipe, AI., Canario, AVM. (2012). Reference genes to quantify gene expression during oogenesis in a teleost fish. *Gene*. 506: 69-75.

Diaz de Cerio, O., Rojo-Bartolomé, I., Bizarro, C., Ortiz-Zarragoitia, M., Cancio, I. (2012). 5S rRNA and accompanying proteins in gonads: powerful markers to identify sex and reproductive endocrine disruption in fish. *Environ Sci. Technol*. 46(14):7763-7771.

Filby, AL., Tyler, CR. (2007). Appropriate 'housekeeping' genes for use in expression profiling the effects of environmental estrogens in fish. *BMC Mol Biol.* 8: 8-10.

García-López, A., Sánchez-Amaya, MA., Prat, F. (2011). Targeted gene expression profiling in European sea bass (*Dicentrarchus labrax,* L.) follicles from primary growth to late vitellogenesis. *Comp. Biochem. Phys*. Part A. 160: 374–380.

Guiguen, Y., Fostier, A., Piferrer, F., Chang, C.F. (2010). Ovarian aromatase and estrogens: a pivotal role for gonadal sex differentiation and sex change in fish. *Gen. Comp. Endocrinol*. 165: 352–366.

Gutierrez, L., Mauriat, M., Guenin, S., Pelloux, J., Lefebvre, JF., Louvet, R., Rusterucci, C.,Moritz, T., Guerineau, F., Bellini, C., Van Wuytswinkel, O. (2008). The lack of a systematic validation of reference genes: a serious pitfall undervalued in reverse transcription-polymerase chain reaction (RT-PCR) analysis in plants. *Pl Biotech J*. 6: 609–618.

Hashimoto, JG., Beadles-Bohling, AS., Wiren, KM. (2004). Comparison of RiboGreen® and 18S rRNA quantitation for normalizing real-time RT-PCR expression analysis. *BioTechniques*. 36: 54-60.

Hugget, J., Dheda, K., Bustin, S., Zumla, A. (2005). Real-time RT-PCR normalisation: strategies and considerations. *Genes Immun*. 1–6.

Heckmann, LH., Sørensen, PB., Krogh, PH., Sørensen, JG. (2011) NORMA-Gene: A simple and robust method for qPCR normalization based on target gene data. *BMC Bioinformatics*. 12: 250.

Jorgensen, SM., Kleveland, EJ., Grimholt, U., Gjoen, T. (2006) Validation of reference genes for real-time polymerase chain reaction studies in Atlantic salmon. *Mar Biotech*. 8:398–408.

Kroupova, H.; Trubiroha, A.; Wuertz, S.; Kloas, W. (2011). Stage-dependent differences in RNA composition and content affect the outcome of expression profiling in roach (*Rutilus rutilus*) ovary. *Comp. Biochem. Physiol*. 159A: 141–149.

Libus J., Storchová H. (2006). Quantification of cDNA generated by reverse transcription of total RNA provides a simple alternative tool for quantitative RT-PCR normalization. *BioTechniques*. 41: 156-164.

Lubzens, E., Young, G., Bobe, J., Cerdá, J. (2010). Oogenesis in teleosts: how fish eggs are formed. *Gen. Comp. Endocrinol*. 16: 367-389.

Luckenbach, JA., Goetz, FW., Swanson, P. (2008a). Expressed sequence tags (ESTs) of follicle/interstitial cell enriched ovarian tissue from previtellogenic coho salmon. *Cybium*. 32: 142-144.

Luckenbach, JA., Iliev, DB., Goetz, FW., Swanson, P. (2008b). Identification of differentially expressed ovarian genes during the primary and early secondary oocyte growth in coho salmon, *Oncorhynchus kisutch*. *Reprod. Biol. Endocrinol*: 6.

Lundby, C., Nordsborg, N., Kusuhara, K., Kristensen, KM., Neufer, PD., Pilegaard, H. (2005). Gene expression in human skeletal muscle: alternative normalization method and effect of repeat biopsies. *Eur J Appl Physiol*. 95: 351-360.

Mauriz, O., Maneiro, V., Pérez-Parallé, ML., Sánchez, JL:, Pazos, AJ. (2012). Selection of reference genes for quantitative RT-PCR studies on the gonad of the bivalve mollusc *Pecten maximus* L. *Aquaculture*. 370–371: 158–165.

Mittelholzer, C., Andersson, E., Consten, D., Hirai, T., Nagahama, Y., Norberg, B. (2007). 20β-hydroxysteroid dehydrogenase and *CYP19A1A* are differentially expressed during maturation in Atlantic cod (Gadus morhua). *Journal of Molecular Endocrinology*. 39, 319–328.

Nakamura, I., Evans, JC., Kusakabe, M., Nagahama, Y., Young, G. (2005). Changes in steroidogenic enzyme and steroidogenic acute regulatory protein messenger RNAs in ovarian follicles during ovarian development of rainbow trout (*Oncorhynchus mykiss*). *Gen. Comp. Endocrinol*. 144: 224–231.

Ortiz-Zarragoitia, M.; Bizarro, C.; Rojo-Bartolomé, I., Diaz de Cerio, O., Cajaraville, MP., Cancio, I. (2014). Mugilid fish are sentinels of exposure to endocrine disrupting compounds in coastal and estuarine waters. *Mar. Drugs*. 12: 4756-4782.

Pfaffl, MW. (2001). A new mathematical model for relative quantification in real-time RT-PCR. *Nucleic Acids Res*. 29: 2002–2007.

Rhinn, H., Marchand-Leroux, C., Croci, N., Plotkine, M., Scherman, D., Escriou, V. (2008). Housekeeping while brain's storming validation of normalizing factors for gene expression studies in a murine model of traumatic brain injury *BMC Molecular Biology.* 9: 62.

Rojo-Bartolomé, I., Diaz de Cerio, O., Diez, G., Cancio, I. (2016). Identification of sex and female's reproductive stage in commercial fish species through the quantification of ribosomal transcripts in gonads. *Plos ONE*. 11(2): e0149711.

Sardi, AF., Bizarro, C., Cajaraville, MP., Ortiz-Zarragoitia, M. (2015). Steroidogenesis and phase II conjugation during the gametogenesis of thicklip grey mullet (*Chelon labrosus*) from a population showing intersex condition. General and Comparative Endocrinology. 221: 144-155.

Sellars, MJ., Lyons, RE., Grewe, PM., Vuocolo, T., Leeton, L., Coman, GJ., Degnan, BM, Preston, NP. (2007). A PL10 vasa-like gene in the kuruma shrimp, *Marsupenaeus japonicus*, expressed during development and in adult gonad. *Mar Biotechnol*. 9(3): 377-87.

Stahlberg, A., Kubista, M., Pfaffl, M. (2004). Comparison of reverse transcriptases in gene expression analysis. *Clin Chem*. 50:1678-1680.

Tingaud-Sequeira, A., Chauvigné, F., Lozano, J., Agulleiro, MJ., Asensio, E., Cerdà, J. (2009). New insights into molecular pathways associated with flatfish ovarian development and atresia revealed by transcriptional analysis. *BMC Genomics* . 10: 434.

Vandesompele, J., De Preter, K., Pattyn, F., Poppe, B., Van Roy, N., De Paepe, A., Speleman F. (2002). Accurate normalization of real-time quantitative RT-PCR data by geometric averaging of multiple internal control genes. *Gen Biol*. 3 (RESEARCH0034).

Villeneuve, DL., Knoebl, I., Kahl, MD., Jensen, KM., Hammermeister, DE., Greene, KJ., Blake, LS., Ankley, GT. (2006). Relationship between brain and ovary aromatase activity and isoform-specific aromatase mRNA expression in the fathead minnow (*Pimephales promelas*). *Aquat. Toxicol*. 76: 353.

Von Schalburg, KR., Rise, ML., Brown, GD., Davidson, WS., Koop, BF. (2005). A comprehensive survey of the genes involved in maturation and development of the rainbow trout ovary. *Biol. Reprod.* 72: 687–699.

Zhang, WL., Zhou, LY., Senthilkumaran, B., Huang, BF., Sudhakumari, CC., Kobayashi, T., Nagahama, Y., Wang, DS. (2010). Molecular cloning of two isoforms of 11beta-hydroxylase and their expressions in the Nile tilapia*, Oreochromis niloticus*. *Gen. Comp. Endocrinol*. 165: 34–41.

Zhong, QW., Zhan QQ., Wang, CM., Lin, G., Feng, F., Yue, GH. (2008). Expression profiling and validation of potential reference genes during *Paralichthys olivaceus* embryogenesis. *Mar Biotechnol*. 10: 310-318.

Zhu, J., He, F., Hu, S., Yu, J. (2008). On the nature of human housekeeping genes. *Trends in Genetics*. 24: 10 481-484.

Chapter 2

Identification of sex and female's reproductive stage in commercial fish species through the quantification of ribosomal transcripts in gonads

Arrainen akuikulturan, ugalketa-arrakastaren faktore-mugatzaileetariko bat eskuratutako gametoen kalitatea da. Arrautza-kalitatea era kualitatiboan eta kuantitatiboan estimatzeko irizpide ezberdinak erabili izan diren arren, kalitatearen adierazle hauek askotan arrain-espezie eta hazkuntza-metodo zehatzetan soilik dira erabilgarriak. Azken urteotako ikerketek arrainen ernalketaren aurreko arrautza-kalitatearen erregulazioarekin zerikusia duten mekanismo molekularrak aztertzen jardun dute. Izan ere, oozitoak gene ezberdinak adierazten ditu oogenesiarenn garapan-fase ezberdinetan zehar eta prozesuan sintetizatu eta metatzen dituen molekula berriek kalitate oneko arrautzaren osatze koordinatuan paper garrantzitsua jokatzen dute, horrela, behin ernalduta, enbrioi osasuntsu bat gara daitekeelarik. Gauzak horrela, gene ezberdinen transkribapen-mailak arrautzen kalitatea aztertzeko baliabidea izan daiteke. Lan honek, 5S rRNA-ak kalitate altuko arrautzak identifikatzeko markatzaile molekular posible gisa aztertzea du helburu, horretarako, akuikulturan garrantzitsuak diren bi arrain-espezieekin, erreboiloa (*Scophthalmus maximus*) eta lupia (*Dicentrarchus labrax*), ugalketa-saioak egin ziren, 10 erreboilo emeren arrautzak ar bakar baten espermarekin eta 16 lupi emeren arrautzak 20 arren esperma-nahastearekin ernaldu ziren. Errundako oozitoen RNA totaletik lortutako 5S rRNA eta 5S/18S rRNA-mailak arrautza-kalitatearen parametro tradizionalekin eta bestelako neurketa molekularrekin egon zitezkeen korrelazioak aztertu ziren. Horrela, bi arrain espezieetan, bai 5S rRNA-mailek zein 18S rRNA-mailek erlazio positiboa aurkeztu zuten euren artean. Aldiz, erreboiloan 5S rRNA-mailak eta 5S/18S rRNA-k arrautza-kalitate oneko parametro tradizionalekin (besteak beste, flotagarritasuna eta eklosio-arrakasta) korrelazio positiboak aurkeztu zituzten bitartean, lupian korrelazioak negatiboak izan ziren (arrautzen flotagarritasuna, enbrioien biderakortasuna, obarioarean pH-a, ernalketa-arrakasta, enbrioien biziraupena eta garapena). Nahiz eta 5S rRNA-k arrainen arrautza-kalitatearekin erlazioa duela susma daitekeen, lortutako emaitza kontrajarriek ugalketa saioetan eta laginen prozesamenduan protokolo desberdinak eta desegokiak erabiltzearen isla dira. Etorkizunera begira arrainen arrautza-kalitatearen neurketarako 5S rRNA-ren balioa frogatu ahal izateko, errunaldi luzean zehar kalitate ezberdineko arrautza-kantitate handia eskuratzea ahalbidetzen duen arrain espeziea erabiltzea komeni da. Horrez gain, arrautza guztiak ar bakarraren espermarekin ernaltzea ahalbidetu behar du. Kuantifikazio molekularrak arrautza helduen kopuru jakinetik erauzitako RNA-ren gainean egin behar dira, ernalketa, eklosio eta larben biziraupen arrakastarekin korrelazioak ezarri ahal izateko. Honekin, oozitoetako erribosomen-bitartekarien pilaketak arrautzen kalitatearen adierazleak direla froga daitekeela uste dugu, akuikultura-protokoloen hobekuntzarako baliagarriak izan daitezkeenak.

ABSTRACT

The quality of the gametes is one of the key factors limiting reproductive success in fish aquaculture. In order to estimate the quality of the eggs, both quantitative and qualitative criteria have been traditionally used, but these quality markers are usually only useful for a specific fish species or a particular rearing method. The molecular mechanisms underlying the regulation of the egg quality prior to fertilisation have been the focus of several studies in recent years. In fact, during oogenesis the oocyte expresses different genes depending on the developmental stage, and the new molecules accumulated during this process play a key role in the coordinated growth of the egg, allowing, once fertilisation has occurred, the development of a healthy embryo. Taking this into account, the transcription levels of the different genes involved in oogenesis can be used to study the quality of the eggs. The main objective of this work was to study the use of 5S rRNA as a possible marker of high egg quality. For this purpose, two fish species important for aquaculture, turbot (*Scophthalmus maximus*) and European seabass (*Dicentrarchus labrax*), were used in reproduction experiments. In turbots the eggs of 10 females were fertilised independently with the sperm from a single male, while in sebass eggs from 16 females were fertilised with the pooled sperm from 20 males. Correlations between the 5S rRNA and 5S/18S rRNA levels, obtained from the total RNA in unfertilised oocytes, and traditional egg quality markers were tested. 5S rRNA levels and 5S/18S rRNA index were successfully measured in spawned oocytes, 5S and 18S rRNA levels showing a positive correlation in both species. However, whereas in turbot 5S rRNA levels and the 5S/18S rRNA ratio showed a positive correlation with traditional egg quality markers (buoyancy and hatching success, among others), correlations with egg and embryo quality markers (ovarian pH, egg buoyancy, embryo viability, fertilisation success, embryo survival and development) were negative in the case of the European seabass. The opposing results obtained could be due to the different, experimental set-ups, animal husbandry and sample preparation protocols used with both species. In future experiments, and to prove the value of 5S rRNA to identify the quality of fish oocytes, we recommend selecting a fish species in which enough oocytes can be obtained in a lengthy spawning season where different quality oocytes could be compared, and fertilised with sperm from a single male. Molecular quantifications should be carried out on RNA extracted from a given specific number of fully mature oocytes, stabilising correlations with parameters linked to fertilisation, hatching success and larvae survival. With this approach we believe that accumulation of ribosomal intermediates in oocytes could be use as easily measurable proxy of egg quality to improve husbandry protocols in aquaculture.

SARRERA

Arrainen akuikulturan, ugalketa-arrakastaren faktore-mugatzaileetariko bat eskuratutako gametoen kalitatea da. Gametoen kalitatean oso aldagarriak izan daitezkeen faktoreek eragiten dute. Ikerketa lan askok arrautza (Kjorsvik et al., 1990; Brooks et al., 1997) eta espermaren (Billard et al., 1995) kalitatean eragin dezaketen faktore espezifikoak ikertzen jardun dute eta akuikultura intentsiboa asko garatu den arren oraindik ere eme-ugaltzaile onenak eta kalitate altuko arrautzak bereizteko metodologia estandarizatzetik urrun dago.

Definizioz, arrautza-kalitateari buruz ari garenean, arrautzak ernaldua izateko eta ondorioz sortutako enbrioia modu normalean garatzeko duen gaitasunari egiten diogu erreferentzia (Bobe & Labbé, 2010). Oro har, parentalen ekarpen genetikoa (Colléter et al., 2014), nutrizioa, emearen egoera fisiologikoa eta adina, ugalketa sasoian edo errute garaian dagoen uraren tenperatura eta fotoperiodoa, obulazioa bultzatzeko erabilitako teknika-mota eta momentuan oozitoek duteneko garapen-maila, emeak pairatu dezakeen estresa, errutea eta ernalketa bitartean oozitoen umeldura-maila eta uraren propietate fisiko-kimikoek, zein xenobiotikoekiko esposizioak arrautza-kalitatean eragin dezaketen faktoreak dira (Bobe & Labbé, 2010).

Arrautza-kalitatea era kualitatiboan eta kuantitatiboan estimatzeko irizpide ezberdinak erabili izan dira zuzenean edo zeharka egindako neurketen bitartez. Zuzeneko neurketei dagokienez, ernaldu gabeko oozitoaren hasierako tamaina, morfologia edota kolorazio/gardentasunaren azterketan oinarritzen direnak dira nagusi (Bobe & Labbé, 2010; Żarski et al., 2011). Horrela adibidez, zenbat eta arrautza handiagoa, orduan eta kalitate hobea espero da, hala ere, frogatua dago kalitate ezberdineko arrautzek tamaina eta forma ezberdina aurkeztu dezaketela eta beraz erlazio zuzenik ez dagoela bi baldintzen artean (Bromage et al., 1992; Ciereszko et al., 2009).

Zeharkako neurketek, emearen zeloma eta obarioaren parametro fisiko-kimikoak arrautza-kalitatea aurresateko erabiltzen dute. Kasu honetan, eta erreboiloan (*Scophthalmus maximus*) ikusi denez, obario zein zeloma-fluidoaren pH baxuek arrautza-kalitatearen beherakadarekin erlazionaturik daude (Skaalsvik et al., 2015). Izan ere, pH-

ren beherakada oozitoen apurketaren ondorioz gertatzen dela ikusi da (Dietrich et al., 2007). Hala ere, eta nahiz eta erreboiloan pH-a ernalketa-arrakastarekin erlazionaturik egon, ez da erlazio linealik ezarri pH eta enbrioien biziraupenarekin (Aegerter & Jalabert, 2004). Hala ere, arrautza-kalitatearen parametro adierazle hauek askotan arrain-espezie eta hazkuntza-metodo zehatzetan soilik dira erabilgarriak (Ciereszko et al., 2009).

Arrautza-kalitatea estimatzeko erabiltzen diren parametro doienak "a posteriori" ernalketaren ostean oozitotik sortzen den enbrioiaren arrakastaren neurketan oinarritzen direnak dira. Beraien artean ernalketa-arrakasta bera erabili daitekeen parametro goiztiarrena delarik. Bereziki erabilgarria da oskola gardena duteneko espezieen arrautzak aztertzeko, adibidez erreboiloan. Nahiz eta hazkuntza goiztiarraren arrakastaren estimazio ona izan, parametro honek ez du zertan geroko enbrioein/jubenilen hazkuntza-arrakasta islatu behar (Shields et al., 1997). Izan ere, ernalketa ostean enbrioi-zelulak banatzen hasten dira, orduan zelulen-zatiketa patroi anormalen agerpen-maila erabili daiteke jatorrizko arrautza-kalitatea estimatzeko. Honekin batera ernaldutako arrautzaren flotagarritasuna ere aztertzen da, umeldurarekin erlazionaturik baitago, baina ez batak ez besteak ez dute zertan arrautzaren kalitatea, ezta enbrioiaren bideragarritasuna islatu behar (Brooks et al., 1997; Avery et al., 2009). Gerora garapenaren fase-gako ezberdinetan; hala nola, begi-fasean, eklosioan eta bitelo-sakuaren birxurgaketa fasean, metamorfosian pleuronektidoetan, enbrioiaren biziraupena eta malformazioak azter daitezke, (Bobe & Labbé, 2010).

Azken urteotako ikerketek arrainen ernalketaren aurreko arrautza-kalitatearen erregulazioarekin zerikusia duten mekanismo molekularrak aztertzen jardun dute (Aegerter et al., 2005; Bonnet et al., 2007b; Chapman et al., 2014; Palomino et al., 2014; Ma et al., 2015). Oogenesian zehar oozitoan gertatzen direneko molekulen harrera, sintesia, metaketa eta prozesamenduak kalitate oneko arrautzaren osatze koordinatuan paper garrantzitsua jokatzen dute, horrela, behin ernalduta, enbrioi normal eta osasuntsu bat gara daitekeelarik. Arrautzaren garapena, bitelogenesian zehar gertatzen den bolumenaren handipena barne, luze ikertu izan da (Wallace &Selman, 1981 eta 1985; Brooks et al., 1997; Patino & Sllivan, 2002; Mommsen & Koorsgaard, 2008). Gaur egun, ama-mRNA-k (Bouleau et al., 2014) eta oogenesian zehar oozitoetan pilatutako

molekulek (molekula antioxidatzaileak, gantz-azidoen edukia, mitokondrioen DNA-ren apurketa, transkripto espezifikoak) arrautza-kalitatean duten garrantzia azter daiteke (Tata, 1986; Howley & Ho 2000; Pelegri, 2003; Parma et al., 2015; Schaefer et al., 2016; Sullivan et al., 2016). Ernalketa ostean, ama-faktore horiek zigotoaren transkripzioa aktibatu bitartean enbrioia mantentzen dute eta beraz enbriogenesi goiztiarrean paper garrantzitsua jokatzen dute. Faktore hauei dagokienez, oogenesian zehar duten kokalekua eta pilaketaren araberako funtzioak betetzen dituztela ikusi da (Bally-Cuif et al., 1998; Howley & Ho; 2000; Bouleau et al., 2014) eta kantitate ezberdinean agertzen dira kalitate ezberdineko oozitoetan (Aegerter et al., 2005; Bonnet et al., 2007b).

Horrez gain, oogenesian zehar oozitoek hainbat aldaketa morfologiko, biokimiko eta molekularrak pairatzen dituztela kontsideratuz, obulazioan askatzen oozito helduen kalitatea aldaketa guzti hauen menpean dago (Lubzens et al., 2010; Chapman et al., 2014). Ezaguna da, aldaketa guzti hauen ondorioz transkripzio-profila oogenesian zehar aldatu egiten dela eta fase ezberdinetako oozitoetan gene ezberdinak adierazten direla (Lanes et al., 2013). Gauzak horrela, gene ezberdinen transkribapen-mailak arrautzen kalitatea aztertzeko baliabidea izan daiteke (Bonnet et al., 2007b; Bobe eta Labbé, 2010 ; Mommens et al., 2014; Chapman et al., 2014). Gure ikerketa taldeak 5S rRNA oozitoen agerpenaren markatzaile molekularra dela frogatu izan du (Diaz de Cerio et al., 2012; Rojo-Bartolomé et al., 2016). RNA erribosomiko hau arrainen oogenesiaren hasierako faseetan era masiboan nukleoan ekoiztu eta zitoplasman pilatzen hasten dela ikusi da. Gerora, bitelogenesian, nukleoloan sintetizatuko diren bestelako RNA erribosomikoekin eta proteinekin batera erribosomak osatzen ditu, enbrioi berrian sintetizatu beharko diren proteina berrien ekoizpenerako erabiliko direlarik (Szymaski et al., 2003). 5S rRNA beraz, arrautza-proteinak sintetizatzeko eta beraz enbrioi osasuntsu eta bideragarri bat lortzeko ezinbesteko molekula gakoa dela susma daiteke. Lan honetan, 5S rRNA-ak kalitate altuko arrautzak identifikatzeko markatzaile molekular posible gisa aztertuko da. Horretarako, akuikulturan garrantzitsuak direneko bi arrain-espezieekin ugalketa-saioak egin dira: erreboiloa (*Scophthalmus maximus*) eta lupia (*Dicentrarchus labrax*).

MATERIALA ETA METODOAK

Erreboiloa (*Scophthalmus maximus*) (1. Irudia):

Eme-ugaltzaileen zaintza, arrautzen ernalketa eta larben garapena

Lan honetarako erabili diren 10 erreboilo (*Scophthalmus maximus*) emeak "Galician cluster of aquaculture"-k duen haztegiko eme-ugaltzaileen artean aukeratuak izan ziren (CETGA, Aguiño, Galizia). Emeak 3-6 urte bitartekoak ziren eta 4 kg-tik 10 kg-rako pisua zeukaten. Astean behin edo bitan masaje abdominala egin zitzaien erruterako prest zeuden jakiteko, haztegiko prozedura normala jarraituz eta beraien jarduera komertzialen baitan. Behin errutea burututa, eme bakoitzaren arrautza guztiak 6 urte eta 6.5 kg-tako ar bakarraren espermarekin ernaldu ziren. Ernalketa ostean arrautzen flotagarritasuna aztertu zen. Arrautza hondoratuak zenbatu eta arrautza txar moduan sailkatu ziren. Flotatzeko ahalmena zutenekoak aldiz (arrautza onak), eklosiorako inkubatzen jarri ziren (1. Taula). Eklosio ostean larbak larbarioan inkubatu ziren (batezbesteko tenperatura 18°C) 20-40 dph (edo errute osteko egunak, ingelesezko days post hatching) egunerarte. 40. egunetik aurrera eta hazkuntza osoan zehar larbariotik atera eta beste tanke batean hazi ziren larbak (batezbesteko tenperatura 15°C). 82-84. egunean jubenilak pisatu eta sailkatu ziren, salmenta mugatzen duteneko faktore morfologikoak kontuan hartuta (1. Taula).

1. Taula. Erreboiloaren errute eta enbrioi eta larben hazkuntzan zehar neurtu eta kalkulatutako parametroak.

Arrain-kopurua	Kategoria bakoitzari dagokion arrain-kopuru totala
Amaiera	Kategoria bakoitzean dagoen arrain-kopuru totala/amaierako arrain-kopuru totala*100
Hasiera	Kategoria bakoitzean dagoen arrain-kopuru totala/hasierako larva-kopurua*100
Arrautza-kopuru totala	Errundako arrautza guztiak (1 mL-ko)
Arrautza onak (kopurua)	Flotatzeko ahalmena zuteneko arrautzak
Hasierako larba-kopurua	Eklosio ostean hazkuntzarako aukeratutako larba-kopurua
Biziraupena %	Amaierako arrain biziak/Hasierako larvb-kopurua *100

1. Taula (jarraipena).

Saltzeko onak	Saltzeko onak (arrain-kopurua)	Gaizki migratuak	Gaizki migratuak (Arrain-kopurua)
	Saltzeko onak % (Amaiera)		Gaizki migratuak % (Amaiera)
	Saltzeko onak % (Hasiera)		Gaizki migratuak % (Hasiera)
Txikiak onak	Txikiak onak (arrain-kopurua)	Totala	Arrain-kopuru totala
	Txikiak onak % (Amaiera)		Totala % (Amaiera)
	Txikiak onak % (Hasiera)		Totala % (Hasiera)
Albinoak	Albinoak (arrain-kopurua)	Jubenilen pisua	Batezbesteko pisua
	Albinoak % (Amaiera)		Desbiderazioa
	Albinoak % (Hasiera)	Masaje abdominala	Arrautza-kopuru totala
Albinoak + Malformatuak	Albino eta malformatuak (Arrain-kopurua)		Arrautza onak (kopurua)
	Albino eta malformatuak % (Amaiera)		Eklosionatutako larbak
	Albino eta malformatuak % (Hasiera)	Arrautzak eta larbak	Arrautza onak %
Malformatuak	Malformatuak (Arrain-kopurua)		Eklosionatutako labak/arrautza onak %
	Malformatuak % (Amaiera)		Eklosionatutako larbak/arrautza totalak %
	Malformatuak % (Hasiera)		Biziraupena/arrautza totalak %
Punkiak (begi gaizki migratuak)	Punkiak (Arrain-kopurua)		Hasierako larba-kopurua
	Punkiak % (Amaiera)		Biziraupena %
	Punkiak % (Hasiera)		

RNA, DNA eta proteinen erauzketa, 5S/18S rRNA indizea

RNA totala, DNA eta proteina TRIzol-aren (Life Technologie Carslabad, California, AEB) metodo organikoa erabiliz eta hornitzailearen argibideak jarraituz erauzi zen. Erauzitako RNA 90 µL RNasa/DNasa-rik gabeko uretan disolbatu zen. RNA-kontzentrazioa eta -kalitatea espektrofotometrikoki (Biophotometer, Eppendorf, Hamburgo, Alemania) zehaztu ziren. Kalitate ona 260 nm/280 nm=1.80-2.0 eta 260 nm/230 nm=2.0-2.2 inguruko baliotara mugatu zen. DNA-kantitatea eta -kalitatea ere espektrofotometrikoki neurtu ziren (260 nm/280 nm=1.6-1.8). RNA kantitatea eta kalitatea neurtzeko ere 2100 Bioanalyzer (Agilent Technologies, Santa Clara, AEB) erabili zen. 5S/18S rRNA indizea kalkulatu zen Bioanalyzerraren elektroferogrametan 5S rRNA eta 18S rRNA zituzteneko azalerak neurtuz eta Rojo-Bartolomé et al. (2016) zehazten den prozedura jarraituz.

Proteinen erauzketaren kasuan disolbagarritasuna handitzeko %1 SDS eta urea soluzioan mantendu ziren. Erauzi eta jarraian Lowry et al. (1951) metodologian oinarrituz lagin bakoitzaren proteina kantitatea neurtu zen Bio-Rad DC Protein Assay Kit komertsiala erabilliz (Bio-Rad, Hercules, California, AEB) eta hornitzailearen argibideak jarraituta. DNA eta proteinen datuak honako ratioak kalkulatzeko erabili ziren: 5S rRNA/DNA, Proteina/DNA eta 5S rRNA/Proteina.

Lupia (*Dicentrarchus labrax*) (1. Irudia):

Eme ugaltzaileen zaintza, arrautzen ernalketa eta larben garapena

Lan honetarako 3 kg inguruko 16 lupi (D*icentrarchus labrax*) eme IFREMER haztegian (Palavas-Les-Fots, Frantzia) erruterako prestatu ziren. Lehenengo eta behin oozito post-bitelogenikoak zituzteneko emeak aukeratu ziren. Garapen-fasea identifikatu ahal izateko, oozitoak kateter baten laguntzaz eskuratu ziren. Behin egokiak zireneko emeak aukeratuta, hormona luteinizatzailearen hormona askatzailearen analogoarekin edo LHRHa-rekin (ingelesezko Luteining Hormone Releasing Homorne analog) (Sigma-Aldrich, St Luis, Misuri, AEB) tratatu ziren 10 µg/kg dosian, obulazioa bultzatzeko.

Obulazioaren ostean (3 egunetako hormona-tratamenduaren ostean), arrautzak masaje abdominalaren bidez eskuratu ziren. Eme bakoitzaren arrautza-lagin bat nitrogeno likidoan sartu eta -80°C-tara izoztuta mantendu zen prozedura molekularrekin hasi arte. Bideragarritasunean aitaren eragin posibleak ekiditeko (Saillant et al., 2001), eme bakoitzaren gainontzeko arrautzak 20 arren esperma-nahasketarekin ernaldu ziren, $20*10^5$ espermatozoide/arrautzako proportzioan (Fauvel et al., 1993). Ernalketa itsas ura aktibazio medio moduan erabiliz burutu zen.

Ernalketa ostean 2.5 mL-ko arrautza-bolumena 14°C-tara inkubatu zen 3 orduz (3 hdf, ingelesezko hours post fertilization) inkubatu ziren. 3hdf-an garatzen ari diren enbrioiak 4 zelulatako fasea aurkezten dute eta garatzen ari ez direnen artean ondo bereiz daitezke. Orduan ernaltze-arrakasta kalkulatu zen (2. Taula). %65-ko ernaltze-arrakasta muga moduan jarrita, kalitate baxua eta altuko arrautza-taldeak bereiztu ziren. Ernalketa osteko 3 dpf (ingelesezko days post fertilization) eta 4 dpf-tan garapen-arrakasta eta

eklosioa (5 dpf) kalkulatzeko, arrautza talde bakoitzetik 72 banaka inkubatu ziren Oyen eta kideek proposatutako metodologia jarraituta (1997) (2. Taula).

2. Taula. Lupiaren errute, ernalketa eta enbrioien hazkuntzan zehar neurtu eta kalkulatutako parametroak.

Emea	Emearen adina (hilabetetan)
	Emearen pisua
	Emearen garapen fasea
Indukzioa	Indukzio ur tenperatura
	Indukzio gazitasuna
	Indukzio baldintzak CxH
Errutea	Errundako bolumena (ml)
	Bideragarritasuna %
	Bideragarritasuna% (umeldura)
	Oozito-kopurua (500 µl)
	Obarioaren osmolaritatea
	Obarioaren pH
Ernalketa	Uraren pH
	Obario eta uraren pH (ernalketan)
	Obario eta uraren pH (3minutu)
	Uraren gazitasuna
	Ernalketa-arrakasta % (3hpf)
Inkubazioa	Inkubazio uraren tenperatura
	Inkubazio uraren gazitasuna
Enbrioaia	Biziraupena % (4hpf)
	1 lipido tanta (%)
	2 lipido tanta (%)
	3 lipido tanta (%)
	>3 lipido tanta (%)
	Biziraupena % (4 dpf)
	Flotazio % (4 dpf)
	Hondoraketa %(4 dpf)
	Eklosio-arrakasta %
Larba	Jubenilen luzera (0 dph)
	Jubenilen luzera (7 dph)
	Jubenilen luzera (12 dph)
	Igeriketa puxika (12 dph)

RNA erauzketa, 5S/18S rRNA indizea

RNA erauzketa Tri-reagent erabiliz burutu zen (Sigma-Aldrich). Laginen purutasuna ziurtatzeko Nucleospin RNA II kit komertziala erabiliz purifikatu ziren aurretik Bonnet eta

lagunek amuarrainean erabilitako protokoloa jarraituz (2007a). RNA kantitatea eta kalitatea neurtzeko NanoDrop NP-1000 espektrofotometroa (NanoDrop technologies, Wilmington, Delawere, AEB) eta 2100 Bioanalyzer (Agilent Technologies, Santa Clara, AEB) erabili ziren. 5S/18S rRNA indizea kalkulatu zen Bioanalyzerraren elektroferogrametan aurretik erreboilorako azaldu den prozedura berdina jarraituz.

cDNA-ren sintesia eta qPCR bidezko *gtf3a* genearen transkripzio-mailen neurketa

2 µg RNA totaletik hasita cDNA Maxima First Strand cDNA Synthesis Kit (Thermo Scientific, Waltham, Massachusetts, AEB) erabiliz eta hornitzailearen argibideak jarraituz ekoiztu zen. *gtf3a* genearen transkripzio-maila qPCR bidez kuantifikatu zen, horretarako *gtf3a* sekuentzia NCBI-ko (National Center for Biotechnology Information) GenBank datu basetik eskuratu zen (KC191720). Hasleen sekuentziak: zuzena edo Fw, 5'-TCAGCTCACCAGACATGAGC-3', eta alderantzizkoa edo Rv, 5'-GACAAAGGCCTCAGAGCATC-3'.

gtf3a eta erreferentzia geneen qPCR-ak Go Taq master mixa (Promega, Madison, Wisconsin, AEB) erabiliz egin ziren. 4 µL cDNA lagin kargatu ziren erreakzioaren 10 µL bolumen totalean 5 µg/µL-tara diluituak. Hasleak 1500 pmol/L-tara diluitu erabili ziren eta qPCR-ak Step One Plus Real-Time PCR System (Applied Biosystems, Foster City, California, AEB) termozikladorean burutu ziren baldintzak honakoak zirelarik: 2 minutu 95°C-tan, jarraian 40 ziklotako desnaturalizazioa, 15 segundo 95°C-tan, eta lotura fasea 1 minutu 60°C-tan. Azkenik disoziazio-pausu bat gehitu zen prozesuaren espezifikotasuna aztertzeko. *gtf3a*-ren adierazpen erlatiboa Julien Bobe-n taldeak (INRA Laboratoire de Physiologie et Génomique des Poisson-LPGP, Rennes, Frantzia) neurturiko 6 erreferentzia geneen batezbesteko geometrikoarekin zuzendu zen. Gene hauek beste lan baten baitan arrautzen kalitatea aztertzeko buruturiko "*microarray*"-an neurtuak izan ziren, eta lagin berdinetan adierazpen konstantea izateagatik aukeratuak izan ziren (Bobe et al., argitaratugabea).

Korrelazio linealak eta estatistika erreboilo eta lupi arrautzetan

Bi espezietan lorturiko emaitzak SPSS.22 (SPSS Inc., Microsoft Co.) erabiliz aztertu ziren. Taldeen arteko ezberdintasun estatistikoak ezartzeko Mann-Whitney testa erabili zen. Desberdintasun esangarriak $p<0.05$-an ezarri ziren. Emaitzak aurkezteko kutxa diagramak aukeratu ziren, non kutxa bakoitzak 25 eta 75 pertzentilen arteko datuak, erdiko marrak mediana eta goi eta beheko marrek maximo eta minimoak adierazten dituzten.

Horrez gain, parametro molekularrak eta ugalketa saioan zehar neurturiko parametroen artean erlazioak bilatu nahian korrelazio linealak burutu ziren. Horretarako Spearman korrelazio unilateral ez parametrikoa erabili zen. Desberdintasun esangarriak $p<0.01$ (**) eta $p<0.05$ (*) ezarri ziren.



1. Irudia: Jarraitutako materiala eta metodoen eskema laburtua. Gorriz aztertutako arrautza-kalitatearekin zerikusia izan dezaketen parametro tradizionalak. BM: Biologia molekularra.

EMAITZAK

Markatzaile molekularren eta garapen-faktoreen arteko erlazioak: erreboiloen arrautzen kasu praktikoa

Neurtutako oozitoen 5S rRNA-mailak, 18S rRNA-mailak eta 5S/18S rRNA indizea, zein bestelako parametro molekularrak (DNA, proteinak eta eurekin sortutako ratioak) enbrioi eta jubenilen garapenean zehar neurtutako parametroekin alderatu ziren (3. Taula).

5S rRNA-mailek erlazio positiboa aurkeztu zuten honako parametroekin: arrautza onak %, eklosionatutako larbak/arrautza totalak %, 5S/18S rRNA ratioa, 18S rRNA-maila, 5S rRNA/DNA eta 5S rRNA/proteina. 18S rRNA-mailek aldiz, 5S rRNA-z gain erlazio positiboa aurkeztu zuen arrautza onak %-rekin eta 5S rRNA/proteinarekin, aldiz negatiboki erlazionatuta agertu zen proteina/DNArekin.

Bi rRNA-n arteko ratioak 5S rRNA-rekin, arrautza onak %-rekin, eklosionatutako larbak/ arrautza onak %-rekin, eklosionatutako larbak/arrautza totalak %-rekin, 5S rRNA/DNA eta 5S rRNA/proteina ratioekin erlazio positiboak aurkeztu zituen. RNA totalak eta 5S rRNA/DNA ratioa positiboki erlazionatuta agertu ziren. 5S rRNA/DNA-ak, RNA totalaz gain, 5S rRNA, 5S/18S rRNA eta 5S rRNA/proteina-rekin erlazionatuta zegoen ere. DNA kantitatea halaber, 5S rRNA-rekin, 5S/18S rRNA-rekin, biziraupena/arrautza totalak %-rekin eta 5S rRNA/proteina ratioarekin positiboki erlazionatuta agertu zen. Proteina kantitateak erlazio positiboak erakutzi zituen biziraupena %, saltzeko onak (hasiera), albinoak (hasiera), albino eta malformatu (amaiera), punkiak (hasiera), arrainen kopuru totala hasiera eta proteina/DNA-rekin. Aldiz, proteina/DNA-k saltzeko onak (amaiera) eta punkiak (hasiera)-kin positiboki erlazionatuta agertzeaz gain, negatiboki erlazionatuta zegoen 18S rRNA-mailarekin eta 5S rRNA/proteinarekin. Azkenik 5S rRNA/proteina kantitatea aurretik esan bezala proteina/DNA-rekin negatiboki eta 5S rRNA-mailak, 18S rRNA-maila, 5S/18S rRNA eta 5S rRNA/DNA-rekin positiboki erlazionatuta egoteaz gain, arrautza onak %-arekin, eklosionatutako larbak/arrautza totalak %-rekin ere positiboki erlazionatuta zegoen.

3. Taula: Erreboilo arrautzetan eginiko Spearman korrelazioen emaitza esangarrien taula. (*)-ak p<0.05 eta (**)-k p<0.01 esangarritasun estatistikoa adierazten dute.

S. maximus	5S rRNA	18S rRNA	5S/18S rRNA	Biziraupena %	Saltzeko onak % (Amaiera)	Saltzeko onak % (Hasiera)	Albinoak% (Hasiera)	Albino eta malformatuak % (Amaiera)	Punkiak % (Hasiera)	Totala % (Hasiera)
5S rRNA	1	**.762***	**.905****	-.119	-.024	.143	-.214	-.013	.071	-.119
18S rRNA	**.762***	1	.571	-.524	.524	-.048	-.524	-.457	-.500	-.524
5S/18S rRNA	**.905****	.571	1	-.095	-.333	.048	-.310	.038	.214	-.095
Proteina	-.190	-.595	-.095	**.842****	-.527	**.697***	**.758****	**.575***	**.673***	.842**
DNA	.350	.167	.119	.406	.055	.394	.273	.175	.127	.406
RNA	.357	.048	.476	.055	-.273	.079	.006	.356	.091	.055
5S rRNA/ DNA	**.881****	.619	**.976****	-.237	.140	-.122	-.255	.000	-.109	-.237
Proteina/DNA	-.405	**-.738***	-.167	.479	**-.600***	.297	.479	.459	**.564***	.0479
5S rRNA/ Proteina	**.929****	**.833****	**.810****	-.381	.143	-.095	-.476	-.228	-.167	-.381

3. Taula (jarraipena): Erreboilo arrautzetan eginiko Spearman korrelazioen emaitza esangarrien taula. (*)-ak p<0.05 eta (**)-k p<0.01 esangarritasun estatistikoa adierazten dute.

S. maximus	Arrautza onak %	Eklosionatutako labak/arrautza onak %	Eklosionatutako larbak/arrautza totalak %	Biziraupena/arrautza totalak %	Proteina	RNA	5S rRNA/ DNA	Proteina/DNA	5S rRNA/ Proteina
5S rRNA	**.802****	.619	**.881****	.500	-.190	.357	**.881****	-.405	,929**
18S rRNA	**.695***	.095	.548	.024	-.595	.048	.619	**-.738***	,833**
5S/18S rRNA	**.683***	**.762***	**.810****	.500	-.095	.476	.976**	-.167	,810**
Proteina	-.383	-.024	-.176	.333	1	.418	-.134	**,806****	-.452
DNA	.274	.073	.273	**.552***	.079	-.212	-.176	-.503	.452
RNA	.292	.067	.067	-.103	.418	1	**.559***	.467	.190
5S rRNA/ DNA	.457	.381	.365	-.061	-.134	**.559***	1	-.043	,762*
Proteina/ DNA	-.492	-.018	-.297	-.006	**.806****	.467	-.043	1	-,667*
5S rRNA/ Proteina	**.802****	.500	**.810****	.357	-.452	.190	**.762***	**-.667***	1

Lupien arrautza-kalitatea: ernalketa-arrakasta

3 hdf ostean neurtutako ernalketa-arrakasta irispide moduan erabilita eme guztien arrautzak bi arrautza-taldetan banatu ziren: “kalitate baxuko” taldearen ernalketa-arrakasta %18-tik %65-ra zihoan bitartean, kalitate altuko arrautza-taldeak %67-tik %95-rako ernalketa-arrakasta erakutsi zuen (4. Taula). Ernalketa-arrakasta talde bien arteko banaketa-irizpide moduan bi taldeen artean sortarazten zen ezberdintasun estatistikoan oinarritu zen (2. Irudia).

4. Taula: Lupien arrautzen taldekatzea ernalketa-arrakastaren (%) arabera.

	Ernalketa-arrakastak (%)		Ernalketa-arrakastak (%)
Low quakity (kalitate baxua)	18	High quality (kalitate altua)	67
	40		68
	41		71
	44		71
	44		76
	51		76
	52		89
	65		95



2. Irudia: Kalitate baxu eta altuko arrautzen ernalketa-arrakasta lupietan. Ardatz bertikalean ernalketa-arrakasta %-tan adierazita (ingelesezko Fertilization rate %). Ardatz horizontalean, kalitate baxuko (ingelesez, Low quality) eta kalitate altuko arrautzak (ingelesezko High quality). Letra desberdinek desberdintasun estatistiko esanguratsuak adierazten dituzte talde bien artean ($p<0.05$).

Oozitoen markatzaile molekularrak eta arrautzen kalitatea lupietan

Ernalketa-arrakastan oinarritutako taldekatzea mantenduz *gtf3a*-ren transkripzio-mailak aztertu ziren (3. Irudia). Ez zen desberdintasun esanguratsurik ikusi bi taldeen artean eta orokorrean bi taldeek *gtf3a* genearen transkripzio-maila baxuak aurkeztu zituzten.



3. Irudia: *gtf3a*-ren transkripzio-maila erlatiboak lupien kalitate baxu eta altuko arrautzetan. RQ: kantitate erlatiboa (ingelesezko relative quantification). Ardatz horizontalean, kalitate baxuko (ingelesez, Low quality) eta kalitate altuko arrautzak (ingelesez, High quality). Letrek desberdintasun estatistiko esanguratsurik ez zegoela adierazten dute ($p<0.05$).

RNA erribosomikoei zegokienez, 18S rRNA-k (4B. Irudia) ez zuen taldeen arteko ezberdintasunik erakutsi. 5S rRNA-k (4A. Irudia) eta bi RNA-mailen artean sorturiko 5S/18S rRNA indizeak (4C. Irudia) balio esanguratsuki altuagoak aurkeztu zituen kalitate baxuko arrautzen taldean.



4. Irudia: 5S rRNA eta 18S rRNA kantitate-erlatiboak lupien kalitate baxu eta altuko arrautzetan. RNA totalaren elektroforesitik lorturiko 5S eta 18S rRNA kantitate-mailak (A eta B atalak hurrenez hurren) eta 5S/18S rRNA indizea. Ardatz horizontalean, kalitate baxuko (ingelesez, Low quality) eta kalitate altuko arrautzak (ingelesez, High quality). Letra desberdinek taldeen arteko desberdintasun estatistiko esanguratsuak adierazten dituzte talde bien artean ($p<0.05$)

Markatzaile molekularren eta garapen-faktoreen arteko erlazioak: lupien arrautzen kasu praktikoa

Ernalketa-arrakastan oinarritutako arrautzen sailkapenak bi talde bereizgarri sortu zituen arren, eta nahiz eta sortutako bi taldeak estatistikoki desberdinak izan, bi taldeen arteko muga arbitrarioki ezarri zeni. Hori dela eta, laginak taldekatu gabe aztertzea erabaki zen. Horretarako, eta erreboiloan egindakoa jarraituz, neurtutako parametro guztien arteko erlazioak korrelazio linealen bidez aztertu ziren (5. Taula).

5. Taula: Lupi arrautzetan eginiko Spearman korrelazioen emaitza esangarrien taula. (*)-ak p<0.05 eta (**)-k p<0.01 esangarritasun estatistikoa adierazten dute.

D. labrax	Emearen pisua	Indukzio uraren tenperatura	Indukzio gazitasuna	Indukzio baldintzak CxH	Bideragarritasuna %	Bideragarritasuna % (umeldura)	Obarioaren osmolaritatea	Ur pH
5S/18S rRNA	.291	.198	-.198	.332	**-.729****	**.729****	-.077	-.198
5S rRNA	**.479***	**.602****	**-.469***	**.674****	**-.521***	**.521***	**-.514***	-,712**
18S rRNA	.379	**.563***	**-.478***	**.641****	-.282	.282	**-.556***	-,704**
gtf3a	-.130	-.059	.083	.010	-.421	.421	.063	.037

D. labrax	Obarioaren pH	Obario eta ur pH (ernalketan)	Obario eta ur pH (3 min)	Ur gazitasuna	Ernalketa-arrakasta % (3 hpf)	3 lipido tanta	Biziraupena % (4 dpf)	Inkubazio ur tenperatura
5S/18S rRNA	**-.721****	**-.461***	**-.618****	-.184	**-.591****	**-.445***	**-.669****	.056
5S rRNA	-.285	-.062	-.115	**-.551***	**-.741****	-.299	-.309	**.572***
18S rRNA	.074	.278	.260	**-.534***	**-.538***	-.174	-.163	**.484***
gtf3a	-.387	-,517*	-,504*	.090	-.400	-.352	-.183	-.047

D. labrax	Flotazio (4 dpf)	Hondoraketa (4 dpf)	Jubenilen luzera (0 dph)	Jubenilen luzera (7 dph)	Jubenilen luzera (12 dph)	Igeriketa puxika (12 dph)	5S rRNA	18S rRNA
5S/18S rRNA	**-.712****	**.712****	**-.529***	-.239	-.357	-.350	.415	.079
5S rRNA	-.365	.365	**-.480***	**-.527***	**-.471***	**-.617****	1	**.912****
18S rRNA	-.038	.038	**-.461***	**-.600****	**-.440***	**-.590****	**.912****	1
gtf3a	**-.431***	**.431***	.129	.246	.163	.233	0	-.238

Kasu honetan 5S rRNA emeen pisua, indukzio ur tenperatura, indukzio baldintzak (CxH), umeldura %, inkubaziorako erabilitako uraren tenperatura eta 18S rRNA-mailarekin positiboki erlazionatuta agertu zen. Aldiz indukzio uraren gazitasuna, bideragarritasuna %, obarioaren osmolaritatea, uraren pHa eta gazitasuna, ernalketa-arrakasta %, jubenilen luzera (0, 7, 12 dph) eta igeriketa puxikaren agerpenarekin negatiboki erlazionatuta agertu zen. 18S rRNA-mailek bere aldetik ere, 5S rRNA-mailak, indukzio uraren tenperatura, indukzio baldintzak (CxH) eta indukzio tenperaturarekin positiboki erlazionatuta zegoen eta negatiboki ur gazitasunarekin, jubenilen luzerarekin (0, 7, 12 dph) era igeriketa-puxikaren agerpenarekin (12 dph).

Bi rRNA erribosomikoak konbinatzean 5S/18S rRNA-ratioa negatiboki erlazionatuta agertu zen, bideragarritasun %-rekin eta beraz positiboki umeldura %-rekin, negatiboki obarioaren pH-rekin eta obario zein uraren pH-rekin ernalketa garaian zein 3 minutu ostean, ernalketa-arrakasta %-rekin, 3 lipido tanta aurkezten zituzten arrautzen kopuruarekin, biziraupenarekin (4 dpf) eta flotazio %-rekin (beraz kontrakoa den hondoraketa %-rekin positiboki erlazionatuta zegoen). *gtf3a* transkripto-mailek ere obario eta ernalketa garaiko eta 3 minutu osteko uraren pH-aren balioekin, zein flotazioarekin (hondoratzearen aurkakoa) erlazio negatiboak aurkeztu zituen.

EZTABAIDA

Ikerketa lan honetan akuikulturan oso garrantzitsuak diren erreboilo eta lupien ugalketa eta hazkuntzan zehar neurtutako parametro eta arrautza-kalitatearen markatzaileak izan zitezkeen molekulen kantitateen artean korrelazio linealak ezarri dira. Horrez gain, lupiaren kasuan, ernalketa-arrakasta irizpide moduan erabilita, arrautzak bi talde desberdinetan sailkatu ziren, kalitate altuko eta baxuko arrautza-taldeak hain zuzen ere eta arrautza horietan neurtutako *gtf3a*, 5S rRNA, 18S rRNA transkripto-mailen eta 5S/18S rRNA indizearen balioak taldekatze horren arabera aztertu ziren. Azken honi dagokionez, 5S rRNA-mailen eta 5S/18S rRNA indizearen kasuan, bi kalitate desberdineko taldeen arteko ezberdintasun esangarriak ikusi ziren.

Neurtutako parametro desberdinen arteko korrelazio linealei dagokienez, bai erreboiloen zein lupien oozitoen 5S rRNA eta 18S rRNA-mailek era positiboan estuki

erlazionatuta daudela ikusi da. Honek sentsua dauka bi RNA-k erribosomen parte baitira eta erribosoma bakoitzak molekula horietako bakarra dauka. Nahiz eta 5S rRNA oogenesi hasieran ekoiztu eta oozitoaren zitoplasman pilatu, bitelogenesiaren hasierarekin 18S rRNA ekoizten hasten da amaieran , oozitoa ernalduan, erribosomak ekoiztu ahal izateko sintesi berririk behar eman gabe (Rojo-Bartolomé et al., 2016).

5S rRNA-mailari eta 5S/18S rRNA indizeari dagokienez, erreboiloan erlazio positiboa aurkezten dute arrautza-kalitatea onarekin bat datozen parametro tradizionalekin, hala nola, arrautza onen kopuruarekin, hau da, arrautzen flotagarritasunarekin edota eklosio-arrakastarekin (errundako arrautza totaletik abiatuta zein flotagarriak ziren arrautza onetatik abiatuta ere). Bestalde, lupien arrautzetan lortutako emaitzen arabera ere, 5S rRNA-mailak eta 5S/18S rRNA indizeak kalitate ona islatzen duten parametro tradizionalekin negatiboki erlazionatuta agertzen dira, besteak beste, arrautzen flotagarritasuna eta bideragarritasunarekin, obarioaren pH-rekin, ernalketa-arrakastarekin, enbrioien biziraupenarekin eta jubenilen hazkuntzarekin.

Beraz, bi espezieekin egindako ugalketa saioek kontrako emaitzak eman dituzte. Kontrako emaitza hauentzako arrazoi metodologiko posible ugari daude. Hasteko, erreboiloarekin egindako ugalketa saioan arrautzak lagintzerako orduan, ez zen arrautza-kopurua kontuan hartu eta nahiz eta 5S rRNA/DNA ratioak 5S rRNA-ren mailekin erlazio positiboa eduki, eta beraz, RNA erauzketarako zelula-kopuru berdina erabili izan dela iradoki, ezinezkoa da hau benetan jakitea. Gainera, masajearen bidez oozitoan eskuratzen direnean gertatu oi den bezala, laginetan obario-fluidoa eta odola ere bazegoen. Hauek, RNAlater-arekin batera, oozitoetatik banaezina zen zuntz-matrize sortzen zuten zeina ezinbestean RNA erauzketarako hartu egin zen. Oozitoaz aparte bestelako zeluletatik RNA erauztea, RNA horren jatorri zelularra hein batean ezezaguna izatea dakar. Ugalketa-saioan zehar eginiko neurketei dagokienez, arrautza-kalitatearekin erlazio estua duten parametro garrantzitsuak falta dira, hala nola, obario fluidoaren pH, zeina umeldura estimatzeko erabili daitekeen (Fauvel et al., 1993) eta erreboilo arrautzetan kalitatea eta ernalketa arrakastarekin erlazionaturik dagoela ikusi den (Aegerter & Jaleber, 2004), tenperatura edo gazitasuna. Horrez gain, ez ziren kontuan hartu ernalketa-arrakasta (lupietan parametro zentraltzat hartu dena) eta jubenilen hazkuntza eta biziraupena fase-gako ezberdinetan (begi-fasean, eklosioan eta

bitelo-sakuaren birxurgaketa fasean, metamorfosian pleuronektidoetan), nahiz eta hauek gametoen kalitatea aztertzeko garrantzia duten parametroak izan (Bobe & Labbé, 2010).

Lupiaren kasuan, lagin bakoitzetik RNA erauzketarako arrautza-kopuru berdina hartu zen, laginak euren artean konparagarriak izateko. Hala ere, erauzitako RNA birritan purifikatu egin zen, ondorioz litekeena da RNA molekula ezberdinen proportzioa aldatu izana eta euren arten 5S rRNA molekulen kantitate handi bat galdu izana ere. 5S rRNAren tamaina oso txikia da, 120 bp (Szymansky et al., 2003; Diaz de Cerio et al., 2012) eta zutabeen bitarteko erauzketa prozesuetaan, zein ondoren egindako purifikazio pausuteangaltzeko joera dago. Horrez gain, lupietan ernalketa 20 ar ezberdinen esperma-nahasketarekin egin zen (Saillant et al., 2001), jatorri desberdineko espermak erabiltzerakoan kontrolatu ezin deneko aldakortasuna gehitzen delarik. Ugal-arrakastarako bi gametoen kalitate eta ekarri somatikoa eta genetikoa dira garrantzitsuak, oozitoarena eta espermarena.

Sekuentziazio masiboak eskaintzen duen aukera aprobetxatuz asko izan dira oozitoen kalitatearekin erlazionatutako markatzaile molekularrak deskribatzen saiatu direnak. Adibidez, Bonnet eta kideek (2007b) proliferazioaren aurkako funtzioa duen *phb2* (Prohibitina b2) txaperonaren oozitoko mRNA-mailak ostadar amuarrainaren (*Oncorhynchus mykiss*) enbrioien garapenaren arrakastarekin negatiboki erlazionatuta zeudela ikusi zuten. *npm2* nukleoplasmina ere enbrioiaren garapen-arrakasta bermatzeko ezinbesteko ama-genea dela ikusi da ostadar amuarrain zein zebra arrainean (Aegerter et al., 2005; Bouleau et al., 2014). Folikuluen garapenaz arduratzen den *bmp15* (ingelesezko bone morphogenetic protein 15) eta obulazio garaian garatugabeko oozitoen askapena ekiditeaz arduratzen den *gdf9* (ingelesezko growth differentiation factor 9) ere prebitelogenesian eta errundako arrautzetan kalitatearen adierazle gisa identifikatu dira *Seriola lalandi* arrain espeziean (Palomino et al., 2014). Horiez gain, estresaren aurreko erantzuna, heriotza-zelularra, DNA-kaltea, ATP-sorrera, seinale-transdukzio eta transkripzioaren erregulazioarekin erlazionatutako miRNA-en (mikro RNA) adierazpen-mailak obulazio osteko oozitoen umelduraren eraginez eraldatu egiten direla ikusi da ere ostadar amuarrainetan (Ma et al., 2015). Chapman eta kideek

ere (2014) marradun lupian (*Morone saxatilis*) arrautzen kalitatea eta geroko enbrioien garapen-arrakasta aurresaten zuten gene-bidezidorrak identifikatu zituzten. 26S-ubikitina proteosoma, COP9 (Constitutive photomorphogenesis 9 signalosome) eta ziklo zelularraren kontrolean diharduten geneak dira antza enbrioiaren garapenaren disfuntzioekin erlazionaturik daudenak. Are gehiago, arrautza-kalitatea gene askoren menpe egon daitekeela ondorioztatu zuten, hau da, gene-multzo baten transkripzio-mailen aldaketa txikiak direla kalitatearen arduradunak eta ez gene bakar baten transkripzio-mailen aldaketak.

Gauzak horrela, bi espezieetan eta markatzaile erribosomikoekin lortutako emaitzak ez dira euren artean konparagarriak, lupian arrautzen jarraipen sakona egin den bitartean erreboiloan parametro garrantzitsu asko falta direlako eta aldiz, erreboiloan ernalketa ar bakar baten espermarekin egin den bitartean, lupian aldakortasuna emenda dezaketen ar ezberdinen esperma-nahastea erabili baita. Gainera, laginketak zein biologia molekularrerako jarraituriko pausuak gure eskutatik kanpo egon dira kasu bietan eta ez dira era estandar batean egin eta beraz lortutako 5S rRNA-, 18S rRNA-mailen eta 5S/18S rRNA indizearen balioak ezin dira espezieen artean konparatu. Beraz, lan honen egileek bereziki gomendatzen dute, arrautzen kalitatea aztertzeko esperimentu bat egiterakoan metodologia finko bat jarraitzea baliozko emaitza konparagarriak lortzeko. Besteak beste, honako hauek dira gure gomendioak baldintza esperimentalak finkatzerako garaian:

Lehenengo eta behin akuikulturan erabilia den espeziea maneiagarria aukeratzea gomendagarria da, lupia edo erreboiloa bezala, zeinetan hazkuntza-protokoloak estandarizatuta dauden, etxekotzeak gametoen kalitate galera sortu baitezake (Bobe & Labbé, 2010). Gatibutasunean ugal-arrakastan aldakortasun handia dueneko espeziea 5S rRNA oozitoen kalitatearen adierazle moduan duen balioa frogatzeko egokiena izan daitekeen arren, esan bezala hazkuntza-protokoloak estandarizatuak dituen espeziea aukeratzea da garrantzitsuena. Egokiena ugal-ziklo bakoitzean behin baino gehiagotan erruten duen espezie bat aukeratzea litzateke banako beraren gainean ugalketa-saio ezberdinak egiteko aukera ematen baitu. Horrela, baldintza egokietan hazitako emeetatik oozitoak eskuratu eta gero, animaliak estres egoerapean jarri (elikadura murriztu, ur tenperatura bortizki aldatu, bakterio batekiko esposatzea) (Schreck et al.,

2001) eta errutea bultza daiteke. Eragindako egoera desfaboragarri horretan kalitate txarragoko oozitoak jasoko dira. Banako beretik kalitate ezberdineko oozito-multzoak edukita, erruteen artean bideragarritasunaren edo molekula ezberdinen, 5S rRNA kasu, metatzeko gaitasunaren arteko konparaketak egin daitezke.

Prozedura erraztearren eta ugal-arrakastan aldakortasun handia dueneko espezie bat aukeratzen bada, zeinetan indibiduo bakoitzetik errute bakarra lortuko den, oozitoen garapen sinkronikoa duen espeziea aukera daiteke. Horrela, oozito guztiak heldutasunera batera helduko dira eta errazagoa izango da, obulazioa bultzatzea egin behar izatekotan, garapenaren une egokia aukeratzea. Gainera, multzoka erruten duen espezie sinkronikoa ere aukera daiteke, zeinetan obulazio-zikloak GnRH agonista sintetikoen (GnRHa) bidez bultza daitezkeen, besteak beste lupi zurian (*M.chrysops*), bi errute hiru egunetan eta barramundian (*Lates calcarifer*), 5 errute bi astetan, frogatu den bezala (Mylonas et al., 2010). Hala ere, ikerketaren helburuaren arabera eta batez ere, egoera optimo vs. desfaboragarriaren arteko konparaketa egin nahi bada, espezie asinkronikoak erabilgarriak izan daitezke, zebra arraina kasu, beti ere kontuan izanda obulazio garaian ahalik eta arrautza heldu gehien lortzeko tratamenduak aplikatu beharko direla, hala nola, aipatutako GnRHa-k, guruin-pituitarioaren erauzkina edo LHRHa (Alvariño et al., 1992; Zohar & Mylonas, 2001; Mylonas et al., 2010. Honekin lotuta, kontuan hartu behar da emeen obulazio naturala erabiltzean arrautzen biziraupena bultzatutako obulazioaren ondoren lortzen dena baino altuago izaten dela; lupian esaterako %75-ko eklosio-arrakasta lortzen da obulazio naturalarekin eta %50-a bultzatutako obulazioaren ostean (Fornies et al., 2001). Arrautza-oskola gardena edukitzeak ere prozedura errazten du, ernalketa arrakasta eta enbrioiaren garapenean gerta daitezkeen zatiketa zelular okerrak zein malformazioak erraz ikusiko dira horrela.

Arrautzak, espezieak ahalbidetzen badu, masaje abdominalarekin jaso behar dira (Mylonas et al., 2010). Errutean arrautzaz gain zelula somatikoak eta bestelako jarioak askatzen badira, komenigarria da urarekin arrautzak garbitzea. Horretarako nahikoa da arrautzak prezipitatu-ontzi edo Petri-plaka batean uraz garbitzea. Momentu honetan ere eta ernalketaren ostean egin beharrean, ernaldu gabeko arrautza pelagikoen kasuan, flotatzeko ahalmena duten arrautzak vs. arrautza-hondoratuak azter daitezke, *a priori*

arrautza onak (flotatzen dutenak) eta txarrak (hondoratzen direnak) bereizi ahal izateko. Beste aukera bat da luparen bidez garapenaren adierazle diren tamaina eta forma dokumentatzea. Hori egin ostean, arrautza-kopurua zenbatu behar da. Ernaldu beharreko arrautzak aukeratuta ernalketa ahalik eta azkarren ar bakar baten espermarekin burutu aukeratutako espezieari dagokion ernalketa-protokoloa jarraituz. Horrela, aitak enbrioiaren bideragarritasunean eta hazkuntzarako ahalmenean izan dezakeen eragina arbuiagarria izango da. Kontuan hartu ernalketa atzeratzeak arrautzen kalitatea gutxitu dezakeen umeldura agertzea eragin dezakeela eta beraz ernalketa-saio guztiak errun eta denbora berdinera burutu behar direla ahal den heinean.

Ahal izatekotan gameto-kopuru handia eta errute-maiztasun altua dueneko espeziea aukeratu. Espezieak ar bakar batetik esperma nahikoa lortzeko aukera eman behar du edo behintzat lortutako esperma kriopreserbatzeko aukera eman behar du (Kopeika et al., 2007), gero ernalketa-saioan eme guztien arrautzak ernaltzeko aukera emango duena. Ernalketa-arrakasta neurtu behar da, enbrioian zatiketa zelularra ematen ari den begiratuz. Horretarako adibidez, jada zatitzen ari diren enbrioiak ikusgarri direneko 4-zelulatako zatiketa fase goiztiarretik aurrera enbrioi ernalduak oozito ernaldu gabeetatik bereiz daitezke. Hazkuntza arrautzaren barnean gertatu bitartean, zelula zatiketak eta malformazioak dokumentatu egunean behin edo fase-gakoei dagozkien uneetan lupan garapenaren eboluzioa begiratuz. Geroxeago, eklosio-arrakasta eta larben tamaina aztertu garapen fase-gakoetan (Bobe & Labbé, 2010). Prozesu osoan zehar gomendagarria da animalien hilkortasun-tasa dokumentatzea, inkubazioan zehar eta garapen-fase desberdinetan hiltzen diren animaliak kontuan hartuz. Bestetik, eta saioa behin baino gehiagotan errepikatu nahi izatekotan, emaitza konparagarriak lortzeko garapen-protokolo estandarizatuaren baitan tenperatura, fotoperiodoa eta elikaduran egon zitezkeen aldaketak dokumentatu behar dira, aldaketa hauek eta sortu zitezkeen bestelako ezbeharrek emaitzetan izan ditzaketen eraginak kontuan hartu ahal izateko.

Azterketa molekularrak burutzeko, errutea gertatu eta segituan eme bakoitzetik arrautza-kopuru berdina duten hiru lagin (hiru erreplika tekniko) hartzea gomeni da erauzketa prozesuan zehar sortu zitezkeen akats teknikoak ekidin ahal izateko. Segituan arrautzak RNAlater-ik gabe -80°C-tara edo homogenizazio medioan 4°C-tara gorde. RNA arrautzen 100 mg-tik erauziko da, jakinik zenbat arrautzek osatzen duten pisu hori.

Erauzitako RNA-kopurua eta berarengandik eskuratutako cDNA arrautza bakoitzeko kopuru gisa kontsideratuko da. RNA totala erauzi ostean, laginak oso zikin badaude (DNA kutsadurarekin edo bestelako konposatu organikoekin) purifikazio-pausu bat burutu daiteke. Garrantzitsua da erabilitako purifikazio metodoa eta batez ere gehiegizko purifikaziorik ez egitea, laginetan egon daitekeen 5S rRNA, molekula txikia izanik, gal ez dadin (Masotti & Preckel, 2006). Gainontzeko 5S eta 18S rRNA-ri dagozkien prozedura molekularrak lan honetan materiala eta metodoen atalean azaldu diren moduan egin daitezke emaitza konparagarriak lortu ahal izateko arrainen arrautza-kalitatearen adierazle molekular erabilgarri bat topatzeko bidean. qPCR bidezko *gtf3a*-ren neurketa soilik oozito prebitelogenikoak eskuragarri egon daitezkeen kasuetan neurtzea merezi du. Espezie asinkroniko bat erabiltzekotan garapen ezberdinetako oozitoak banatu (Iwamatsu et al., 1976) eta prebitelogenesian daudenetan *gtf3a*-ren transkripzio-mailak neur daitezke. Horiek oozito helduetan dagoen 5S rRNA eta 18S rRNA-mailekin eta arrautzen eta enbrioien bideragarritasunarekin aldera daitezke. Horrez gain, errundako arrautzetan azpi-unitate erribosomiko osoen kantitatea ere neur daiteke, RNA erribosomikoen eta amaierako erribosoma-kopuruaren arteko erlazioak kalitatean izan dezakeen eragina aztertu ahal izateko.

Gametoen kalitatearen markatzaile objektibo eta goiztiar baten lorpena arrain industrian zein ingurune azterketetan abantaila ikaragarria suposatuko luke. Zehazki etorkizunean, arrautzen kalitatearen adierazle objektibo bat topatzeak, akuikulturan erabiltzen diren hazkuntzarako metodologia ezberdinek arrautza-kalitatean izan dezaketen eragina aztertu ahalko litzateke, besteak beste, ugaltzaileen elikadura, fotoperiodoa edo obulazioa bultzatzeko tekniken eragina ikusi ahalko litzateke (Bromage et al., 1992; Brooks et al., 1997; Bobe eta Labbé, 2010). Horrez gain, arrautzen kalitatea jakinda hasieratik kalitate horren araberako sailkapena egitea ahalbidetuko luke, txarrak direneko arrautzak edo eme ugaltzaileak (beti kalitate txarreko oozitoak ematen dituztenak) gainontzeko hazkuntza prozesuetatik baztertuz eta horrela enbrioien hazkuntza-arrakasta altuago bat ziurtatuz (Żarski et al., 2011; Żarski et al., 2012).

FINANTZIAZIOA

Ikerketa hau Espainiar MINECO (SEXOVUM AGL2012-33477), Ikerketa Talde Finkatuak (GIC07/26-IT-939-07 eta IT-810-13). IR Eusko Jaurlaritzaren EGONLABUR laguntza jaso zuen INRA-n (Rennes) egonaldi laburra egiteko.

ESKER ONAK

Horrez gain eskerrak eman nahi dizkiogu “Galician cluster of aquaculture”-ari (CETGA, Aguiño, Galizia) erreboiloekin ugalketa saioa aurrera eramateagatik.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

